

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

IX Zenbakia.

1989
Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

Orr.

Aita Mokoroaren bilduma. (Barruko azalean)	
-KO atzizkiaren erabilkera bi. L. Akesolo.	1
Goi-Yakintzaruntz. Oldozmena. A Urrestarazu.	4
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran. B. Latiegi.	7
Filosofi gaietarako iztegi txikia. A. Egia. (Itzaurrea, A. Arrinda).	12
"Soiñ" itzaren adieralpenaz. A. Zatarain.	23
Euskal abostegia. Abogañeratzea. M. Olazar.	30
Euskera dala-ta. Alta S. Onaindia.	32
Aata. Aita Patxi Etxebarria.	35
Nemesio Otaño. Jose A. Garate.	39
Sortitzantz Jakintza. M. Elena Etxeberri.	47
Akatsak zuzentzen. J. Gaztañaga.	59
"Euskerazaintza" 1-IX. Zuzendaritza.	60
Irunea ala Iruña. J. Basterretxea. (Atzeko orrialdean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

AITA MOKOROA'REN BILDUMA



Nekez, baiña ba dirudi Justo Mari Mokoroa Aita Eskolapioaren "Ortik eta emendik" lana, laster kaleratuko dala.

Bizitza guztiko lana, esango genduke. Baiña bizitzak ere ba ditu bere neurriak eta Aita Mokoroa luzaro bizi da.

Euskalerrian eta erbestean (Ameriketako urte luzeak igarota da) batzutan liburutan eta bestetan bizibizibiz entzun eta jaac8u. Aita Mokoroa euskal esakera edo tu esan-molde jatorren kezka bizi izan da. Entzun eta batzea erreza da, baiña entzun eta bakoitzari tokia biUa1u, besteekin itxuratu, |e/«du, bakoitza bere saillean sartu eta abar, lan neketsua da, eroapenez eta arretaz egin bearreko lana.

Ez dina milla esakera edo esan-molde batu ditunak, larogei ta amar

milla baiño. Or dago bere lanaren aberastasun eta sakontasuna. Eta bakoitzari bere inguru jatorra billatu ere bai, irakurlea obeto konturatu bedin, edo ta esango gonduko, inakudeari inakuniaz batera pentsatu eragiteko.

Ezin ukatu askorentzat euskeraren eskola izango diranik esakera jatorrok.

Tomo bitan agertuko da bilduma osoa. Bakoitzak 1.300 orrialde inguru.

Urteetako kezka eta larrialdiak igaro bear izan ditu urgitaratzokn, eta ba dirudi azken baten bere guraria b*Voaz, ateraldiaren zain gagozan euskaldun askoren egarria asetuko dala.


Euskera jutornak, euskera biziah, erri-euskerak arnas barria artuko duala uste dogu argitarapen onekin.

Txalo eta zorionka asiak gareala esan bear.

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



-KO ATZIZKIAREN ERABILLERA BI

Urte asko ez dala, itauntxo bat eldu zan euskera jatorraren maixu eta zaintzaletzat dagozan batzuen lan-maira: ia eguneko lana **biarko** edo **etziko** itxi esatea ondo eta jator esanda egoan ala ez. Ez ete zan **biarrerako**, **etzirako** esatea jatorrago.

Itaun egilleak goitxoan egozanak ziran. Ain zuzen, argitaratzeko aurkezten ziran euskal -lan barriak, euskera jatorrez, diru-laguntzarik edo merezi eben ala ez erabagiteko kargudunak. Egiteko au zuzenago beteteko argia eskatzen eben, okerreko urratsik ez emoteko.

Ortxe sortu jaken euren kezkatxoa: **biarrerako** eta **etzirako** ez ete egoan euskeraz jatorrago esanda, kasu batzuetan. Esaterako, **gaurko** lana, **biarko** ogia, **etziko** batzarra aitatzea ondo eta jator aurkitzen eben; baiña **biarko** itxi edo **etziko** atzeratu eta olakoei ez autsen antz onik artzen. Antza, -KO atzizki utsa ez euken norenkitzat, genitibotzat erabilteko baiño, edo izenondotzat, **etxeko jauna** edo **arpegi ederreko gaztea** esaten dogun lez, **biarko eguna**, etziko jaiak, eta olakoak adierazteko, izenen bat ondoan dauala, eta ez **biarko**, **etziko**, **betiko** ta olakoetan gero gertatzeko dan zerbait aitatzeko.

Olan gu ez gara **betikoak**, ondo legoke; baiña agur **betiko**, txarto; gure laguna etorriko ete jaku **etziko** entzuten dauanak, bear bada, bekokia tximurtuko dau, euskal-gaiztozko esaldien bat entzun daualakoa, "etziko" or ori aditzondotzat erabiltea txarto dagoalakoa.

Onetan gaur badirudi oker usteen bat sortzen asi dala askotxoren buruetan. Ez edo dakie **gaurko**, **biarko**, **etziko**, **betiko**, **geroko** aditz-ondotzat erabillita ondo eta jator dagozala, eta ez dabela beste geigarririk bear, or nai dana adierazteko, eta olantxe erabilli izan dala euskaldun diranen agoetan eta gure literaturan. Ez dogu gure idazle jatorretan **ez biarrerako**, **ez etzirako**, **ez betirakorik**, irakurriko. Geroko gaiak askotan aitatu arren eta bere luman erabilli arren, Axular andiak beti **geroko** erabilten dau, iñoz be ez **gerorako**.

Eta aitatu doguzan itzetatik kanpo, idazle zarrak jokaera bardiña izan eben beste izen eta itz askotan, -Ko eta -Tako atzizkiekin, **-rako** era **-tarako** egin barik. Eta ez daigun aitzu -Ko atzizkiak aditzean berian be geien batez geroaldia, etorteko dan egiñen bat edo jazoeraren bat gogoratzen deuskula, zergaitziko esaldien baten ezpada: Biar etorriko da, biar etorteko da, biarko egunak ekarriko al deusku barri onen bat, eta olan. -Ko atzizkiki onek geroaldia adieraztea lenengo eginkizuna dauala esan geinke. Noiz bein badau relatibo antzeko esaldi batzuk sortzeko egikizunik be, izen batean aurrean jarrita. Esaterako onako esaldie-

tan: Biar etorriko dalako ustean gara; atzo jakin gendun gure laguna Ameriketatik etorri **dalako** barria. Emen, bai; emen jazoeraren bat urrengo izenarekin (uste, barri) lotzen dau; baiña -Ko atzizki au aditzean batez be geroko zeren bat edo elburuen bat adieraztekoa da.

Baiña ez aditzean bakarrik, edozein izenekin be bai. Antziñako idazleak asko joten eben atzizki onetara etorteko dan zeren bat edo zerbaiten elburua, zertakotasuna edo zeriarakotasuna adierazteko.

Adibide batzuk ipiñi daiguzan. Amaseigarren mendekoa da euskerazko esaera zarren lenengoko bilduma. Eun da berrogeta bakarren esaerea onelan da: **Gibeleko on dana, bareko gaxto**. Gaur Bidasoaz onuntz beintzat edozeiñek esango leuke, Gibelerako ondana, barerako gaxto, au da, gibelarentzat on dana, barearentzat txarra izan daitekela.

Bilduma orretako beste esaera bat geiago gure arira ekarri geinkela uste dot: **Txitak, grisolak eta urdaia, maiatzeko maira**. Azkenengo itz biok onela itzuli ditu esaeren batzailleak "Para la mesa de mayo"; baiña, nik uste, beste onetara itzulita obeto eta zeatzago legokela: "Para mayo a la mesa". (39gn esaera).

Amaseigarren mende orretatik asita zarra deritxogun gure literatura osoan aurkitu geikela uste dogu -Ko atzizki au era orretan. erabillita.

Beioaz emen joan dan gizaldiko batzuk:

1) Okerreko jokabide batzuk aitatu eta jorratu naiez, onela idatzi eban J.M. Hiribarren lapurditarak: "Ilgandea laneko, aztelehena alferkeriako; ilhar, lursagar, ahi et gaztanbera, ortzegunetako; oilo, gaphoin eta azpikia ostiraletako". **Eskaraz egia**, 141.

2) Ez dire barriak **mahaineko**, ez mendiak gizonen **sorbaldetako**. Id. 30-31.

3) Gure biziek eztauke seguiradederik **egun bateko** ere. Euskal textu zaharrak. Lakuntzako sermoia, 233.

4) Irugarren **aldiko**, negarrez saltatu zekio apostolu sandueri. Muruzabalko sermoia, 71.

5) Jaungoikoak autatzen badu edo berezten badu bat ofizio **bateko** (van) estadu **bateko** ero **besteko** ematen tio ofizio **artako** ero estadu **artako** bear-tuen kalidade guziak. Id. Erroko sermoia. 263.

6) Beti penitenzia **geroko** luzatzen dute. Id. Lakuntzako sermoia, 323.

7) Neskatzak eta txakurrak Anjeluseko barnerat (Esaera, Larzabalek bildua).

8) Agur, Balentina, betiko, ez egun bat eta **biko** (Zapirain, Auspoa, 123, 39'garren orrialdea) sekula geiago ez naiz etorriko. Ikusten danez, singularrean -KO, eta pluralean -Tako erabilten dabe.

9) Urte guztian berezi dute denbora piska bat bere **deboziotako, negoziotako** eta **maldadetako**. (Textu zaharrak, Errokoa, 262).

10) Errian be entzuten dira onelako esaerak: zazpiko, amabosteko, ogeiko dator etxera gure mutilla.

11) Gabonetako etxera joaten dira barruan morroi egonak.

12) Aztertu daigun esaera au: Doneaneko euria, garien galtzagarria (Amaseigarren mendeko 254gn esaera). Esaera onetan argi dago zer dan Doneaneko euria, bagillaren 24aren inguruko euria. Baiña, "**Donianeko**, euria" esango leukenak egun ori etorri orduko euria, izangodala esango leuke. Bide batez, ez daigun aitzu emen jarri dogun "orduko" ori, ari berean dagoala. Ez dogu esaten: "etorri ordurako".

-Tako, len esan eta ikusi dogunez, pluraletan asko erabillia da. Baiña bai, plural ez diran beste izen eta esaerekin be. Esaterako: aparitako, gosaritako, azitako, ongarritako, barausgarritako. **Azitako** ori ereiteko gordetan dan garaua da, edota, etxean azteko edo etxeko okullurako isten dan txala. Olan izan dala uste dogu gaur arte. Gaur, barriz, asi dira batzuk azitarako esaten eta idazten, naiko luzea dan itz bat luzeago egiteko. Ez egoan ori egin bearrik.

Aparitako edo afaritako, edo afaiteko zer daukak? Olan itauntzen dau euskalkantatxo batek:

Aiko, Joanik, Olabarriko,
zer daukak aparitako?

Itaun onek jakin gura dauana zera da, ia zer dan etxean aparian jateko? Emen be batek baiño geiagok aparitarako egokiagotzat joko leukie; baiña, ez da jakin gura or zer ekarri bear dan aparitarako. Apari-lekua apaintzeko gauza asko datoz ondo: maia, ontziak, koillara ta abar; baiña aparitako bear dana jana ta edana dira, orreik egiten dabe apari, ez ontzi koillara ta abarrek.


Bardin antzekoa da Mezan jazoten dana. Mezan oparitako ekarten dana ogia ta ardaoa dira; orrexek dira opari; geroixek dira gero sagarako misterioan Kristoren Gorputz eta Odol biurtuta opari barri biurtzen dana eta Jainko Aitari eskinzen jakona, eta kristiñauak jan ta edaten dauana. Eukaristi-otoitzak euskerara itzultzerakoan, eztabaitxo izan zan itzultzaille-batzordekoen artean "oparitarako" ala "oparitako" bear zan: Oparitako ekarri ditugun ogi ta ardoa bear zala erabagi eben. Alan izan dogu oraintsurarte. Olantxe dauke Baionakoak: "oparitako ekarri ditugun ogi eta arnoa", eta olantxe geunkan Bidasoaz onuzkoak. Baiña norbaitek or bere eskua ezarri dau, eta azkenengo argitaraldian, "oparitarako" ipiñi deuskue. Okerragora zuzendu dabe, bai Bizkaikoan eta bai Donosti-Iruñekoan, eta ez da bape obeto gelditu. Mezan ogi ta ardoa ez ditugu oparira ekarri egiten, opariko parte bat izateko, opari izan eta egiteko baiño. Ori egingo dau, egitekotan, "zer daukak aparitako" barik, "zer dogu aparitarako" esan bear dala diñoanak.

Nastetxoa sorizen da egiaz -Ko eta -Tako atzizkion goraberan. Lapurdi aldekoen artean, ez baiña, emengoen artean bai.

Aspalditxotik dator emendikoen joera au. Antziñako dotriñak, Irazustak, Olaetxeak, Oikiakoak zertako eta zetako esaten eben lekua, edo olan asita itauntzen eben lekuan geroko askok zertarako ipiñi eben, eta askoren buruan antziñakoa gaurkoaren laburpena dalako eritxia gelditua edo dala dirudi. Baiña ez da olanr Lapurdi aldeko batek ez dau iñoz zertarako galderarik egingo. Antziñako sus-traietan tinkoago jarraitzen dabelako.

Argi billa gora jo eben gazteak, oker uste onen lekuko. Biarko ala biarrerako esan bear zan itauntzen eben. Ez gaurrerako, ez biarrerako, ez etzirako, ez noizerako; noizko, etziko, biarko, gaurko baiño. Ori da euskera jator eta garbia.

L. Akesolo





GOIYAKINTZA'runtz urbiltzeko naye an euskeraz egindako u ats txikiak:

OLDOZMENA

Adimenari buruz ari ondoren, beraren bidez betetzen ditugun egipen batzuk ikusi ta begiratzea oso egokia edo izango zaigu; ta egipen oyetatik lenengoa, bearbada ga antzi aundienetakoa dana, oldoztea dugu. Bai, ortarako dugu adimena ta oren eske baka ik oldozten du gizonak. Eta bea -bea a zaigu guztioi ortan ari-izatea, gauza guztien be i zeatza, egiazko be ia izateko, ta egin bea dugun oro ere ongi egiteko, au etik astiro ta sakon oldoztu bea , oke ik ez burutzeko ta yardutean egokiro ari-izateko ere; jakiña, ortarako adimena jafi bea dugu jokoan, oldozmena zuzen ari dedin eta oldozmenetik be oldozpen zeatzak ateratzeko.

Ba-dugu, beraz, oldozmena, ots, oldoztu al-izateko mena edo almena, adimenaren azpegi berezia bezela, ezinbestekoa dan ondorioa bezela, adimenetik sortzen dana; ta ba-dugu, ukan ere, oldozpena, ots, oldozmena egiña biurtuta. Oldozmena, alegia, gure baitan almena dugu, ta oldozpena oldozmenaren ondorioa, oldozmena yardutearen ondorioa, au be geron baitan kokaturik. Naiz oldozmena naiz oldozpena geron baitan ari-izatekoak ditugu, ezin ortik at bizi, ezin guregana eldu, itza, ab., eltzen dan bezela. Alakotz, oldozmena ta oldozpena, aita ta seme lez begira ditzakegunak, geron baitan baka ik dute beren zer-ikusi guztia, ta an gure gogo-biziari lan, bizi ta izate berezia ematen dizkiote sendo, gogo-bizi ori mardul eta etenkitsua izan dedin. Eta bizi oren azpegiak bezela ere begira genitzake.

Zer da, baña, oldoztea?, nola ari zaigu gure baitan oldozmena, nola oldozpena? Zertarako oldozten dugu?, zer Jotzen da oldozmena eragiten?, zertarako ere oldozpenak?, zer ateratzen dugu naiz bera naiz bestea erabiltzetik?, ezinbestekoa ote zayo gizonari oldoztea? Amaika egin ditezken onelako galderak.

Noski, lenengoz, esan dugun bezela, oldozmena adimenaren egitea da, egipen bereziena apika; o ela, adimena erabiltzean, onen almen berezienetakoa erakusten da, geron baitan dagoen bizi yaukala nolako sakon eta indartsua dan adieraztean. Baña zeazki, berez, oldozmena zer da? Onela edo eman genezake erantzun egokia: Oldozmenaren bitartez, notin, gauza, asmo, gogai, yakintza, an-

tze ta zentzundunen gogozkoak diran gorabera guziak nolakoak diran, zertarako ditugun eta nola erabili bea diran ere ondo ikusten ditugu. Esan diteke guzti ori adimenak ere burutzen duela, ta egia da, ta oldozmena adimenaren zatia dalarik, bidezkoa izan bea biek lana bera ere egiten dutela; baña oldozmenak, lan ori mugatuago bezela dagi, adimenaren almena lantzean lez erabiliko bailuen.

Eztira, eiki, gauza bera adimana ta oldozmena; adimena asierako almena bezela begiratu dezakegu, ta oldozmena oren ondorio bat lez, adimenaren ondorio zuzen-zuzen eta bidezkoena bezela. Beste azpegiz auxe be esan genezake: oldozmena adimenaren yarduteko bidea dala, bide bat bederen; eta biak gure gogo-izatearen agiriak lez agertzen zaizkigula.

Oldozmenaren yardutean adimena bizi dala esango genuke, ta o ela oldozpena bihurturik adimena ba-dugula argi oa dezakegu, ta oldozpena eratzean agertzen zaizkigu naiz oldozmena naiz adimena; oldozpena, beraz, adimen eta oldozmena geron baitan diardutela jakiteko, bide egokia bezela begiratu bea dugu, ta begiratze o en bidez bi gogo-almen aundi oyen jabe gerala ikus dezakegu, geron baitan bizi diran bi almen aundi oyek gure gogo-aberastasuna nolakoa dan ongi ezagutzeko.

Eta nolakoa da oldozpenaren izakera? Enurarik gabe oso zabala, amaika bideetan barna ari zaigulako. Naiz aundia naiz txikia, edo arin ala sakona izan, eragiko a dugu beti oldozpena, gizonaren bizirako, gogo-bizirako ezinbestekoa dala adierazten, oldozpena egitean baka ik bizi ori gerta baititeke, oldozpenaren arauz izateko; alakotz, oldozpena nolako, gogo-bizia ere alako izango da beti, ta oldozpenetan barna bizi-izateko ta agertzeko, noski, adimenean eta geron baitan ari dan gure gogo-bizi guztia; ofa nun eta nola edatzen dan gizonaren baitan guztiz gogozkoa dan bere gogo-bizi bedega a oso; ta o a of nola agertzen zaigun, argienik, gizonaren garaitasuna bizidun guztien artean, bera baita baka ik goyera orlan bizi ta yardun dezakena.

Oso zabala dugu, zinez, oldozpenaren eginkizuna, bakoitzak berez dagiena; naiz eta neufi oso txikian izan, jayo ta laiste ara norberaren baitan adimena ta oldozmena yardutean eta ondorioaz aldamentean dagoen guziari buruz oldozpenak burutzeko; gero, adiñaz eta batez ere ikasteen, oldozpenak aundiago, zabalago, sakonago egiteko. Gizona gero ta jakitunago izan, oldozpenen bitartez igoen da yakintza-mafadian gora, guziek oldozpenari gero ta ga antzi aundiagoa ematen; aintzat artzen da alde ta toki guztietan oldozpenetan ari dan gizona bai ta oldozpena bera ere. Parantzi'ko irudigife aundia izan zan Rodin'ek ederki adierazi zuen ori "oldozketaria" izena daraman bere lan berezi ta egokiaren bitartez.

O ela ikusten dugu, argi, gizon bat oldozketaria izatearen ga antzia, oldozpenetan ari-izatean goi-goyeneko gogo-bizian murgildurik agertzen dalako; ofa ben-benetako garaitasuna, gizonari ain egokia zayona. Ba-dirudi gogo-bizian mugarik ezagutzen ezuala, ta ofelaxe ezin adimenarentzat, oldozmenarentzat, ari-izateko landa zabalagorik izatea, gizon guzientzat idekirik dagoena, ta beraren barna guztiok yardun bea , bakoitza al dueneraño eltzeko; ta oldozketariak dira zabaltasun orlan u utieneraño eltzea lortzen dutenak.

Biziduna dan gizonarentzat oldoztea da, bereziki, bizi-izatea, gogoaren galgan egokienik bizi-izatea, ezin beste oberik izan, eta bizi ori norberaren baitan ikus dezakegu sortzen, edatzen, sakontzen eta indartzen. Gogoari baka ik dagokio bizi ori, edo gogoan baka ik sortzen eta zabaltzen dala ere esan dezakegu, oldozmenak batera almen eta doaya dirala argi erakusten duelarik. Goikoa'rengandik datorkigun almena ta geron aldetik doai ede enetakoa bezela gozatzeko duguna; bai, doaya biurtu zaigun almena. Zorionsua benetan gizona, bere baitan egipen aipaga ia dan ori buruturik ikus dezakelako.

Oldozmena, oldozpena, oldozketa; irugafen au beste bietatik sortu ta egiña dala ikusi bea , biga ena lenengoa dan bestetik datorkigularik ere; kiri ortan,


gañera, jokaera guzia burutzeko, alda ezin diteken kirian eta guztiontzat o ela gertatzen dalarik. Eziña izango litzake gizonarentzat bizia oldozketarik egin gabe, batez ere gogo-bizia, ta oparo emana dugu guztiok guzi ontan dagoen inda berezi ta goragafia. Ez ote garama egi oek ema(earenganuntz, guzion gañean bizi dan oren sortzafea dan o enganuntz? Ez al da asmo ori Goikoa bizi dala adierazten digun egiztabide bedega a? Geron aldetik egi-egia bezela onartzeko duguna.

Difogunez oldozmenetik oldozpena dato eta bietatik oldozketa, ots, eto era ortatik betetzen dan egipena. Nola burutzen da jokera ori? Zalantzik gabe itzaren bidez, eta len esan genuena ere ona izango zaigu emen be iro gogoratzea: itzen bidez egiten da oldozpena, bai ta oldozketa ere, ziñez; itzen bidez oldozten da ta ez dugu iñoiz of agertzen dan egia aitzu bea . Bai, ezinbestekoak ditugu itzak gure oldozpenak eta gure oldozketak egiteko; ta naiz oldozmena, oldozpena ta oldozketak, naiz eta biga en eta iruga ena burutzeko darabilzkigun itzak gure baitan bertan sortzen eta bizi dira beste iñora igaro gabe. Ofa of gure gogo-bizia burutzeko ditugun goi-goyeneko gure bide yaukalak, ofa gizonarena dan almen goraga ia, berarena baka ik dana, ta beste izaki guztietatik goratuta agertzen zai-guna.

O ela dugu ikusteko, adimenarena dan egipen gorenengoa, oso ondo gure gizon-izana ederkienik erakus eta egiztatzen duena: oldozmena ta bertatik datozen oldozpena ta oldozketa. Bidezkoa da, bea a ere, gure baitan batez be gizonak duen bizia ondo ulertzeko, egokia dan azterketa egitean atematen duguna, ta oren ezagupena be izateko.

U estarazu'ta Andoni





EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN BEDERATZIGARREN MENDEKO LAU LARRUKI V

Eman dezaioگون lan oni amaia, 864'eko Larrukiaren azkeneko toki-izenak aztertuz. Auek dituzu azkeneko sei izen oiek:

Gauzella
Faro

Lixarzo
Manta

Dobaltia
Eversa

Larruki ortako erriak, Aiala Aranean eta gaur Burgos'ko Probintzi dan Mena Aranean zeuden. Geroago, "Las Encartaciones de Burgos" ere esan oi zaie Aran ortako eta Aran orren inguruko erriei; Laredo eta ingurukoei "Las Encartaciones de Santander" esan zitzaaien bezala.

Gure gaurko 6 erri auek Aiala'koak dira.

GAUZELLA—. Orrelaxe, "Z"taz idatzia. Eta orduan "O" idazteko "AU" erabil-tzen zutela, eta "LL" ori "L" aoskatzen zutela gogora ekartzen ba'dugu.

GOZELA—. zuzen-irtengo zaigu erri aren izena.

Ala're, "AU" "O" dalako ori ez da beti egia gertatzen. **Oka**, adibidez, "**Auka**" ikusiko duzu beti, baiñan Valdegobia, "**Vallis Gobia**" edo "**Vallis Gobe**a" beti, Valpuesta'ko gotzai-dokumentuetan izan ezik.

Aiala'ko gure erri zar aren izena, euskalduna ote zan? Bai noski.

Orduango gauzellatarrek beren erriaren izena GAU ZELLA aoskatzen ba'zuten, Kerexeta'k dioskunez **Gauzen** euskal-abizena omen da, gipuzkoarra.

Bada beintzat Gipuzkoa'n **Gauzerizar** abizena. **Gauzen** eta **Gauzerizar** eta **Gauzella** toki-izen eta abizenetako GAUZE aurre-izkia ere euskal-itza dalaren adigarri!

Gauzerizar, 1625'garren urtean aipatzen digu Isasti'k; eta Kerexeta'ren ustez, bere etimologia **Jauregizar-edo** izan ornen daiteke. Ortaz, Gauzella, **Jauregiella** ote zan? ots, **Jauregitxo**? Jauregi euskal itzez eta **ella** laterazko ttipigarri edo diminutiboz osotutako izena? Ez dut uste, naiz larruki au, garai artako guztiak bezala, lateraz idatzirik egon.

Beren erriari, IX mendeko gauzellatar aiek **Gozella** esaten ba'zioten, Goze edo Goz aurrizkiak, eta Ella atzizkia, zer diran jakin bear dugu.

Gozillar, —"Goz"-llar—, euskal abizena dugu. "llar" atzizkia ("txillar", Euskalerriaren sortaldean), españarrek "brezo" esaten dioten landarea dala edonork daki.

Zer ote da "goz" aurrizkia? Lopez Mendizabal'en ustez, gazteleraz, "grama" eta euskeraz, guk beintzat, "aski" esaten diogun sendabelarra. "Goza", "G" apaingarriz eta "Osa" itzez tajututako izena omen da bá. Eta, "Osa", edo "Oza", aipatutako sendabelar ori.

Madoz'ek ez digu, bere iztegian, ez Gauzella'rik ez Gozella'rik aipatzen. Idazlan ontarako utzi ditugun beste bost errietatik ere, ez du bat bakarrik aipatzen.

Alatagutziz, Araba'n **Gausa** izeneko toki bat bada gaur. "Pastizal", Lopez Mendizabal'en aburuz; "Osa" eta "Ausa", gazteleraz, "campo" ornen dira bá.

Ez dakit nondik atera duan ori; baiñan ez naiz oker dabilenik esatera ausartuko, aberizti, landarizti, eta izadizti orokorrari dagozkien izenei buruz, negargarriki urriak bait dira gure iztegi guztiak.

Danadala, ez "auzarik" ez "ausarik" ez "osarik" ez "ozarik" ez duzu aurkituko, —izadi-zentzu orrekin—, Azkue'gan. Ezta Plazido Mujika, Lhande, eta "Aize Garbi"ren iztegiatan ere.

"Ausa", euskal sarkaldean, euskal-sortaldeko "agian" dala bai, esango dizute, baiñan zentzu orrek ez digu balio euskal-etimologigintzarako.

"Aus", Pierre Lhande'rentzat, "variété de "Hautz", cendre dans quelque composés tels que "auskalder" (voir "hauskalder"), ou "auspuru", grose toile qui renferme la cendre dans la cave á lesive".

Euskeraz: "Aus". "Hautz"en aldakuntza alkartutako itz batzuetan. Orrela, auskalder" (ikus "hauskalder") eta "auspuru", lixu-ontzian autsa eusten duan oiala".

"Auskalder" zer dan jakin nai ba'dugu "hauskalder" ikustera joateko, diosku Lhande'k, baiñan alperrik joango zera itz orren billa. Aztu egin bait zaio bere iztegian ipintzea. "Haize-Garbi"k, "hauskaldar" ("a"z) lixu edo bokataren ondo-rean oialean gelditzen dan errautsa dala dio.

Baiñan **Gaucella'ren** etimologia aurkitzeko ez dut "errautsak" balio digunik uste.

"Ausa", Lhande berarentzat "avalanche" da, "elurtea", "elurraren mendiak-beeruntzko-jausketa". Ez zait iruditzen orrek ere balio digunik.

Aipatu ditugun itz oietatik Novia de Salcedo'k eta Larramendi'k, "agian" esan nai duan "ausa"z gaiñera "osá" bat ematen digute, "odei" esan nai duala adieraziz.

Lanketa legor aspergarri oni alaitasun-pixka bat ematearren aipatu nai izan ditut antziñako bi euskalzale bikai oiek. Alare ez eiozu, arren, beraiek esango dizutenari parrik egin, itz galdu baten zentzua beintzat gorde bait digute. "Osa = Odeia".

Novia de Salcedo: "Osa; Nube. Esta voz parece formada de **o**, cosa alta, elevada, eminente, y **sa**, extensión móvil, b, **s**, cosa móvil y **a**, característica de apelativo" (de nominativo, esango genduke guk).

Oroi, garai aietan, Astarloa'z gero, letra edo izki bakoitzari zentzu bat ematea, oiturazko gauza zala euskaltzaleen artean. Bide ortatik jarraitzen du gaur-egun Gorka Oteiza irudigille ospetsuak ere.

Lopez Mendizabal'ek "osa" gaztelerazko "campo" dala esaten dun ezkeror, begiratu dut Larramendi'ren iztegian "campo" itza, —gaztelaratik bait du iztegi orrek sarrera—, eta ona zer aurkitu dudan alaiki arriturik:

"Campo. Viene, en el latin y el romance, del vascuence **campoa** que significa lo que está fuera... Por donde todas las voces procedentes que vienen de campo son vascongadas en su origen".

Oro euskaldun egiteko joera zuten euskeriztilari zaar aiek. Gaurkoek berriz—,

Españi'tik etorritako irakasleek eta emen bertan Euskadiko Eskerra españizalearen giroan zabaldu dan euskotar askatasunzale izateko lotsak eraginda—, oro latindar edo gazteleratar biurtu nai izateko joera dute. Biak era berean oifarrri zindo gabeak: orduango joera eta gaurkoa.

Dakusazunez, ezin izan dugu **Gauzella'ren** "GAU" aurritzia zer dan argitu. Ez dakit, ezta, "ELLA" atzizkia zer dan. Euskalduna izan bear du. Araiz Aranean Arribe'ren auzo batek **Orella** ("Oro-Ella"?) bait deritza, eta an, Erri Euskaldunaren biotz-biotzean, Aralar'ko Mailloen iparrean, "Ella" ori, naitanaiez izan bear bait du euskalduna.

Orra bá. Ezin izago dizut esan, azkenean, **Gauzella** zar ura zer zan. Euskalduna zala bere izena, bai; or bait daukagu lekuko **Gauzerizar** gipuzkoarra.

* * * *

MANATA— "Per medium montem de Manata usque ad"... "Manata-mendiazear aruntz" dio Didako Konteak larrukian.

Manata ori zer izan daitekean ezin izan dut igarri. Bi "NN"z, **Mannata**, ots, **Mañata** izan balitz...! Izen asko bait ditugu Euskalerrian "Mañ" aurritziz asten diranak; Mañana adibidez Bizkai'n, eta Mañeru Naparroa'n. Itz oiek, Lopez Mendizabal'en aburuz, "M" protetikuko edo edergailluz, eta gazteleraz "brezo" dan "iñar" itzetik ornen datoz. "Iñar", irakurle, "illar" eta "txillar"en senide duzu; eta "iñar" etik datorkigu **Iñarra** abizena.

A! Nola ez? Oro latiniertatuzalea bait zan Mitxelenatar Koldo indo-europearizkuntzen irakaslea!, arentzat **Mañana** laterazko itza da, eta baiñutoki esan nai ornen du, "balneum", lateraz, "etxe-barrungo baiñu-gela ornen zan ba, eta "balnearia" erriko "bañueta", erriko "bañuetxea".

Beraz, Mañana, "Bañaraia", izago litzake, **"B"** maiz biurtzen ornen da bá "M".

Baleike, baiñan ez zait gauza zurrta iduritzen, naiz Irigaray eta Gorostiaga ere Mitxelena'ren aburuko izan.

"M" ta "B" gaiñera, ez bait dira ain maiz alkarren artean aldatzen.

Nere ustez, Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren bidetik billatu bearuko genduke "Mañaria"ren etimologia.

Aiala'n bada gaur **Madaria** izen-duan errixka bat. **Madaria** au ote da IX mendeko **Manata** ura?

* * * *

LIXARZO— Aiala'n zegoan erria. Gaur **Lejarzo** deritza. Euskalerriaren sarkaldean "Lixar", guk sortaldean "Lizar" esaten dugun zugaitza bera da. Ortik dator **Lisardo**, **Lisarso**, eta beste ainbat toki-izen eta abizen.

"Tzo", "Tso", "Tsa", "Tza", ugaritasu-adierazle dirala badakigu, atzizki lez. Ortaz, gaur-egungo **Lejarzo'ren** etimologia **Lixartzo** dugu, Gipuzkoa'ko **Lizar-tza'ren** izena bera, bederatzigarren mendeko LIXARZO arek erakusten digunez.

EVERSA— Ez dizu iñork esango ezabatutako errixkaren bat dan, edo gaur oraindik beste izen batekin bizi dan. Ezta, ziur, non zegoan ere. Alata-gutziz, Aiala'koa zala dirudi, beste erri aialar batzuen artean bait dator larrukian: "... meas decanias... id est Angulo, et Salvata, et EVERSA, et Lixarzo et Urzanico et"... "Nere dekaniak, ots, maizter-erriak... au da, Angulo, eta Salvata, eta Eversa, eta Lixarzo, eta Urzanico eta...".

Sartu egiogun ortza bere etimologiari. Azkeneko "sa" ori, ezpairik gabe "tsa" atzizkia dugu; ugaritasun adierazlea. "Ever" berriz, Kerexeta'ren ustez, "abari"ren aldakuntza; eta "carrascal" esan nai omen du. Gaztelerazko "carrasca", "zumel" da nere euskeraz; beraz **"Eversa"** ura **"Zumelats"**, "Zumelaga", izango genduke. **Zumelabe** bada Gipuzkoa'n abizena.

"V" ordea, erdiaroko dokumentuetan, sarri, "U" dugu. O rtaz, **Eversa** ura, **Eversa** genduke. "R" ori "L"ren aldakuntza ote? EULZA Naparroa'ko Zizur'en bait dago, eta Eusa Naparroa'n bertan, Ezkabarte Aranean, Ezkaba mendiaren maldan.

EZKABA mendi ori, gaur mundu guztiak San Cristobal esten dion mendi legorra duzu. Iruña Uriaren aurre-aurrean dagoana, eta azkeneko anaia rieko-guduan ain edesti ituna izan zuana.

"Eversa" ordea laterazko itza ere bada, "evertere" aditzaren "participium passivum" edo leen-aldiko aditz-izena. "Naasia" esan nai du, eta "goldez iraulia". "Eversa" ura, ortaz, lumalariak egindako euskal-izen baten laterarako itzulpena ote dugu?

Ez dala erreza, etimologiaren baratza!!!

FARO— Itxuraz Mena Aranean zegoan errixka. "...via publica qui discurrit de Salvata apud Salvaton, et per illo seminario qui discurrerit de Faro ad Coronellas". "Salvaton'en, Salvata'tiko bidea... Faro ta Coronellas-artereko bidexka artan"...

Haro, Errioxa'ko erriaren izena, **Faro** izan da luzaroan idatzia. Gure Faro au **Haro** ote dugu bá, Errioxa'ko uriaren izen bereko arrixka?

Bada gure artean **Farrondo abizena**. **Harrondo** ote da Farrondo ori? Bai, ezpairik gabe.

Badogu **Farondo** abizena ere. **Harondo** ote? (**F** eta **H** alkarren arieen sarri trukutzen diran izkiak bait dira).

Naiz arrigarri iduri, ez ote da **Farondo** ori—, Juan Carlos Guerra'k uste zuan bezala—, **Haro** abizena ber-bera?

Baranda ori, —Juan Carlos Guerra'k uste zuan bezala **Haro** abizena ber bera.

"Faro, apellido vasco, —diosku Juan Carlos Guerrak—, su forma medieval es **farondo**". Eta, "Faro'ren ondoan", esan nai omen du.

Faro ori Errioxa'ko ibai bat dugu, gaur Tiron, eta antziña Faro ere esan oi zi ain zuzen Haro (edo Faro), urriaren alboan, Oxa edo Oja ibaiaren bat eginda Ibero ibaiera sartzen dana. (Ibero, Ebro dala, jakingo duzu noski, irakurle).

A! **Faro**, etimologilari batzuen ustez, "**Fago**" edo "**Pago**"ren aldakuntza ornen dugu. Baleike; Paguaga eta Faguaga, Pagoeta eta Fagoeta, eta orrelako abizenak ugari bait dira Euskalerrian. Izan ere, gure "pago" itza laterazko "fagus"tik bait datar.

Gure larrukiko **Faro Fago** dala eskier esateko, ordea, "R" "G" nola biu rtu dai-tekean jakitea dugu arazorik zaillena.

Haro berriz, **Garo** ornen da. Au, bai. Au baleike egia izatea, "H" eta "G" noiz nai alkar-trukatzen bait ziran "H" eta "F" bezala. O rtaz, "Faro" "Haro ba'zan eta "Haro", "Garo", gure larrukiko **Faro** aren izena, euskaldunen ezpaiñetan ez ote zan GARO?

Otarako, ots, ori ziurrago jakiteko, Euskera Autrigoiaren artean noiz galdu zan jakin bearo genduke.

Eginkizun zailla, euskaldunek ez bait zuten bere erriari eta bere edestiari buruz ezer idatzi. Orixe da ain zuzen Euskalerrian "jatorrizko obena": euskaldunek ezer ez idatzi izatea.

Orregaitik, gure edestia ezagutzeko arerio amorratuak genituan atzerritarren idazkietara jo bear izaten dugu.

Alatagutziz, zerbait jakin aal izan dugu. Badakigu adibidez XIV mendean Jaka'n, eta Ueska urian bertan, euskera itzegiten zala, 1349'an gotzaiak uri oietako elizetan euskeraz itzaldiak egiteko agindu bait zuan. Jaka gotzai-uriburuan, eta Ueska errialde-uriburuan, euskera egiten ba'zan, zer esanik ez Auñamendien luzaro guztian mendi oien bi egaletan. "Lo mismo que en la mitad de la Rioja y la Bureba hasta 15 kilómetros de Burgos" diosku Kerexeta'k.

Sinigarri dirudi beraz, XIV mendean toki oietan danetan euskera egiten ba'zan, euskera egingo zala Aiala eta Mena Aranetan IX mendean.

Aiala'ri dagokionez, XVIII mendearen azken-aldean, asia zan toki-izenetan gaztelera sartzen.

Aran ortako erria da Menagaray. Ikus, 1848'an Madoz'ek damaizkigun erri ortako toki izenak, mugak aipatzean. Llanteno eta Zuaza; Respaldiza, Quejana; Botegui eta Costera. Erriko baserri eta auzoak omen ziran Iza del Monte, Janduri, Mendico, Los Riberos, Chirigoa, Arechavale, Jauregui eta Mendieta. Bere mendiak, auek ornen ziran: Mostondo, La Garvea, Arbol Solo, Orriola y La Tejera.

Izen oietan, batzuk, geienak, euskaldunak dituzu, besteak La Garvea bezala, euskal izenak, gaztelarazko itxuraz moztuak; eta beste batzuk, euskal izenen erdal-biurketak, Arbol Solo adibidez. Oroi Mungi-aldeko Arte Bakarra toki-izena.

XVIII mendearen azkenean, Aiala'n euskera galdua zala, edo galtzen ari zala esan nai digute aldakuntza oiek. Baiñan, IX mendean, ez. Tinko ziraun oraindik Euskerak IX mendeko Aiala'n. Eta berdin Mena Aranean, Mena ta Aiala alkaturik agertzen bait zaizkigu, gutxienez Gaztela'ko III Endika erregearen denbora arte (1390-1406); XV mendearte dakusazunez. XV mendea! IX mende artatik oso urruti!

MENA—. Aran onen izena Euskal-izena danik, ez dizu iñork zalantzan ipiñiko. Toki izen geiegi bait ditugu, Euzkadi osoan Mena'z asten diranak: **Mena-Urizar** (Abadiano'n); aipatu dugun **Menagarai**, Araba'n. **Menasa** zan joan dan mendean Ripodas'ko lurralde baten izena. **Menarges**, eta **Menauri** Lerida'n daude. Azkeneko au, **Sauri** deritzan erri baten auzoa da. Ez al du orrek guk aitzintxe ezan duguna egizatzen? Erdiaroan euskera Añamendiko bi aldeetan oso sortaldeko lurretaraiño iristen zala, alegia.

Mena aurritzia dagoala dirudi, **Men'ez** asten diran erromateko euskal-errien izenetan ere: Barduliarren **Menoska'n** adibidez (gaurko Getari?) eta Baskoien **Menlasko'n** (Urumea ibaia?).

Bizkai'ko **Meakaur'en**, erromatarren aroko arri-ol batean 194'garren urtean egindako idazki batzuk agertu omen dira, Bernardo Estornes Lasa'k dionez.

Mena itzak zer esan nai duan jakitea ez da ain gauza erreza. "Mea", erderaz "mineral" da. Ortik ote dator? Baiñan ez dut sekulan entzun Mena'n meatzik izan danik.

Lopez Mendizabal'entzat, belar baten izenetik dator, gaztelera "gamon" eta euskeraz, "ena" "ana" "una" esaten zaion belarretik. Lengoa aitortu bearko dut berriro. Lopez Mendizabal'ek itz oiek non aurkitu dituan ez dakidala.

* ** *

DOBALTIA—. Aiala'ko erriska. Estornes Lasa'ren ustez, gaur-egungo **Madaria** ornen da. Ori bera esan zuan Llorente kanonigo ospetsuak ere; baiñan oker dabiltz, Dobaldia ura, gaur galdua dagoan Obaldia bait da. "Dobaldia = D'Obaldia.

Dobaltzaga Erandio'n eta **Dobaran** Urdulitz'en, toki-izenak dira: "D'Obaltzaga" eta "D'Obaran".

Obaldia, **Obalde**, **Obanos**, eta antzeko abizenak eta toki-izenak asko ditugu Euzkadi osoan.

Oba, nere ustez ez da belar baten izena, Lopez Mendizabal'ek nai duan bezala; "Obi"ren aldakuntza baizik, "I" ori "A"ren aurrean era bat galtzen bait da beste itz batekin aurrezki lez alkartzetakoan: artalde = ardi-talde; arraitz = arri-aitz; mendate = mendi-ate...

Araba'ko Luko'n **Doba** ("D'Oba") itzetik zetorren **Dobeta** ("D'Obaeta") "Las dobas" biurtu dute. (Euskal-izenak nola gaztelaritzen, eta Euzkadi nola "españolizaten ari diran ikusi dezagun?).

Latiegi'tar Bixente



FILOSOFI GAIETARAKO IZTEGI TXIKIA (I)

ATARIA

Orain amar urte EUSKARAZAINTZAK iztegi batzuek egiteko asmoa artu zuen eta ni gelditu nintzan Filosofi Iztegia egiteko. Lan orretarako Tolosa'ra jo nuen Luis Eguia'rengana. Gaixo zegoen eta gaixotasun artatik ilko zan; baiña, burua zeukan argi; euskera amaren agotik ikasi zuen. 1972garren urtean NEURRIZTIA argira eman zuen, KARDABERAZ BILDUMAREN bigarren atea. Ona zer esaten nuen liburu aren atarian:

"Luis Eguia'rena da. ANDIMA IBIGANABEITIA SARIA, 1971'garrenean irabazitakoa. Euskalerritik at ibillia izan arren, ez zuan euskerarik aaztu. Gutxiago ere. Aaztu ez, maiteki zaindu baizik. Tolosarra da Eguia. Ta inguru artako errietan ditu bere sustraiak, Euskera jatorra erabiltzen dan tokietan... Ez da ba arritzeko fruituak alakoak irtetzea".

Liburuak 324 orrialde ditu eta badu Iztegi Berezi bat ere gaiairi buruzkoa. Badu beste liburu bat ere argitara oraindik eman gabea: ALJEBRA euskera jatorrean bere kabuz egiña, NAURRIZTIA bezela. Oietzaz gaiñera baditu beste erlijio-gaieko liburuak ere argira emanak.

FILOSOFI IZTEGI au udaberrian asi zuen eta iraillaren 15ean (1981) ona zer esaten zidan eskutitz batean:

'Anes: aurreneko itz-sorta ("genetika" arte) zensura pasia zegok, Txomin'en eskuetatik. Bigarrena ("paradigma"raiño) garbi kopiau bearrean zegok, eta aurki balduko Txomin'eri. Dana ilbeltzean buka leikela uste diat, Jainkoa lagun. Bañan nola? Or da koxka. Nik alegiña egiten diat, beintzat. Urren arte. Luis Eguia".

Or aitatzen duen TXOMIN Zumarraga'ko eleiz-erretorea zan, TXOMIN IRIGOIEN euskal idazle jatorra, Oiartzungo semea. Beraz IZTEGI au Luis ek egin eta Txomin'ek aztertutakoa da.

Anes Arrinda

ABSTRACCION (Abstraction) BURU-LAN

Latiñezko ABSTRAHERE aditzak (verboak), alde batera ekartzea esan nai du; eta, filosofi gaietan, alderatze ori BURUZ egiten dan lana da. Adimenak bakarrik egin dezakena. Orixe da, ain zuzen, giza-gogoari berez dagokion eginkizunik jatorrena, berezkoena. Gogaiak (pentsamentuak), izan ere, gure adimenak sortuak dira. Izadiko gauzetatik bakanduak. BURU-LANEZ bereziak.

Jakiña, gauzak ezagutzean ez dira (izadian daudenez) gure buru barruan sartzen; bai ordea, adimenaren eragin indarrez gauzetatik alderatutako gogapenak. Eta berenez zabalkorrak dirala esan genezake. Au da, zer askotara zabaldu ditezkeela. Adibidez, "Iñaki aberatsa da" diogunean, aberastasun ori, aurrean daukagun Iñaki'ri ezik, inun, inoiz eta inolaz dirudun diran guztiei dagokie. BURU-LANEZ alderatutako gogaia bait da. Hegel'ek berak, giza-pentsakera nolakoa dan adierazi nairik, adimenaren eginkizunik nagusia dala dio.

Ortaz, "abstracción" BURU-LAN esaten ba'degu, "abstracto" BURUZKO esan leikela iruditzen zait.

ABSURDO (absurde/absurd) ITXURA GABEKO

Euskeraz asko dakian bati galdetu nion: "Nola esango zenduke ABSURDO"? Eta, bereala, "ITXURA GABEKO" erantzun zidan. Geroztik, deitura orri bein ta berriz eragiñik, egoki esana dala pentsatu det. "Absurdo", izan ere, bururik gabe eta zentzuz-kontra egindako gauzari esan oi zaio. ITXURARIK ez duanari. "No tiene visos" esango genduke erderaz.

Gure burua etor ditezken gogapenak iru eratako dituzu: ARRAZOIZKOAK edo adimenaren neurrikoak, ARRAZOIZ-GAIÑEKOAK edo goi-sinismenaren argiz ikasitakoak, eta ARRAZOIZ-KONTRAKOAK edo ITXURA GABEKOAK. Adibidez, OBO (kurpil) KUADRATUA.

ABSOLUTO (/) UTS

"Absoluto" itzak bi zentzu ditu gutxienez: "askatua" eta "naasi gabea". Latiñezko ABSOLVERE'tik datorrenez, "askatua" dala dirudi. Bañan, filosofiaren argitan, "askatua" itzak ez du ABSOLUTUM ongi adierazten. ABSOLUTUM, izan ere, bakarra da, eta ezin ditekete loturik egona izan, "askatua" izan dala esateko.

Bigarren zentzua askoz egokiagoa degu. "Bien absoluto" ON UTSA da. Ots, "naasi gabea". Eta, era berean, beste millaka esakuntza: ZUZEN UTSA (okerrik gabea), JAKINTSU UTSA (buru txit onekoa), INDAR UTSA (auleririk gabea) ...eta abar. Ortaz, "absoluto" adierazteko, UTS itzaz balia gaitzekela deritzait.

ALIENACION (Alienation) IGESA

"Alienacion" itza alemanez ENTEREMDUNG esan ci da; eta, erriko izkuntzaz, ALKARTASUN DESEGIÑA esan nai du. Adiskide ziranen arteko asarrea. Alde baneara anka egitea. Igesa.

"Alienacion", jabetasunaren legeen barruan, zerbaiten jabetasuna bati legez kendu eta beste bati ematea izango litzake. Jabetza aldatzea. Sendagillan iztegiari, berriz, "alienacion" burua galtzea da. Erotzea. Eta, zenbait filosofoen izkeran (Hegel, Marx, Sartre), "alienación" nolabaiteko IGESA da. Ikus ditzagun irizkiak.

Hegel jaunarentzat, gizonak asieran pentsa-modu xaloa zuan. Tolesik gabea. Egi-egitatzat artzen zituan mundua eta bere inguruko goraberak (gertakizunak). Bañan geroago, bere gogo barruari begiratuaz, zalantzetan asi zan, mundua eta gogo-barrena egiazko gauzak ote ziran. Eta, zalantza orren bultzak eraginda, IGESI egiten omendio gizonak bere inguruari. Eta IGESTE orrek (ala dio Hegel'ek) indar ematen nunbait gizon-izatearen aulari.

Marx iraultzallearen ustez, benetako IGESI egin bearra dagokio gizarte osoari. Gizon guztiak (dirudunak alde batean eta gabeak bestean) elkarri bizkar emanez bizi omen dira, elkarren arteko maitasunaren bearririk gabe. Maitasunak ez du Marx'erentzat zentzurik. Maitasunak giza-maillak berdindu eta bateratu egiten ditu; eta gizadia salbatuko ba'da (au da, bere buruaren jabe nagusi egingo

ba'da), gorrotozko iraultzaren bearrean arkitzen da. Giza-maillen arteko ezin-konponduak su eman bear dio gorroto orri, erabateko aldaketa egin dedin gizarte osoan. IGESIKAKO burruka gogor ortan dago (berak dionez) langilleen azken-garaitza. Eta Erljioari (maitasun zale dalako) "opio" (belar lo-arazle) deitzen dio.

Sartre jaunak, azkenik, ateo askoren buru izanik, guztiz illun ikusten du gizonaren nortasuna. Giza-bizitza barruz erdibiturik ornen dago. Ez omen du beragan gizonak bere izatearen oiñarririk arkitzen, eta alperrik ari ornen zaio zeruari deika, argitasun izpirik izan dezan. Beltz baño beltzago ipintzen du Sartre'k gizonen izatasuna. Dana gau biurtzen bait da, zentzumen onari IGES egin ezkeru.

ALTERIDAD (Alterité/Otherness) BESTETASUN

Gauzak, egoera batetik bestera igarotakoan, aldatu egin dirala esan oi degu. Aldaketa ortan ba-leike zer-izate berria sortzea, edota lengoa bera geratzea. Dana dala, egoerak berenez aldakorrek dira. Igarotzen errezak. Eta buruz ongi-ongi banatu ditezke.

Ortaz, egoera aietako bat (edozein) buruz aldebanatzen ba'degu, une baterako bederen, gañorantzeko egoera guztietatik bereziaz, bakarra dala esan genezake. Gañorantzekoak ez bezelakoa. BESTEA, aientzat. BESTETASUN ori dagokio, beraz, gauza aldakorren egoera bakoitzari.

Renouvier filosofo frantzitarren iritziz, BESTETASUNA da izakien arteko arremanan sorburua. Arremanak, ain zuzen ere, ez-berdintasunean oiñarritzen ornen dira. BESTETASUNEAN, alegia.

GU itzak (dio Madinier jaunak) NI eta EZ-NI besarkatzen ditu. NI eta BESTEAK. Guztiak (bakoitza bere izanean) errespetatuaz. Maitasunak itzala dio lagun-urkoari (BESTEARI), dio jaun onek berak, eta maitasunik ez danean, basakeria biurtzen da lege. Guztiak BERDIN, (guztiak NI) egin nai izatea, orixe da "diktadore" guztien ero-aldia.

AMBIVALENCIA (Ambivalence) ALDIN-BITASUN

Itz onek, bere erroz, zerbaitek bi zentzu ditula adierazten du. Bi esan nai. Bi balio. Bi aldin. Eta biak batera.

"Psicoanálisis" deritzaion iker-lanak erakusten digunez, izan ornen leizke gogo-barren berean elkarren aurkako bi griña. Maitasuna eta gorrotoa, adibidez, norbaiti buruz. Freud'ek dionez, alaxe gertatzen da zenbait buru-nastuen gaitzaldietan; kezka luze gogorak eta espa min latzak eramandakoan, batez ere. Baita seksu-indarren makal-aldi batzuetan ere. Esate baterako, aldin-bitasun ori (bi aldetarako joera ori) giza-barrengo estualdi latzak sortu dezaken gaitzaldi samin-garria da. Aldin-biko gaixoa, izan ere, "bai ta ez" arteko burruka bizian arkitzen da, atsedean gozoaren pozik gabe.

ANALOGON (ORDEKARI)

Ez da gauza erreza Sartre jaunaren pentsakeran sartzea; eta, "L'Imaginaire" liburuan darabilkian ANALOGON itza, kontuz neurtu bearrekoa da. Filosofo onen iritzian, gizon bakoitzaren konzientzia (giza barrena), berak oartzen duanaz baliatzen da, kanpoan dituan edota buru utsezko diran gauzak nabaitzeko. Eta, pentsamodu orri jarraikiaz, gizonaren barruari (konzientziari) "irudigille" deitzen dio; eta gauzaren ordezko barne-oartze orri ANALOGON edo ORDEKARI. Oariutakoa eta beronen irudia bi mundu dira Sartre'rentzat; eta azken au (gure konzientzi irudigilleak eratzen duana) utsaren utsa dala dio. Entzuten dedan "egiazko" eresia, adibidez, neronek irudiztatzen dedan eresiaren ANALOGON ornen da; eta buru utsezko irudien eusgarri.

ANARQUISMO (anarchisme/anarchism) LEGE-ETSAIGOA

Lege-etsaiek (anarkistak) Estadu, Lege ta Gobernu dan guztia mundutik erabat kendu bear dala diote; eta erriari bere gixa utzi, gogo duan bidea artzen, iñoren zuzendaritarik gabe. Beren ikurriña bezain beltza dute pentsakera ere. Mac Stirner (1806-1856) eta Pierre Joseph Proudon (1809-1865) izan dira iraul-eskola onen maisu famatuak.

ANTROPOLOGIA (antropologia/antrpology) GIZA-IZTIA

Emeretzi garren mendearen azken aldean sortu zan, GIZONAZ ari dan jakingai berri au. Euskeraz GIZA-IZTI deritzaio. Frantzitar QUATRE-FAGES DE BREAU jauna izan zan, arlo ontan geientsuenik nabarmendua (1810-1892). Gaur dan egunean jakingai au aurrerako pauso aundiak emana da, eta zenbait gai berri besarkatzen dñtu: giza-arrazak (endak), giza-jakite mañllak (kultura), giza-izkuntzak, eder-lanak eta abar.

ATOMISMO (atomisme/atomism) ATOM-ESKOLA

Griegozko "átomos" itzak ZATI-EZIÑA esan nai du; eta, antziñako fisikarien iritiz, "átomo" diralako oiek ezin-ausizko lengai gogorak ziran. Izadiko korpuzki guztien osagai txe-txeak.

Iritzi ontakoak izan ziran, ospatsuenen arieen, Demokrito eta Epikuro, bata 470'tik 360'ra eta bestea 341'tik 270'ra Jesukristoz aurretik bizituak. Atom-eskolak, gaur dan egunean, garrantzi oso aundia ariua du fisikarien artean. Atomoa ez da, denbora batean uste zan izagai bakuna eta barru-indarrik gabea. Atomo bakoitza barru-indarrez jositako mundu osoa dala esan diteke. Arritzeko moduko "ekuazioak" egin bear bait dira, atomoaren erraietan diran kemen-gaiak adierazteko. Atom-indarrari esker sortu dira, eta gelditu gabe sortzen, fisika arloko aurrerapen paregabeak. Guztion atsegiñerako geienak, bañan baita batzuk, atom-lergaiak bezela, guztion beldur eta ikara bizirako ere.

AUTONOMIA (autonomie/autonomy) ASKATASUN

"Autonomo" esaten zaio, bere buruaren jabe dan erriari; au da, berak bere buruari jarritako legeen bidez gobernatzen danean. Kant filosofoak, bere gogozko moraltasuna goretsi nairik, gizonak moralaren zaiepean bizi bear zuala zion, benetan azke eta loturarik gabeko izango ba'da. Zergatik? Morala osatzen duten legeak, norberak bere buruari ipiñiak diralako. Ortaz, Kant'en ustez, gizonak bere burua du nagusi, eta ortan dago gizonaren askatasuna.

Bañan lege morala, Santo Tomas Akinotarrak erakusten digunez (quaest. XCI, art. II), betitandik dan Jainko-legearen errañu da. Ez gizonak sortua. Gizonari bere izaerarekin batean itsatsia baizik. Ortaz, jatorrizko legea gordetzen duanak, ontasun uts dan Jaungoikoari men egiten dio. Askatasun berberaren iturriari. Eta zer zuzenagorik pentsa diteke, Jainko-erabakien partedun izatea baño?

Mundu zabaleko politikarien arte indarkeri gutxiago, eta elkarren errespeto oberik ba'lego, erri "autonomo" ugariago litzake noski gizadian. Bidegabekeri gutxiago lurrean, eta pozgarrizko buru-jabetasun ederrik pranko erridi zapalduetan.

HETERONOMIA (heteronomie/heteronomy) ASKATASUNIK EZA

Erri "heteronomo", kanpotik ezarritako legez gobernatzen dana dezu. Erri azpiratua. Menderatua. Lotua. Askatasunik gabea. Moralitasun-eza, ala berean, giza-

izate jatorraren ondamendia da. Ustelkeri eta erri-zapalkeri guztien sorburu posoitsua.

AXIOLOGIA (axiology/axiology) BALIO-IZTIA

Griegozko "axios" itzak baliodun esan nai du; eta "axiología" balio-jakintza da. Emen "balio" diogunean, "ajola" edo "garrantzi" adierazi nai degu.

Filosofi eskola onen sortzalea Wilhelm Windeband (1848-1915) izan zan; eta zabaltzale txit ezagunak onen ikasle Rickert (1863-1936), Tróltzsch (1865-1923) eta Bauch (1877-1942).

Oien iritzian, gizonak dituan gogapenak ez dira adimenaren bidez sortzen. Ez dute kanpoko gauzekin zer-ikusirik, ezta giza-zentzuen oarmenarekin ere. Gure gogapenak, misteriozko alkartasun batetik ornen datoz. Diran gauzak eta goi-eredu bikain baten arteko alkartasunetik. Eredu ori guztiz azke ta nagusi dala diote. Diran guztien gaiñekoa. "Balio" deitzen diote, eta zerbaitek (izaki, egite, gogapen, itz) eredu orrekin daukan antza, orixe da beraren balioa. Zenbatez ereduarenkin berdiñagoa izan, balio aundiagoa du. Bañan, eredu ori zer dan adieraztean, egundoko naspilla sortzen dute balio-zaleek. Egia billatzea, zerbait gogo biziaz egiazkotzat artzea ornen da. Guk gerok ala erabakitzea. Eta, naspil guztien ondorea agertzeko, egia gure naiaren frutu dala uste dute.

Gaurko egunean "axiologia" deitzen dira, balioei buruz egindako lan eta azterketa guztiak. Oregatik, jakintza berri oni BALIO-IZTI izena dagokiola iruditzen zait.

BIOZFERA (biosphère/biosfere) BIZI-MAILLA

Teilhard de Chardin, Jesusen Lagundiko seme argia, gizaldi ontako filosoforik ospatsuenetakoa degu. Berak dionez, iru iza-mail berezi ditezke, mundu eder onen aurrean. Bata, gaidun izaki ez-bizien maila, GEOSFERA. Bigarrena, gogai edo pentsakizunean maila, NOOSFERA. Eta irugarrena, bizidun guztien maila, BIOSFERA edo BIZI-MAILLA. Lau bizidun mota sartzen dira mail ontan: 1) Landare aundi ta txiki guztien mundua, LANDAREDIA; 2) Gizona ez beste animaliak. ABEREDIA abere, pizti, egazti, arrai, arrastakari eta gañerantzeko guztiak; 3) Giza-enda edo arrazak, GIZADIA; 4) Menderik mende izaki bizidunek lurberan utzitako aztarrenak: ezur ondakiñak, itxas arkaitzak, ikatz basoak eta, esate baterako, biziarekin zer-ikusirik izan duen izaki guztiak.

CATARSIS (catharsis) IKUZKETA

Griegozko "catarsis" itzak berez garbikete edo IKUZKETA esan nai du; eta asko erabiltzen da, zenbait buru-gaitzen sendabidea adierazteko. Dala "hipnosis" edo loizunezko egoeraz, dala kimika-gaien bidez gaixoari lo-arazi, eta noizbaiten izandako samiñaldiak zeatz-meatz gogorazirik, lasaitasun aundia eta sendabidea eman oi ornen zaio. Sendabide oni "catarsis" edo IKUZKETA deritzaio. Barren garbikuntza. Gogo-ikuzketa.

CATEGORIAS (categories/categories) MAILLAK

Aristoteles'ek bere amar "kategori" edo maillak erabiltzen zituan, mundu ontako izakien aldarreak sailkatzeko: zer-izate, zenbat, nolako, arremen, ekite, erame-te, nun, noiz, egoera, oitura.

Kant'ek berriz, "categoria" izenaren bidez beste zerbait agertu nai digu. Guk alde zurretik ("a priori") egiten ditugun gogaiak omen dira. Gogai utsak. Gar-

biak. Eta, sortu ere, gogai oien bidez sortzen ornen ditugu gure iritzi edo erabakiak.

Ala berean, erri-izkeraz "categoria" edo MAILLA diogunean, gogapenak eta gertakizunak taldeka txukun biltzeko era agertu nai degu.

CAUSA (cause/cause) SORBURU

Erderazko "causa" mota askotakoa izan leike; eta euskerak mota bakoitzari izen berezia ipintzen dio. Ikus ditzagun zenbait adibide.

1) Causa EFICIENTE / EGILLE, ERAGILLE.— "No hay efecto sin causa", "egitza EGILLEA du leen". "¿Cual habrá sido su causa?", "Zerk ERAGIN ote dio?"

2) Causa OCASIONAL / BIDE.— "Por causa de Ud.", "Zu zerala BIDE", "Con ocasión de sus bodas de plata", "Aren zillar eztaiak zirala-ta (zirala BIDE)".

3) Causa FINAL / ELBURU.— "Esta es la finalidad de nuestros esfuerzos", "ELBURU ontara dijoaz gure alegitza" (elburu, jomuga, xede...).

4) Causa ORIGEN / SORBURU.— "A esto se deben nuestras penas", "Ona emen gure atsekabeen SORBURUA" (Emendik datoz...) (sorburu, sorbide, jatorri, erro).

5) Causa EJEMPLAR / EREDU.— "Fue modelo de trabajador honrado", "Langille zintzoen EREDU izan zan".

6) Causa MOTIVO / ZERGATIK.— "¿Por qué motivo lo habrán hecho?", "ZERGATIK (zer dala-ta) egin ote dute?", "Esta fue la causa primordial de su venida", "AUXEGATIK batez ere etorri zan".

7) Causa PRIMERA.— "Dios es la causa primera de todos los seres", "Jainkoa da izaki guztien LEN-EGILLEA".

CIBERNETICA (cybernétique / cybernetics) MAKIN -GIDARITZA

Griegozko "KYBERNETES" itzak zuzentzalle edo GIDARI esan nai du. Itxasontzietan iru gizon ari oi dira gutzienez barkua eramaten. Buru-kapitana agintzen, aurreneko serbitzaria aginduak zabaltzen, eta bigarrena (Iemaria) aginduak betetzen. Gaur makinak bi serbitzarien egitekoa burutzen du, elektro-indarrari esker. Eta, gizonaren esanera, makina bera da agindu-emalle eta agindu-betetzalle. Ez da esatekoa norañoko aldaketa ekarri duan MAKIN-GIDARTZAK gaurko teknika-bideen mundura. Zeñek esan bear zuan, orain urte batzuk, makina utsik (gizonik gabe) illargiraño joan, ango arkaitz puskak artu, eta atzera erten zan toki berera etorteko gauza izan zitekenik? Ori ta beste millaka aurrerapen arrigarri ari dira edatzen, jakintsuen electro-lan ugariei esker.

MAKIN-GIDARITZA (makin utsezko gidaritza) elektro-iztiaren frutu bat da. Ona emen elektro-jakintza beraren beste zenbait frutu: soñudun zinema, telebista, "satelite" edo izar-mutilla, urrun-zaiketa edo kontrola, "ciclotron" edo atom-puskagalluak, txikirako elektro-begia, ekis elektro-izpiak, erradar, argi-neurgailua ("fotómetro"), "tansistor" (irradi-gailua), magneto-soñua, elektro-kontagailuak, "célula foto electrica" (elektro-argi begia) eta beste ezin konta ala tresna berri.

CIENTISMO (SCIENTISME/SCIENTISM) JAKINTZA-ESKOLA

Gizonak jakingai guztiak ezagutu nai lituzke, bere adimen argiaren bidez; bañan gai ugariak agertzen zaizkio, guztiak sakondu aal izateko. Iru jakingai talde aundi orain gogoratuko: Teoloji-mailla edo Jainko-iztia, metafisica-mailla edo adimen utsezko pentsakizunak, eta saio-jakintzak (oarketaz atereak).

Teoloji-lanetan jarduteko, au da, Jainkoak agertu dizkigun izadiz gaitzako egiak alik ondoen sakontzeko, goi-sinismena eta giza-adimena erabilli bear ditugu. Bi argi-iturri oien bidez egitza dira, gizaldietan zear, ainbeste teoloji-zale jakintsuen

idaz-lan jatorrak. Adimen-utsezko gaietarako aski da, berez, giza-arrazoi soillaren ekintza; bañan, ontan ere, goi-sinismenak ez dio gizonari laguntza on besterik egiten. Eta azkenik, saio-jakintzetan jarduteko, alegin guztiz egindako oarketaz baliatzen gera. Zer nun eta noiz gertatzen dan oartu, "fenomenon" esan oi zaion agertzen dan aldaratearen berri jaso, eta, adimena lagun dalarik, egiazko jakintza-oiñarriak antola genezazke.

Orrela jaio, azi ta indartu dira izadi-iztia, giza-iztia, bizi-iztia, fisika, kimika, mekanika eta beste saio-izti asko (jakintza "experimental" asko). Esan bearrik ote dago, azter-lan ontarako giza-adimena bearrik bearrena danik, eta teolojiaren aldeko argitasunak (naiz eta beste maillekoa izan) ezin dezakenik kalterik ekarri?

Orra, ordea, Augusto Comte (1798-1857) frantzitar filosofoak, teolojiari eta metafisikari muzin egiñik, saio-jakintzak bakarrik onartzen zituan; eta oarketaz ikus-ikasitako ezagutzak bakarrik "jakintza" deitu zitezkeela zion. Onela sortu zan "positivismo" edo "saio-jakintza eskola". Bañan zer gerta? Comte jaunaren jarraitzaileak, beren maisuaren iritziak ankaz-gora irauliaz, filosofiaren beraren aurka ekin zuten, eta "cientismo" deritzan teori argala ekarri. Eskola onentzat, beraz, filosofiak ez du jakintzarekin zer ikusirik; eta, orrexegatik, "cientismo" dalakoari, "jakintza eskola" baño, "filosofi-eza" edo "filosofi guztien aurkako eskola" deitu bear litzaiokeela dirudi.

COGITO

Latiñezko "cogito" itzak "pentsatzen det" esan nai du; eta, frantzitar Renato Descartes jaunaren iritiz (1596-1650), barne-gogapen orixe izan zan bere filosofi guztiaren len-oiñarria. "Cogito ergo sum" esan oi zuan. "Ni pentsale? Bañan señalet". Oldozpen orian ikusten zuan bere ziur-izate guztien iturria; eta, txit barrengo gogoeta ortatik asita, Jaungoikorik ba-dala eta munduko izakiak egitan dirala aitortzen zuan. Filosofi gaietan ezezik, matematika arloan ere jakintsu eta maisu trebea izan zan. Berea du, beste idaz-lan askoren artean, "Geometria Analítica" ("Azter-Neurriztia") deritzan liburu famatua. Descartes'en pentsakerak indar aundia izan zuan XVII garren mendean, eta oraindik ere ba-du jarraitzailelerik pranko.

CONNOTACION (connotation) ERANSGARRI

Akino'tar Tomas Santuaren eskolastikan asko erabiltzen zan "connotatio" itz au; eta, berez, egokitasun edo egoki datorren gauza esan nai du. Zerbaiti ongi dator kiona, ots, berari ERANTSI genezaiokena. Eransgarria. Gaurko zenbait filosofuek itz ori bera darabilkite, gauzaren zer-izateari dagokion zerbait adierazteko. Orrela, gizonaren "connotatio" ornen da gizon-izaerari dagokion barren-mamia: animala eta adimendun izatea.

CONTINGENCIA (contingence/contingency) BEARREZKO EZ DANA

Latiñezko "contingens" bearrezko ez danari esan oi zaio; bañan "bearrezko" itzak bi zentzu izan dezazke. Bata, erri-izkeraz darabilkiguna: premiazko, utzi-eziñezko. Bestea, filosofi eta teoloji gaietan erabillia: izamendun, berez izatedun. Bigarren zentzu oni begiratuko orain. Ikusmena, entzumena, adimena eta abar ikus-aal izate eta adi-aal izate diran bezela, IZAMENA izan-aal izate dezu. IZAMEN euskal-itza guztiz egokia dala derizkiot, izan-aal izatea adierazteko. Eta, ortaz, berez danari (berezko izan-aal izate duanari) IZAMENDUN deitu genezaioke. Ona emen, labur-labur, IZATEARI buruzko euskal itz egoki batzuk:

- 1) IZAGAI, izateko gai, izan ditekena.
- 2) IZAKIZUN, izango dana.

- 3) IZATEDUN, dan gauza, ez ametsezkoa.
- 4) IZAMEN, izateko aalmen, izan-aal izate.
- 5) IZAMENDUN, berez dana, naitanaiez dana, Jainkoa.
- 6) EZ-IZAMENDUN, izan eta ez-izan leikena, "contingens".

CORTE EPISTEMOLOGICO (Coupure Epistemologique/Epistemological Break) TEORI-EBAKETA

Ari zaizu filosofoa bere pentsakera adierazten, ikusten dituzu aren iritzien oiñarriak, antz-ematen diozu nundik nora dijoan eta nolako eskola agertzen duan; eta bat-batean, len esandakoak ukatuz, bide berriak zabaltzen dizkio bere pentsakerari, eskolako oiñarriak aldatuaz. Une ortan, irizpide berria ariu dan unean, TEORI EBAKETA nabari da, eta ez bein bakarrik, Marx iraultzallearen liburuetan. Izan ere, ordurarte "materialismo histórico" erakusten aritu ondoren, germanitarren burubidetara jotzen du, bere aurreko Hegel eta Feuerbach maisuei bizkar emanez.

COSMOLOGIA (cosmologie/cosmology) IZADI-IZTIA

Beti izan du gizonak, bera bizi daneko mundua ezagutzeko gogoia eta artaz teori egokia antolatzeko irrika. Zer da mundua? Zer izadi osoa? Galdera oiei erantzunik sortu zan IZADI-IZTI edo "cosmoloji" deritzan filosofi zatia. Jakiña, saio-jakintzak abantaren aurreratu, eta fisikaren aldetiko teori berriak indartu dira-nean, antziñako "cosmoloji" zaarra ere gaurkotzen ari zaigu, gaurko jakintza mailletara igotzen. irakurizetkoa da, gai oni buruz, Jacques Merleau Ponty jaunak idatzitako "Cosmologie du XXe siècle" liburua. Gauzak "sub-stare" edo geldi egonean baño, beti sortzen, beti berritzen, beti mugitzen ari dirala dio fisikak. Einstein beraren "relativismo" eskolak ere zer ikusi aundia izan du gaurko IZADI-IZTI berriaren aldaketan.

CULTURALISMO (culturalisme/culturalism) KULTUR-ESKOLA

Anglo-sajondarren arteko antropoloji-zaleak, "psico-analisis" deritzaion gogo-ikerketaz baliatzen dira askotan, munduko enda-arraza bakoizaren kultur-mailla erabakitzeke. KULTUR-ESKOLA, ortaz, gogo-ikerketeta eta enda-iztia bateratzen dituan filosofi joera dezu. Freud'etik asita, Malinowski (bere aurreneko lanetan), Ruth Benedict, Kardiner ea Margaret Mead izan dira eskola ontako maisu-buru ezagunak. Bi jakintza auek (enda-iztia eta gogo-ikerketeta) alde banatara ibilli izan dira iya beti Frantzian; bañan Roheim jaunak egindako sakontze-lanen ondoren, garbi azaltzen da bien arteko batasunaren bearra. Ikus PSYCHO-ANALYSIS AND ANTROPOLOGY (New York 1950).

DESREALIZACION (DEREALISATION/DEREALISATION) EZEREZTUTZE

"Psiquiatria" deritzaion sendagintza-arloan adierazten danez, buru-nastutako gaixo batzuek gauzak erdi-lañotan eta benetako izatasunik gabe ikusten dituzte, ingurua uts biurtu zaielakoan. Zoro-gaixotasun oni UTS-BIURTZE edo EZEREZTUTZE deitzen diogu.

DETERMINISMO (Déterminisme/Determinism) ALABEARRA

Filosofi eskola onek dionez, gizonaren naimenak era jakiñean beti ari bearra dauka. Beti kanpotiko indarrek eragiñik eta egitako azkatasunik gabe. Bañan, giza-askatasuna ukatzeko arrazoiak jartzerakoan, alabear-zaleak ez dira iritzi

batera etortzen. Batzuek, metafisikaren kontrako gauza dala diote giza-askatasuna; beste batzuek, askatasun ori eta Jaungoikoaren borondate alda-eziña ezin elkartu ditezkeela; beste batzuek, giza-adimenaren lege jakiñak eta askatasuna ez dirala ongi konpontzen; eta beste batzuek, azkenik, giza-naimena izadiko legeen mendean dagola diote, eta lege oiek naitanaiez bete bear dirala. Esate baterako, alabear-zaleen ustez, giza-naimena bere adimenaren morroi utsa da, eta jabetasunik gabe jarraitu bear du arek agintzen dion bidetik. Eskola onek zearo zapaltzen du gizonaren nortasuna.

DEVENIR (Devenir/Becoming)ALDA-LEGEA

"Devenir" itza latiñezko DEVENIRE'tik dator, eta berez ETORRI edo ITZULI esan nai du. Gauzak ixuri, joan, linburtu egiten dirala diogu, beren egonean irauterik ez dutelako. Bañan "devenire" oni zer garrantzi ematen zaion, edota zenbaterañoko aldaketa dakarkian aitortzean, ortxen dago filosofoen arteko eztabaidarik biziena. Auzia ez da atzo berian asia. Heraclito, filosofo grezitarra, 540-480 urtetan bizitu zan, Jesukristoz aurretik; eta, Izadiari buruzko bere idazkian (idazki onen pusketak bakarrik gorde dira) mundua mugimentu toki eta aldaketa leku dala esaten du. Txit ezaguna da pentsalari onen esakuntza: "PANTA REI", "dana dijoa", "dana ixurtzen", "dana aldatzen". Aristoteles'en filosofian, berriz, IZATEA guztiz iraunkorra dala aitortzen da. Nabaitzen ditugun aldaketak "accidens" bakarrik dirala. Ots, ez dutela izakiaren mamirik ikutzen. Axal-axaleko goraberak dirala. Descartes'ek berak, XVII garren mendean, gizadiaren bizikera asko aldatuko dala dio, eten gabe datozen aurrerapenai esker; bañan aldakuntza orrek ez duala gizonaren espiriturik urratuko. Giza-adimenak gero ta obeto ta errezago ezagutuko duala noski egia, bañan bere barrengo iza-aldaketarik gabe. Eta ori, gizonaren izate sakona beti irauteko egiña dalako.

"Devenir" dalakoaren gai ontan, oso beste era batez mintzatzen da Nietzsche jauna. Onen ustez, ezer diran gauza guztiak barruan dute arra. Beera bearra. Akitu bearra. Utsera bearra. IZAN eta EZ-IZAN, biak elkarren leian arkitzen dira izaki bakoitzean. Eta burruka ortatik omen dator, aularen eroriarekin, indartsuaren garaitza. Ustel dan guztiaren erioa eta bikain guztien bizia. Izadia, beraz, bein ta berriz beren artean burrukatzen diran IZAN eta EZ-IZAN indarren kondaira da. Azkenik gabeko itzultzea. Nietzsche'ren pentsakeran, batetik ezeren federik ez dutenen illuntasun samiña agertzen da, eta bestetik neurririk gabeko arrokeria. Zer tankerakoa da, izan ere, berak goستن duan gizona, berak itxaro duan "super horno" (gain mailleko gizona)? Guztietatik aparta eta oraindño izan diranak ez bezelakoa: ez maitalari, bai zapaltzalle; ez kupibera, bai indartsu purrukatua; ez biotz samurreko, bai serbitze guztien kontrakoa; ez Jainko gurtzalle eta bai bere burua Jainko orde z goraldua. Arrokeri utsaren frutua.

DIACRONIA (Diechoronie/Diachronism)

"Diacronia" itza griego zko "dira" eta "cronos" itzetatik dator. "Cronos" ALDI edo denbora da eta "dia" aurre-izkiak zentzu auek izan dezazke: batzutan ALDEBANATZE, bestetan ZEAR (mendi zear, aldi-zear), bestetan ARTEAN (gizonen artean, atsekabe arean), eta bestetan -KIN (nagusiarekin, langilleekin). Emen, filosofi gai auetan, ALDI-ZEAR (aldiz aldi, aldirik aldi) esan nai du. Asko erabiltzen da izkuntzak ALDI-ZEAR edo denboraren denboraz nola aldatzen diran adierazteko. Era orian egindako izkuntza azterketari "estudio diacrónico" esan oi zaio. "Diacrónico" itzaren kontrakoa SINCRONICO izango litzake; eta ala deitzen zaio BATERA (une berean) egiten dan gauzari.

DIALECTICA (Dialectique/Dialectics) ARRAZOIKETA

"Dialectica" Platon'entzat "elkar-izketa" zala esan leike. Berak esaten zuanez, eztabaida egokien bidez agertzen da egiaren argitasuna; eta gizona orrela, zentzuen maillatik adimenaren goi-maillatara igotzen, benetako filosofi trinkoa iristeraño. Erdi-Aroan "dialectica" itzaz arrazoiketa edo "logica" bakarrik aipatzen zan. Giza-pentsakeraren bideak zuzen eta zeatz godetzea, alegia, orlan yayotasunik garbiena erakutsiaz. Kant'ek ere, XIX garren mendean, "dialectica"-ri "logica" deitzen dio. Arrazoiketa. Bañan beste esan-nai bat emanaz. Ea ori bera gertatzen zaie geroztiko filosofo famatuena (Hegel, Marx, Bachelard, Sartre eta abar). Bakoitzak bere erara ulertzen du "dialectica", egundañoko naspilla sortzen dutelarik. Bañan, alaz guztiz ere, eta sasi jakintsuen naspillak naspil, "arrazoiketak" (dialectikak) bere balio galanta gordetzen du, zentzumenik duten guztien artean. Zer, izan ere, ederragorik, elkar-izketa ondo eramaten ikasi, iñoren arrazoiak onartu, eta, dala gizarteko goraberatan, dala politika arazo estuetan buruz eta lojika garbiz jardutea baño?

DINAMISMO (Dinamisme/Dinamism) KEMENA

"Dinamismo" ta "mecanismo" elkarren kontrako itzak dira filosofi gaietan. Renato Descartes'ek "makinari" aundi bat bezela ikusten zuan mundua, eta makinari ortako aldaketak, fisikaren aldetik, igidura edo mugimentu uts zerala zerizkion. Korputz batak besteari eragindako bultzada. Leibniz'ek, berriz, Newton'en pentsakerari jarraikiaz, "izadiko erakar indarra" ("gravitacion universal") aitortzen du; eta, fisika berriaren erakutsiz, munduko ikuspen berezia agertzen. Izadia, agirizko mugimentuz ezezik, barne-indarrez ere josia dago. Descartes'en makinari soillaren ordez, Leibniz'ek kemen biziaren mundu arrigarria erakusten. Bi liburu ditugu gai ontan noski aipagarrienak: Newton'en "Los principios matemáticos de la filosofía natural", 1687'en argitaratua, eta Leibniz'en "Nuevo sistema de la naturaleza y de la comunicación de las substancias", 1984'an aterea.

DISCURSIVO (Discursif/Discursive) ADIMENEZKO

"Discurso" itzak filosofian ez du "itzaldi" esan nai, adimenaren lanaz sortzen dan gogoeta baizik. Pentsamentu eldua, esango genduke. Oldozpen astiro landua. Beste aldera, berriz, "intuición" deritzana daukagu. Bat-batezko burutapen bizkorra. Adimenaren neke gutxiz eta ikusi utsez (begi ziztan) ermetako ezagutza. Oni BEGIRATUZKO ezagutza (conocimiento intuitivo) deituko; eta aurrekoari ADIMENEZKO ezagutza (conocimiento discursivo).

DUALISMO (Dualisme/Dualism) BIGATASUN ESKOLA

BIGATASUN ESKOLA deitzen diogu, elkarren kontrako bi alderdi azaltzen dituan filosofi eskolari. Alderdi oiek berenez desberdiñak eta era banetan ipiñiak dira, txuria eta beltza, eguna ta gaua bezela. (Sokrates'en eskolak garbi agertzen du bikotasun ori. Batetik anima (espiritua) eta bestetik korputza (gaia) noiznai aipatzen bait ditu. Bitasun ori ez da iñoiz zokoratua izan, sartaldeko pentsalari geienen artean. Descartes'ek ere sendo eusten dio bigatasunari; eta, gizonaz mintzatzen danean, onen bi osagaiak (anima eta korputza) batu egin dirala dio, zer-izate berri bat sortzen dalarik. Orretaz gaiñera, eta bigatasunetik erten gabe, ezin konta ala gogapen burura genezazke, sail ortan sartu ditezkenak: ona eta txarra, zuzena eta okerra, egia eta gezurra, aundia eta txikia, goia eta beea... eta abar, iya azkenik gabe.


ECONOMIA POLITICA, POLITICA ECONOMICA / ERRI OGASUNKETA, EKONOMI ERA

"Economía Política" erriaren alde erabiltzen dan ogasunketa da. Erriaren onerako zaintzen diran ondasunak. Esate baterako, erriko ondasunak nola ondoenik sortu, zabaldu, banatu eta sal-erosi zitezken agertzen digun jakintza.

"Política Económica", berriz, ekonomia zuzentzeko modua da.

Luis Egia

Jarraitzeko continuara





"SOIÑ" ITZAREN ADIERAZPENAZ

Orain bost urie inguru' Euskaltzaindiaren batzar batean eztabaida sortu zan. Alegia' *soiñ* itzak gorputza adirazten duan ala ez. Urrengo batzarrerako bakoi-tzak bere iritzia eta iritzi orren aldeko arrazoiak idatzirik eramateko esan ziguden. Ortarako-Lafitte'ren iztegitik artutako adirazpen eta itz batzu eraman nituan. Azkue'renetik enuan ezer artu, bai bainekian an Azkue'ren izena gutxietsi egiten dudena orrela komeni zaienean. Aurrera baiño leen' esan dezadan zenbait bazterretan *soiñ* itzak sorbalda eta beste batzuetan gorputza estaltzeko arropa adirazten duanik eztuala iñork ere ukatu; batzuk ukatzen zudena itz orrek *gorputz* adirazten duanekoa zan. Orregatik *soiñ* = gorputz berdintasunaren aldeko arrazoiak bakarrik aipatzen nituan. Ona beraz Lhande'renetik artuak: SOIN 5.° la surface du corps. Athorra soinean izan = avoir la chemise sur soi, en être vêtu. *Soinadarr* C. extrémité du corps (bras, jambes); —*alde* partie du corps; —*arte* (Hb) poitrail; —*atu* épauler qq.un, l'assister, l'aider. SYN. lagundu; —*buru* 1.° (H) haut, extrémité de l'épaule. 2.° C (H) dos; 3.° *soin-buru-giltz* clavicule; 4.° *soin-buru-ezurr* ceinture scapulaire; —*dun* (Duv) corporal, qui a un corps; —*egi* N(A) —*hegi* L, *soiñegi* N(A) épaule; —*eko* vêtement; —*enborr* L tronc humain; —*eratu*: 3.° mettre, se mettre un vêtement. SYN. jauntzi; —*erro* C les membres inférieurs; —*ez soin* L(A) se côtoyant, s'appuyant l'un contre l'autre; —*gain* 1.° (H) dessus de l'épaule. Soingainetan darama, il le porte sur les épaules; 3.° surtout, vêtement; —*gaineko* 1.° L N(A) manteau; 2.° couverture; —*kide* (H) 1.° de même taille; 2.° par ext. compagnon, camarade; —*kidetasun*, camaraderie. SOIÑ V. *soin* et composés!

Erkatzeko, eta gero agertuko zaigulako' beste au ere emen jarriko dut: OIN C. 8.° chaussure. SYN. oineko, oinetako.

Beste euskaltzain batzuen ondoren' Satrustegi jaunak Urdian'go andre zaar baten erantzuna aipatu zigan: ¿Soiña zer da? —Bizkarrean erabiltzen dan sorta edo zama (Itzez-itz esaterik eztut, baiña orrelako zerbait zana gogoan dut)—. ¿Eta giza-soiña zer da? —Giza-soiña bada, eta emakume-soiña ere bai.

Arrazoi oiek eta beste euskaltzain-mordoska batenak ere alperrik izan ziran: maiekoek etziguden arrazoirik eman. Aita Villasante'k "Ori erabakia dago: soin = hombro da" esan zigan. Oraindik eztut jakiñ ori nortzuk, non eta noiz erabaki zuden.

Ataundar bati "soiñ" itzak zer esan nai zuan galdetu nionean' Ataun'en galdetuko zuala esan zidan. Galdetu zuanean' "gizonaren gorputza" erantzun omen zioden; gaiñera "arropa soiñean jantzi" eta "erropa soiñetik erantzi" esaten zala. Zeatzago jakiteko' Barandiaran'dar Jose Migel apaiz jaunari idatzi nion, eta aren erantzuna garbia izan zan. Ataundar bati entzundako ipui batean "soiñ ederreko emakumea" aipatzen zala, eta "soiñ" gorputza ezpaldin bada' berak, Barandia-

ran jaunak' euskeraz eztakiala, eta orrenbeste euskera dakiden euskaltzaiñen batzarretara ez joatea ongi egiten zuala. Baiña orrentzat ere erantzun bat asmatu zuden: "Ataun'go lokalismoa". (Eta "lokalismo" ¿nongo lokalismoa ote da? Agian Madril'koa...).

Gero Aita Villasante'k agertarazitako "Gero" liburuan oneko auek arkitu nituan: (Ax. 270) "Amictus corporis et risus dentium... (Eccli 9) *Soiñeko arropetan*, irrián eta ibiltzean... En los vestidos, en la risa.. "Jesus Sirach'en aipamena oker dago: Eccli. 19, 27 da; agerialdi batzuetan 19, 30.

"Hola, adiskidea, orai zuk *soiñean darabiltzatzen arropa horiek*... Hola, amigo, esos *vestidos que tú llevas ahora en el cuerpo*... Nahi duzu jakin, *bere soiñeko* arropaz prezatzen eta loriatzen dena nola den? ¿Quieres saber a quién se parece el que se precia y se complace en los vestidos de *su* cuerpo? Eztu deus balio usain onez betherik ibiltzeak, eta are gutiago berari dagokion baiño *soiñeko* arropa ederragoak erabiltzeak". "A nada conduce el andar despidiendo buen olor, y menos aún el vestir traje superior al que corresponde. ...eta beztidura hek *soiñean dituen*... cuando se llevan encima tales vestidos..." (Gaztelanizko itzulpenak Aita Villasante'renak dira).

Axularr'en zati oiek bidali nizkionean' Mitxelena jaunak au erantzun zidan: "Soin-ekikoaz, haatik, ez naiz osoro zure írtzikoa. Eskerrik asko, aurrenik, eskaintzen didazun Axular-en pasarte horregatik, ez bainuen jaso. Ulertu, ordea, nik bestera ulertzen dut.

"Ez dut uste inork uka dezakeenik, *soineko arropak*, *soinean darama* eta horien gisakoen jatoriasuna. Ez zait iruditzen, ordea, hortik zuk, dirudienez, ateratzen duzun ondorioa atera daitekeenik, hots, *soin gorputz-en* zentzukidea denik eta are gutiago izan denik.

"Neretzat, *soin-en* balioa Errongari-n, Zaraitzun eta beste nonbaitetan entzun —edo aditu-dudana da: `hombro' edo. *Arropa eta soinekoa* soinean eraman ohi zuten gure arbasoek, *oinetakoak* oinean zeramatzen legez. Petit Robert delako hiztegiak, A. Franceren testu hau dakar, s.u. *endosser* (dos-etik aterea noski): J'avais chaussé *mes* pantoufles et *endossé ma* robe de chambre.

"Hau, ordea, ez da iritzi bat baizik..."

"P. S. Bestalde, zu eta ni bezalako euskaldunek ez dut uste sekula esango genukeenik ez *gorputzeko* arropak, ez gorputzean darama (atorra, etc.)"

Mitxelena jaunari nere eskerrik onenak zor dizkiot, bai erantzun orregatik, eta bai "idatziz esan" dizkidanak agertzeko baimenagatik ere. Karta ortan esaten dituanak geroxeago argituko dira. Lenengo esan dezadan iru urte eta geiagoan neroni eta nere adiskide batzu Gipuzkoa'n, Bizkaia'n eta Naparroa'n *soiña* nola erabiltzen dan galdez aritu garala, eta *soiñean ditudan zapatak* (los zapatos que tengo puestos) iru euskalki oietan txit maiz erabiltzen dan esaera dala. Baiña zapatak oiñetan erabiltzen dira, ez sorbaldetan. Norbaitek beste au erantzun zidan: "Soiñean `llevar a cuestras' da". Baiña Real Academia'ren iztegiak onako au dio: *Cuesta*... ant. *costilla*. U. aún en el m. adv. a *cuestras*. a *cuestras* sobre los hombros o las espaldas. *Zapatak soiñean ditut* iñola ere "llevo los zapatos sobre los hombros o las espaldas" esanez ezin itzul diteke. Oraingoz Axularr utzirik', euskerazko beste esate batzu aipatuko ditut.

Azkue, Dic. V. Esp. Fr.: SOIÑ (c) cuerpo, hombro. Soiñeko gazta (B N-s) chichón lit.: queso del cuerpo. 2.º (AN-irun-ond, Bc, G-etx, L) vestidura. Soiña ta oiñaren alde lan egin du (G-etx) ha trabajado a trueque del vestido y del calzado. Urtean amaisekoa ta soiña ta oiña euki eroezan saritzat lenagoko otseñak (B,...) las criadas de otros tiempos tenían al año como sueldo una onza de oro y el vestido y el calzado. 3.º (BN-ist, R) justillo (prenda de vestir). 4.º (R) chaleco de hombre. 5.º (AN, BN, L, S) parte media del cerdo. 6.º (B-oñ-tx) tronco de un árbol, parte gruesa de una rama. Soiñik eztauka egur onek ondo landuteko. *Soinburu* (AN-b-elk, B-zig, BN-s,... L, R-uzt, S) espalda [G-gab ere bail. Soinegi

(BN-aezk) *soiñegi* (B N-ald-s) hombro. *Soingain* 1.º (AN, BNc, Lc, R) hombro. Tori egurra soingainera (AN-b) toma la leña al hombro. *Soiñez-soin* 1.º (R-uzt) trasladar cosas entre varios, entregándoseles unos a otros, p. ej. tejas, ladrillos. 2.º (L) tocándose, apoyándose uno en otro como los bueyes uncidos. *Sointako* (B N-s) camisa en general, lo mismo la de hombre atorra (B N-s) que la de mujer, *mantar* (B N-s).

Mantar-soin (R-uzt) pieza superior, de cintura arriba, de las dos de que se componía la camisa de mujer.

Maskelu 2.º (B-mu-oñ) torpe, sin destreza. Maskelutzar ori, ¿atzo edo baten be ausi eta gaur be bai! Beste etxe askotan soiña ta oiña darabillez guk katillu ta plateretan eralten dogun diruen diruaz... costean el vestido y el calzado...

Larrazketa, Le basque de la Basse-Soule orientale: SUN 1.º épaule; 2.º la surface du corps: athora suñin ezari, mettre la chemise sur soi.

Barandiaran, leen aipatutako "soiñ ederreko emakumea"z gaiñ: Egun batez praube bat apezaren etxea jin zen, eta apezak eman ziozan bere pantaluak, soñetik helketa (S-altzai). Un día un pobre fue a casa del cura, y el cura le dio sus pantalones, quitándolos de su cuerpo.

Gaztañaga'I: Zuk ere zoin-bete leku bearko dezu beintzat [automobilean eseritzeko] Aizarna'ko Ezkurra baserriko Imaz'tar Josefa'ri entzuna; 70 urte eta geiagokoa, 1974.

Satrustegi'k: Arruatzu'n esaten diranak: miise, miisiak; arropa zuriak; oeko arropak; jantziak; soinean amar gona (Ekaitza, 24 a).

RIEB 9, 159 a: VII Urre gorriz du bizarra / ta zillarrezko *sorbalda*. IX Pazko goizian jantziko ditu / bere *soñean* sei gona.

Etxebarría, Lexicón del euskera dialectal de Eibar: SOÑA. Cuerpo, sinón. korputza. Soñak bere garbitasun eta arduria biardau. SOÑIAN ARTU. Tomar en brazos, levantar al alda. Soñian artizu umiori, nekatuta dator da. UGARRA. Herrumbre, roña del cuerpo. Iñoiz ez zanetik igerixan, ugarra ez jakon falta soñian. Como no se bañaba nunca no le faltaba roña en el cuerpo. SOÑIAN ERABILLI. Traer encima, vestir. Soñian darabill egunero, daukan jantzirik onena. KORPUTZA. Cuerpo. En sentido filosófico: materia, lo opuesto a espíritu. Se dice también del cadáver: Korputzak, lurperatzerakuan, kare bizixakin jarri zittuen. KORPUTZ BIDEA. El camino rural por donde se lleva a los muertos al pórriico de la iglesia, para el entierro. Korputz-bidia eta baita eliz-bidia esaten jako, korputzak Eliz-atarira jatxitzeko izentautako bidia.

Azkue, Canc. Vasco. 186 (Oskotz, Imotz, AN): Oraiko mutil zarrek / duten fantasie / soinean gerrikoa / bestek erosie. (Au San Martin jaunak gogorarazi zigun Aresti zanak "gerrikoa ezta soinean erabiltzen, gerrikoa gerrian erabiltzen da" esan zigunean).

"Mendaro Txirristaka", 217 a: alkandora zikiña / jaiko eta asteko, / es dezu la besterik soiñian jazteko. 248 a: zapata zarrak, koipez betia / soiñian trintxera. 290 a: Galtza zarrak soiñian, / ariña poltsa. 300 a: Txanbra Paris'en egiña / soiñian sedazko piña. 314 a: soiñian alkandora / zarra ta zikiña. 93 a: Berialaxe egin zioten / amoriva alkarri, / gajuak badu bere soiñian / makiñatxo bat lokarri. ("Gajua" Gipuzkoa'n asko esaten da, baiña beti emakumeren bati buruz).

Aire'tar Xalbador: Pentsa zazute alargundu bat / ez daite izan urusa, / dolamen hunek, oi! ez dezala / ainitz gehiago luza; / orai urtea ziloan sartu / andreñoaren gorputza / haren arropa hantxet dilindan / penaz ikusten dut hutsa. Geroztik nihaur ere nabila / guzia beltzez jantzirik, / ez dut pentsatzen nigar eiteko / ene begiak hesterik; / ez pentsa gero, andre gaxoa, / baden munduan besterik, / zure arropa berriz soinean / har dezaken emazterik.

Mendigatxa, Irigoien'ek agertarazia (Euskera, 1957, 163 a) Songain = hombro(Rc).

Leizarraga, Doktrinaren Katexisma, 41. igandea: ¿Egunero eskatzen aizen

ogiaz, zer aditzen duk? —Jeneralki gure gorputzaren behar diraden gauza guziak, ez solament sabelera eta soinera behar duguna, baina bizi hunetan bakez izateko zer ere behar dugula Jainkoak baitakusa, hura guzia galdegiten dugu; gure ogia bakez jan ahal dezagun.

Etxepare, Emazten fabore (G.EM 1, 103 a): Gizonaren probetxuko / emazia bethi da / oro behin hayetarik / sortzen gira mundura / sorthu eta hil ginate / hark haz ezipaginiza / Haziz gero egun oroz / behar haren ayuta. Haren eskuz ossoan behar / soinera eta jatera / eri denian andre gabe / galdu gizon egurra...

Moguel, Peru Abarka, 133 a: Laster ta atzera baga / gara gu jagiten; / ez degu ez erbatzik / soñian itxiten.

Goihetxe, Fableak edo alegiak Lafontenatarik berexiz hartuak.

Bi mulak (8 a): Bi mula zoazen soñez-soiñ bidean / konpai konpañero bata-sun onean: / oloa zeraman bizkarrean batak, grabeletikako dirua bertzeak. (Deux mulets cheminaient, l'un d'avoine chargé, / ('autre portant l'argent de la gabelle).

Bi ahuntzak (183 a): Ibai batek ditu biak separatzen; / zubitzat han ezta solibo bat baizen: / zoiñtan andreger bi soñez-soiñ yarririk / pasa ez bailaizte salborik (Un ruisseau se rencotre, et pour pont une planche. / Deux belettes á peine auraient passé de front / sur ce pont). Gogoratu Larousse Classique'k diona: corps á corps, se serrant le corps d'un autre contre le sien; de front. Goietxe'ren *soñez-soiñ* itzez-itz *corps á corps* da beraz.

Astoa ihizian (23-24): Norla andre batzuek ere / ihizira illkitzen dire; / bertzen arropak soñean, arranyu ederrenean / ezdutela falta barneko linya baizik (Force gens font du bruit en France, / par qui cet apologue est rendu familier. / Un équipage cavalier / fait les trois quarts de leur vaillance).

Zaldia eta orkatza (144 a): Gizonak brida bat laster dio ezartzen / eta *bizkarrean* yauziz zaio yartzen. (L'Homme lui mit un frein, lui sauta *sur le dos*).

Lehoiña gerlara goaki (154 a): Elefanteak behar zuen *bizkar* zabalarekin, / gudurako behar diren tresnen garraioa egiñ (L'Elephant devait *sur son dos* / porter l'attirail nécessaire).

Hartza eta bi konpañeroak (165 a): Larru negoziat bati saldu zioten bertan / hartz eder baten larrua, zoiña hunek soñean / oraiño baitzarabillkan. (A leur voisin fourreur vendirent / la peau d'un Ours encor vivant (165 a): Hurbillsko zebillken hark ezen sudurra / hire soiñ-gaiñean zaukala atzaparra. (Car il s'approchait de bien prés / te retournant avec sa serre).

Paona Yunoni pleintaka (227 a): Ixil-hadi beraz errenkuratzetik; / non ez, nik orai beretik / hire punigarri, / yauntzkura eder hori, / khenduko daiat soiñetik. (Cesse donc de te plaindre; ou bien, pour te punir, / je t'Sterai ton plumage).

Otsoa eta axeria (268 a): Biz, dio otsoak: Hill zaitak anaia bat, / goazen hura den tokirat / haren larrua billtzera: / hau harturen duk soiñera. (Je le veux, dit le Loup, il m'est mort un mien frère: allons prendre sa peau, tu t'en revétiras). Axeriak zuenean / eman larrua soñean (Le Renard, ayant mis la peau).

Barbier, Légendes du Pays Basque (84 a): Ezin higatuzko bere oinetakoak soinean. (128 a: chaussé de ses souliers inusables).

Basterretxea, Pasioa 39: Mantu zatarra soñean eta / kanabela bat eskuan. (RIEB, 22, 215 a).

Duvoisin, Bible Saindua:

Gen. 9, 23: Bainan Sem eta Japhetek kapa bat ezarri zuten beren *sorbaldetan* (At ^yero, Sem et Japhet pallium impossuerunt humeris suis).

Ps. 128,3: Gaixtaginak ene bizkarraren gainean haritu dira beren lanean (Supra dorsum meum fabricaverunt peccatores) *Axularr'ek*: Ene sorbalden gaiñean... *Torres Amat'ek*: sobre mis espaldas... *Bible de Jérusalem*: Sur mon dos... *Olabide'k*: Goldariek sorbalda goldatu didate... *Iratzederr'ek*: Bizkarra daudet / iraulia. *Holy Bible*: The wicked have wrought upon my back.

Ex. 28, 4: Haukiek dira eginen dituzun soinekoak: bulharretakoa, *soingainekoa*,

athorra eta athorra herisia, burukoa eta gerrikoa. (... rationale, et *super-humerale*, tunicam et linam strictam, cidarim et balteum) *Luther'ek*: Das Schildlein, *Leibrock*, Seidenrock, engen Rock, Hut und Gürtle. Ain zuzen ere'-Duvoisin'ek *soin* diorean *Luther'ek Leib* dio. Berdin Ex. 29, 15.

Dan. 3, 21: Eta berehala gizon horiek labe gorritura arihiak izan ziren beren galtza, buruko, oinetako eta soinekoekin (...cum braecis suis, et tiaris, et calceamentis, et vestibus).

Lev. 10, 5: Eta berehala goanik, hartu zituzten lurrean hilak zaudezinak, beren liho-athorrak soinean. (...vestitos lineis tunicis).

Gen. 49, 15: Eta bere soingaina jautsi du bizkarka eramateko (et supposuit humerum suum ad portandum).

Ex. 22, 27: bere larruaren estaltzeko hura da soineko bakharra, eta berizerik ez du zoinen barnean lo egin baitezake (ipsum enim est solum, quo operitur, indumentum carnis ejus, nec habet aliud in quo dormiat).

Sam. 9, 2: Sorbaldetarik eta goiti ageri zen populu guziaren gaineti (ab humero et sursum eminebat super omnem populum) (9, 24; 10, 9; 10, 23).

II Sam. 6, 14: eta Dabidek liho-harizko ephodo bat zuen soinean (porro David erat accintus ephod lineo) *Herders Laienbibel*: mit einem Leinenschurz umgürtet; *Luther*: und war begürtet mit einem Leibrock.

Is. 20, 2: Ordu artan, Amosen seme Isaiasi mintzatu zitzaioen Jauna, zioelarik Zoaz eta soinetik khen zazu zure zakhua, eta zangoetarik zure oinetakoak. Eta hala egin zuen, eta goan zen buluzik eta oinetakorik gabe. (in tempore illu locutus est Dominus in manu Isaiæ filii Amos, dicens: Vade, et solve saccum de lumbis tuis, et calceamenta tolle de pedibus tuis. Et fecit sic, vadens nudus, et discalceatus).

20, 3: Eta erran zaroen: Isaias ene zerbitzaria buluzik eta oinetakorik gabe ibili den bezala, hirur urtherentzat izanen baita ezagutkaritan eta sendagailetan Egiptoaren eta Ethiopiaren gainean; (Et dixit Dominus: Sicut ambulavit servus meus 'saias nudus, et discalceatus, trium annorum signum et portentum erit super AEgyptum, et super AEthiopiam:).

20, 4: Hala Asiriarren erregek aitzinean eramanen du Egiptoarra gathibu eta Ethiopiarra bere lekhetarik, zahar-gazteak buluzik eta oinetakorik gabe, gibeledko aldean ageri Egiptoaren laidotan (sic minabit rex Assyriorum captivitatem AEgypti, et transmirationem AEthiopiae, juvenum et senum, nudam et discalceatam, discoopertis natibus ad igominiam AEgypti) Torres Amat: y descubiertas las nalgas; Crampon: les reins découverts; Douay: with their buttocks uncovered; Luther: mit blosser Scham; Olabide: ipurras. Bible de Jérusalem: et fesses découvertes.

Judith 8, 6: Eta zurdatz bat soinean (et habet super lumbos suos cilicium).

10,2: Soinetik khendu zuen zurdatza, eta eraunzi bere alhargun jaunzkera (abtulit a se cilicium, et exuit se vestimentis viduitatis suae).

16, 9: Ezen eraunzi du alharguntasuneko jauntzia, eta bozkalentziako jauntzia du soineratu (...induit se).

Lev. 8, 7: Apezhandiari jauntzi zioen liho-harizko athorra, gerrikoaz tinkatzen zuelarik eta jaunzten zioelarik athorra gorrimorea, eta soinera eman zioen soingainekoa (vestivit Pontificem subucula linea, accingens cum balteo, et indues eum tunica hyacinthina, et desuper humerale imposuit).

Deut. 22, 12: Zure soineko kapari lau izkinetan eginen diotzazu listak soka mehez (Funiculos in fimbriis facies per quator angulos pallii tui, quo operieris). *Luther*:... deines Mantels, damit du dich bedeckest. *Angl.*: of thy vesture, wherewith thou coverst thyself. *Douay*: of thy cloack, wherewith thou shalt be covered. *Crampon*: du vêtement dont tu te couvriras. *Torres Amat*: del manto o capa con que te cubres.

Ez. 43, 9: Orain beraz ene ganik urrun hastan betzazte beren likhitsapenak eta beren erregeen gorphutzak (Nunc ergo repellant procul fornicationem suam, et ruinas regem suorum a me).

Hebr. 3, 19: Hekien gorputzak mortuan etzanak gelditu baitziren? (quorum cadavera prostrate sunt in deserto).

Hebr. 13, 11: Alabainan olhetarik kanpoan erretzen dire azienden gorputzak. (Quorum enim animalium... horum corpora cremantur extra castra).

Jac. 2, 2 + 2, 3: Aldagarri eder bat soinean; aldagarri eder bat soinean duenari (...in eum qui indutus est veste praeclara).

Eph. 6, 11: Jainkoaren harma guziak soinera har zatzue (induite vos armaturam Dei) zuzentasunezko gerruntza soinean (et induiti loricae justitiae).

I Thess. 5, 8: Fedezko eta karitatezko gerruntza soinean (indute loricae fidei et charitatis).

II Cor. 5, 2: Hargatikan ere auhenetan gaudezi, zerutikakoa den gure leihor hura soinera beharrez (Nam eti hoc ingemiscimus, habitationem nostram, quae de caelo est, superindui cupientes); to be clothed upon; damit überkleidet.

Act. Ap. 9, 40: Eta gorputzaren alderat hurbildurik (et conversus ad corpus); und wandte sich zu dem Leichnam; se tournant vers le cadavre.

19, 12: Haren gorputzetik mokanesak eta gerrikoak erien gainera eramaten baitzituzten (deferrentur a corpore ejus sudaria et semicinctia).

Apoc. 11, 8: Eta hekien gorputzak hedaturik egonen dire hiri handiko plazetan (Et corpora eorum...); ihre Leichname...

Marc. 6, 9: oinetakoak soinean (sed calceatos sandalis).

14, 51: Mihise bat bizkarretik larru hutsaren gainean (amictus sindone super nudo).

Matth. 27, 28: Eta bilusirik Jesus, kapa gorri bat eman zioten soinera (et exuentes eum, chlamydam coccineam coccineam circumdederunt ei).

Sam. 17, 38: Kobrezko kaska ezarri zioen buruan, eta gerruntza soinean (et imponuit galeam aeream super caput ejus, et vestivit eum cum lorica).

Sam. 18, 4: Hargatik Jonathasek erauntzi zuen soinean zuen athorra eta Dabidi eman zioen, eta bere bertze soinekoak ere bai, bere ezpata eta erranbelaraino eta gerriko uhaleraino (Nam expoliavit se Jonathas tunica, qui erat indutus, et dabit eam David, et reliqua vestimenta sua, usque ad gradium et arcuum suum, et usque ad balteum).

Job, 31, 36: Nik hura sorbaldaren gainean erabiltzeko (Ut in humero meo portem illum).

Is. 49, 22: Eta zure semeak besoetan eta alabak soin-gainean ekharriren dituzte (Et afferent filios tuos in ulnis, et filias tuas super humeros poriabunt).

II Mac. 14, 44: Eta purpura eta urhe-gantxoa soinean erabiltzea (et vestiri purpura, et uti fibula aurea).

Duvoisin orrebeste aldiz aipatzeko arrozoi bat edun dut: itzuli zuana zigurr ezagutzen dugula, latíñezko Vulgata zuzenean euskeratu baitzuan. Duvoisin'ek arabilli zuan Vulgata Lafitte jaunak daduka. Zer itzulizuan jakiñez'kero, euskerazko itz bakoitzaz zer adirazi nai edun zuan garbi gelditzen da, eta bestela gerta litezken iritzi-diperentzirik ezin gerta liteke; orrela arako "buru ainbat aburu" zearo galerazten da.

Orañi ikar dezadan Mitxelena'k aipatutako "endosser la robe de chambre". "Neureztat, *soin-en* balioa... `hombro' edo [da]. *Arropa eta soinekoa* soinean eraman ohi zuten gure arbasoek, *oinetakoak* oinean zeramatziten legez". Okerr ezpanago' sorbaldan eramaten danari euskeraz *txalma* esaten zaio, eta gaztelaniz *albardilla*, `almohadilla que llevan los aguadores sobre el hombre'. Gogoratu gaztelanizko *talma*, `esclavina'. Ikusi dugunez' Duvoisin'ek, ia euskaldun guztiok bezala' *oinetakoak soinean* dio; orrek "jantzirik" esan nai du, beraz gorputzean; *txamarra soinean darama eta txamarra sorbaldan darama* ezтира gauza bera, gaztelaniz *la chaqueta puesta eta la chaqueta al hombro* gauza bera ez tiran bezalaxe.

Ona **Joseph Canteloube**, Anthologie des Chants populaires Franrais (tome

III, páge 435) liburuan dagon Elsass'eko erri-kanta polit bat ("Es kummt e Schá-reschliffen in's Land"); bosgarren bertsoa onela dama, elsazeraz eta prantzesez:

*Dheim haw ich gar e ganz füeles Wieb
Drum haw ich an kenn Hemd am Lieb!
(Ma femm' n'aim'pas be aucoup travailler
Aussi je n'ai plus rien sur le dos).*

Prantzesezko itzulpen ori Anatole France'ren arako esaera bezelaxe egiña da, baiña elsazerazkoa, alemaneraz 'Kein Hemd am Leib' izango litzakena' Lhande'k eta Larrazketa'k ematen dizkiguden adigarriak bezelakoxea da: Soiñean atorrik eztut. Argi dago soiña (gorputza) erabilli bearrean dos (bizkarra) erabiltzea prantzekerri bat litzakela, eta euskaldunek eztudela orrelakorik esaten: oiñetakoak soiñean, galtzak (pantaluak) soiñean, gerrikoa soiñean, alkandora soiñean... nai ta nai ez *soiñak* oietan gorputza besterik eziñ adirazi lezake.

Orañ Axularren itzulpena joko dut berriro. Duvoisin'ek eta beste izkuntzeta-ko Biblia-itultzailleek Jesus Sirach'en zatia nota itzuli duden ikustea aski izango da duda-muda guztiak argitzeko.

Vulgata: Eccli. 19, 27: Amictus corporis, et risus dentium, et ingressus hominis enuntiant de illo.

Abbé Glayre: Le vêtement du corps, le rire des dents, et la démarche d'un homme le font connaitre.

Douay Bible: The attire of the body, and the laughter of the teeth, and the gait of the man, shew what he is.

W. Müller (Regensburg, 1906): Die Kleidung des Kbrpers, das Lachen des Mundes und der Gang des Menschen verraten, was in ihm ist.

E. Kalt (1925): Die Kleidung des Kbrpers, das Lachen der Zähne und der Gang eines Menschen verraten, was er ist.

Axularr: Soiñeko arropetan, irrian eta ibiltzean da ezaguna nolakoa eta zertako den bat bedera.

Duvoisin: Gorphutzeko jauntziak, hortzetako irriak, ibiltzeak erakusten dute zer den gizona.

Gauza argiago ezin jar diteke: Amictus *corporis*, le vêtement *du corps*, the attire *of the body*, die Kleidung *des Kbrpers*, *soiñeko* arropetan, *gorphutzeko* jauntziak.

Beste zerbait ere argi gelditu dala uste dut: gatzelanizko "cadáver" adirazteko Duvoisin'ek eta euskaldunik geienok "gorputz" itza erabiltzen dugula. Agian erriak "gorputz = gorpu uts" aditu du, animaz ustutako gorputza.

ERASKIÑA

Azkenik Nikolas Zubiaren *Doctrina christiana* liburuan ageri den bertsoa aipatuko dut.

*Donzella eder batek
Belengo errian
Seña Jesu Christo
Dauko sabelean
Eguzki dibinala
Gaberdi batean
Etorri zan lurrera
Gizonaren soiñean.*

(Ikus *J. San Martin*: "XVIII mendeko gabon kantak Euskal Herrian".

Hoja del Lunes de San Sebastián, 26-XII-1977).

Zatarain'dar Anbrosi'k



EUSKAL ABOSTEGIA: III ABOGAIÑERATZEA

Aurreko idaz-lanean aitatu gendun euskerearen abots-giroko jokera bat, abots bakartiak itxitera jokerea. Jokera ori gure errietan bizi-bizi agiri dala esan gendun.

Gaur beste jokera indartsu bat agertu nai dogu: Euskereak dauan abogaiñeratzeko jokerea.

Gizaldi onetan, berrogei ta amabigarren urtean izan zan, sekula aiztuten ez jatan jazokizun au: Bultzian Bilbao'tik Madrid'erantza giñoiazala, gure alboan joian gizon bategaz alkar-izketea izan genduan. Bera ez zan euskalduna, baiña bai zalantza barik, izkuntzalari ona. Gure alkar-izketea entzun ebanean, auxe esan euskun: Parkatu, jaunak, zuek euskaldunak zaree? Eta gure baietza entzun ebanean esan euskun: Poz-pozik entzun dot zuen alkar-izketea, naizta nik ezertxu be ulertu ez. Abo-gaiñeko abots asko ditu zuen iskuntzak eta oso atsegingarriak dira entzumenerako.

Lagundun abotsen artean asko dira euskereak erabilten dauzan abogaiñeratuak, baiña ez toki guztietan ugaritasun bardiñaz. Bizkaia'n, esaterako, Durangoaldean eta itxas-ertzerantza askoz geiago dira eta abogaiñeko orreik gozotasun berezia emoten dautsoe euskereari. Jokera au aztertu nai neuke idaz-lan onetan. Geienetan ixtera joten daben erriak eurak izaten dira abogaiñeratzea daukenak.

MUGATZAILLEA EZARRIKERAN

Euskereak itz asko ditu azkenean –i bakartia daukenak. Itz onei mugatzaillea erantsiten jakenean, bakartiaren eta mugatzaillearen bitartean, abogaiñeko dunduridun gozoa ezarten jake esaterako **egia** > **egiye**. Ikusten dan lez, lenengo itxi egiten da: a>e eta gero ipiñi or bitartean abogaiñekoa.

Ondarroa'n onetan jokabide ezbarðiña artzen dabe, antza dagoanez, Gipuzkoa'ren ikutuagaitik: Egia>egixa... Emen abogaiñekoa gogorra ta dunduribakoa da.

AGIN-OBIKO ZURREKOA

Euskereak dituan zurreko abots lagundunak, **n** ta **ñ** dira eta n'ren aurretik i dagoanean **ñ** biurtzen da, edo **n** abogaiñeratu egiten da. Eta ori erderatik artuta-

ko itzetan be bai. Baiña ori ez da jazoten Bizkai guztian eta gitxiago Euskalerrri osoan. Esaterako: **Egin > ein > eiñ > iñ; Camino > kamiño, jardin > jardiña**. Txori-Erri'n esaterako ez da orrelan.

ALBOTIKOA

Albotiko lagundunak **I** ta **II** dira, bigarrena abogaiñeratua. Eta l'ren aurretik i dagoanean, **I** ori abogaiñeratu egiten da eta **II** biurtu. Esaterako, dabil > dabill, mutil > mutilla, oilo > oillo, april > aprilla, abila > abilla, ibili > ibilli.

AGIÑETAKO GOGORRA

"t" agiñetako abots lagunduna da eta bere aurrean i agertzen danean, abots ori aldakuntza giroan agertzen da. Erri batzutan **t** buzti lez oguzten da eta beste erri batzutan **tx** entzuten da. Erri oneik **ikusi zaitut** esateko **zeitut (t** buztiagaz) esaten dabe... Aztertu dagigun, esaterako, euskeraz ainbestetan erabilten dan **aita** itza. Bizkaia'n ez da iñon esaten **alta**... Arratiarrak **aite** esaten dabe, Mungialdean aitte, **t** buztiagaz, baiña Mungialdeko iparraldean eta Bermeo'n **aitxe**, Ondarroa'n, ostera, **atxa**. Orixe da agiñetako gogorra dan **t** abogaiñeratzea.

Eta aldakuntza au itz batetik bestera be igaroten da, metafoni sendoari jarraituz: **Bi ta bi > bi te bi > bi tte bi > bi txe bi**.

AGIN-OBIKO TXISTULERIA

Aurreko **i** orrek indar aundiak ditu euskeran eta abogaiñeratze asko sortzen dauz abots lagunduetan. Esaterako i'ren ondoren **s** (edo **z**, Bizkaian barbiñak dira-ta) **x** edo dunduribako eta abogaiñeko biurtzen dira: is>ix, **ekarri egizu > ekarrixu, gizona > gizona, bizirik > bixirik, gaisorik > gaixorik, Luisa > Luixa**.

ABOGAIÑEKORIK ABOGAIÑEKORA

Berben barruan abogaiñeratze au zabaldu egiten da, metafoniaren arauak eskatzen dabenez. Abogaiñeko abots lagundua, gogorra naiz gozoa izan, aurrean abogaiñekoa ba'dauko bera be abogaiñeratu egiten da. Esaterako: **Ibili dira > ibilli dira > ibill jire; egin dot > in dot > in jot. Egin eta gero > eiñ je gero**.

AGIN-OBIKO ZURRERATUAREN ETA DARDARADUNAREN OSTEAN

Zurreratuak, albotikoak eta dardaradunak (n, l, r) urrengo lagundunak abogaiñeratzeko indar berezia dauke: **falso > galtso, Anselmo > Antzermo, Concepción > Kontzezi**, eta antzera **Martzel, kantziño, kartzela, pultsu**, eta abar...

Olazar'tar Martin'ek



EUSKERA DALA-TA...

EGINTZA

|| onen, ots, urri onen 7'an, zapatuz, Hitzarmen nausi bat zala-ta, Batzar gogoangarria ospatu zan Oñati'n. Lenengo eskutitez eta gero telefonoz izan neban arako deia, eta nik, lenengoz arako gogorik ez ba'neban be, gero abots gozo batek eraginda, arako bidean jarri nintzan neure kotxedun adiskideaz batera. Denporaz eldu gara, eta bertatik, ango lekaide Kanoniguai agertaldi txeratsua. Emen daukagu, euki be, zaartua, bedita Larrakoetxea, W. Shakespeare'ren idazlanak (komediak, dramak eta trajediak) euskeraz jarri euskuzuna.

Amaika t'erdia. Jentetza bikaiña batu gara aspaldi bateko Ikastetxe Nagusiaren barruan, ederto apaindutakoan. Talde bakotzak dauko emen bere nun jarri berezia: J.A. Ardantza lendakaria eta lau aldundietako diputatu nagusiak; eskumatik euskaltzaiñak, osoak, jakiña (ni ta beste batzuk, onorezko lez, atzeratxoago); gero, kargudunak, euskaltzain urgazleak, abeslariak, erria...

Onela atondurik areto zabal ederra, musikalaria "Agur Jaunak" joten dauskue. Eta ostean, izlarien txanda: Eli Galdos, Oñati'ko alkatea; Jean Haritschelhar, Euskaltzain-buru; Imanol Murua, Araba'ko, Gipuzkoa'ko ta Bizkaiko Diputaziñoen izenean, eta Aladino Colin, Nafarroa'ko Aldundiaren izenean, eta azkenez J.A. Ardantza jaunak, Eusko Jaularitzako Ramon Jauregi, Jesus Egiguren, eta besteak aurrean zitularik. Itzaldi txalogarriak, euskerari laguntzeko asmo ederrez beteak.

Zergaitik zan alkartzte nagusi au? Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu, Foru Aldundiak eta Euskaltzaiaren arteko Hitzarmena bide zala. Zer Hitzarmen? Euskaltzaindiak diru-laguntza bear ei eban euskera zaintzen lan egiteko; lendik be ba-eban laguntza, baiña ez antza bear aiña, eta geiago eskatzen. Itzaldien ondoren, beraz, Hitzarmena izenpetu bear zan, izen-ezartzaille bakotzak jakin egian zer bete-bear eukon gaiñ. Mari Karmen Garmendia, izkuntz-politikako idazkari danari eskerrak emon eutsozan J. Haritschelhar'ek agintarien naia ortara ekarten egin eban lanagaitik, eta ondoren berau izan zan Hitzarmena lenengo izenpetu ebana.

Euskaltzaindiak aurrerantzean, sei urtetan beintzat, 159 milloi ariuko ditu urteroko laguntza legez. Mari Karmen Garmendiaren ostean, Estebe Petrizan, Jose Ramon Peziña, Tomas Uribe-etxebarria eta Jose Luis Telleria'k sailka, eta azkenik, J. Haritschelhar'ek izenpetu eben.

Domiña dotore bat emon jaken an ziran guztiai jazokunaren gomutagarri legez. Amaitzeko, kontzertua emon euskun Oñati'ko Abesbatzak, Imanol Murua Agirre'k zuzenduta, Jose Olaizola'ren "Agur Jaunak", Seber Altube'ren "Aita San Antonio", R.M. Azkue'ren "Txalopin txalo", Riezu'ko Jorge'ren "Egizu lo" ta Jose A. Donosti'ren "Jeiki-Txoritxua" abesturik.

Azken-azkenik, Unibersitateko goi-egurastoki luze-zabalean, esku-estutze, bizkar-jote, irribarre gozo, ao-gozatze ta eztarri bustitze leunak, giro atsegin txeratsuan.

ONDORENGO ESANAK

Etixeruntz ez gentozan lengo biok bakarrik. Eta miiñari ezin galgarik ipiñi, bedar batetik bestera lez miin batetik bestera alde polita egon arren. Kotxe barruan, ba, guk ekin eta ekin; lenengo batzar a antolatu ebenak dantzatu genduzan: ondo baizen bizkor euren lenengotik azkeneraiñoko eginkizunetan; ez geunkan eurentzat, txarto esaterik, ez iñor jorratu ez masiotzerik. Txistulari, abeslari ta jagoleak be, euren paperean, akatsik bage. Bardin izlariak, au labur, bestea luze.

Adierazo ebena, bikain. Bat etozan danak, itz dizditsuekin, euskeraren aldeko lan sutsu, maitekor, joriarekin. Au, baiña, batzar guztietako "irritsa" dogu, olako eretiteko izlari guztien "txoria". Gero alan be, abots ain zoliz ta erabagitsu esaten dana, beteten ete da? Zergaitik ain errez berbea jan? Gure mormoxa ez da iñoren aurka, oitura danaren salatzaile baiño. Itzartu, berbea eman, eta beingoan, zer? Aizearen burrunba. Itz bikaiñak oguzi ziran batzar aretan gure izkuntza eriotzatik salbatu guraz; lau aldundikoak bat etozan euskerearen egoera larriri osasuna ipinteko asmoz. Dirua upelka dabil esku artean; orrekin eutsiko ete ilzori daukagunari?

Gugaz etorren batek: "Naiz-ta bestera esan, euskera beerantza doa. Uste osoa geunkan len ikastoletan, edo eusko Gobernuaren laguntzan; or ditugu lkastolak eta mesede polita euskereari dagitsenik ezin ukatu; or ditugu ainbeste milloi Euskaltzaindiaren eskuetan, eta diñoenez, ainbeste iker-lan egiñak. Baiña ikastolak eta iker-lanengaitik, iltamuan, arnas-estuka dago euskal izkuntza. Zerk utsdagi emen? Pare bat dozena urte darabilgun alkar-ikusi eziña, burruka, euskal batasunerako jarritako oiñarri apetazkoa: Baionako ta Arantzazuko burruka bizia, leenaren eta oraiñaren artean. Eta burruka onek dirauan artean, euskera beerantza joango. Eta egia esateko, erria ezta burrukalari, alkar artu ezin daben euskaldun zelaiko arlosteak baiño. Diru, indar eta jakituri, geure izkuntzaren aurkako auzian erreten doguzanak.

Erakuskari lez, ona egunokaz jazo: gazte bat, asmorik onenakin, urli ikastolara doa daukazan liburu batzuk, dubarik, eskintzen ango zuzendari ta andereñoei; jakin-miñez arakatzen dabez liburuak, eta ez daroe zoritxarreko atxerik; olako idaztirik ez jasoteko agindua daukien ezkeru, ez dautsoe ale bat be artzen. Eta liburu ederrak dira, margo bikaiñezkoak geienak, euskera jori-ederrez egiñak, baiña ez dabez gura, ez umetxoak, andereño ta agintzaileak baiño. Au burruka bizia da gaur Euskalerrri osoan; euskeraganako gorroto ori biziagotzen eralgi oi da goitik datorren laguntzarik asko. Au al da euskeraren aldeko jokabidea?

Gure lendakari J.A. Ardantza'k bere itzaldi jakingarrian: "Konplexu eta aundi-naikeri eta iñor bazter itxi bagarik, euskaldundu bear da Euskalerrria". Borondate garbi ta oneko esana. Orrela al dagi —iñoan gure taldeko batek— gaur diru ain ugari eskuratzen dauan alkarteak? Or ez al da iñor saiets izten? Danok al gabiltz neurri bardiñean? Egia ete da ori? Nire aldamenekoak, ez dau uste.

Ardantzak sarri ots-egin dau: kultura gaiñean oiñarritu bear dala euskal garpena ta aurrerakuntza. Gizaldiak zear, "politikazko banaketa guztien gaiñetik —diñosku Oñati'n— kulturak alkatu gaitu; eta zer guztien gaiñetik onexek batu bear gaitu gaur bere. Kultur batasunetik eme zan asmo politikua, eta baita Estatutoa ere. Eta asmo onek, ez orduan ez gaur, ez dau zentzunik euskal kulturaren iturritik kanpo".


Laugarren bide lagunak au be bota eban: "Zer egingo ete dau Euskaltzaindiak orrenbeste sosegaz?" Eta nik erantzun: "Nai ezkeru, ba-dau zetan eralgi;

1918'an, Euskaltzaindia ibiltzen jarri zanean, atal bi jarri ziran, **azterkariena**, euskeraren iturri guztiak ikasi, zoko guztiak argi jarri eta naste-korapiloak zearo kendu daitezkan, eta **zabaltzailiena**, erderaz "Labor práctica, cuyo objeto será la tutela y restauración del idioma vasco en todos los órdenes sociales, publicaciones...". "Eta zuk, ainbat liburu argitaratu dozuzan orrek, izan dozu olako laguntzarik". "Esatekorik, ez" —nik erantzun—.

Gai ortaz jarraitu genduan luze. Nik beste lagunei: "Sarri noberak izaten dau errua; lotsatia dalako edo besteak baizen papo gogorrik ez daukalako, ez dau ezer eskatzen, eta gero ezertxo barik, ez emoten ez dautsoelako, berak eskatu ez daualako baiño; atea jo bear da, zeozer eskuratzeko, lotsa barik jo be, bat eta birritan Kristok diñoskunez.

Eta ordurarte, jaiá ausnartzen edo, ixil-samar joianak: "Aurrerantzean, beraz, jo geinke Euskaltzaindiaren zisku jorira, liburu bat argitara emoteko premiñan aurkitu ezker?". Nik uste dot baietz; leen azturik lez eukien Araudiko seigarren puntuko bigarren esana beteko dabe emendik aurrera. Leen, gaiñera, sosez urri ebiltzan, eta ez daukanak, naita be, ezin emon. Eta txoferrak, esku biak gurpil gaiñean tinto: "Oraingoan ez dau eziñik; nik gurpil oni lez eragin ezker, nai onari diñot, ez dau eragozpenik emoteko izango.

Aita Onaindia





ARTA

Kumai! Gudumutilgoan ez al zenduen ipuirik ikasi?

Ez iauna! Neronek esaten nizkien.

—Polittak ala?

Aiek ala uste. Gure Demers iesulagun kanadata ak erakutsi zidana adirazi nien. Alegia, aata-aundi go iarena.

Oraingo Txikutimi iria dan tokian, emen tayelda en artean, aspaldi aietan baso ikaragafiak ornen ziran. Eiztariak asko. Oriean arietan iru anai yayo. Gazteena, bioztiena. Oek bein, etxera, iize aundia eka i. Ua la utzen ari zirala, lañoak go itzen asi ote-ziran irudittu zitzaion. Begiak iyurtzi zituen. Ala ere, lañoak len bezin u ekeru.

Artan norbaiten otsa entzun zuen. Dei egiten ziotela'edo. Irten zan. Zingira loitsuen aruntzagoko ertzean ikuskizun a iga ia. An, egan aata aundi ede a. Uaxe bai egaztia! Eta, aata aundiak mutillari otsegiten zion.

Zekazkian geziak iaurti zizkiola ezin zulatu izan zuen. Artan, etxean aiatan o tza bezelakoxe gezi mee-meak ba-zittuela gogoratu zitzaion.

Laiste ka bizian itzuli. Gezi aietako iru a tu eta aintzira-ezpañera be iro eto i. Leenbizi iaurti zion gezia, aataren mokoa ikuittuz ioan... Biga enak, aatari egatsa zulatu zion; beraz, arek egan aixa egin zezakean. Iruga enak bula aren goena iya ikuitzen ziolarik ezta ia alderik-alde zulatu zion. Ikara gorian, egazti zoragaiak gooraka egin zuen, eta ega-bizian eguzkiaren sa talderuntza bira-egin.

Iruga en gezi ua, indaf aundikoa izan. Ala, eiztariak, gezia berekin zuela egaztia u utira ez zala ioango uste. Eta aren ia aian abittu.

Ikusten al zuen?

—Ez, aita!

Uxtu ariñean ioango zan, da...

Bañan noruntz abiatu zan gogoan ongi artu zuen. Beraz, alderdi artaruntz mutilla abittu. Egun osoa ibili eta ia ai. Muñotxoak atzera utziz. Aldapak irentsiz. Ilunaba a gaiñeratu zitzaionean, norbaitzuen itz-otsak entzun zizkigun. Beraz, ollo-efira iritsi zala egia. Bainan, angoek langille aundi izan, eta artean ere zugatzak erauzten ari. Irixkako buruak, aizkolariekin apaltzera deitu zion. Gure eiztaria orduantxe bai pozik. Bi aldiz deitu gabe, baietz erantzun zien; eta nagusiaren ondoan etzan lo egiteko. Biaramunean, etxeko alabad galdetu zion, andik zear egaztirik ikusi ote-zuen.

Ikusi dezula egi ba'da; afen, noruntz egin duan esaidazu!!

Zu gatzetxoa zera, alako egazti aztia atxi dezazun!!

Egazti aztia? Orixe bai bei iakinga ia neretzat!

Emengoek alaxe esaten dute. Beintzat, ua eizatu nai duenak-almen aundi bereziak bea littukeala.

—O enbeste ba-dezaket.

Beraz, aata aundia noruntz ioan zan neskatxak mutillari esan. Onek bai alderdi artako zelaiak arin zapaltzen zittuen. Ua mutillaren uxtua! Goizeko gosari aulaz illuntzeraño iñon geldittu gabe. Leenago bezela, iriskatxoa ikusi zuenean, ango etxe apaiñean deitu zuen. Oso ongieto i gatisua egin zioten. Etxe artako nagusia aguretxo eta oso atosle txeratsua. Agertu zitzaioan a otzak ari:

Aitonatxo! Apaldu al dezu?

—Ez, ba! Ain txuxen laguna noiz agertuko zitzaidan nitxioken. Bakafik maiera esertzea, ez al zaik motza danik iduritzen?

Eguraldi txa ean, bai. Baiña, illuntze ontakoa, oso eguraldi bikaña!

Eltzea su-aufean laister'agertuko zaiguk.

Zuk ez dezu suterik!

Bai, ordea, labetxo politta.

Zer ikusteko ote-nago!!

Eta, bertantxe, eltze bete-betea egan bezela eto i zitzaien. Aguretxoak, artale poixtixo eta bela ki batzuk lapikora bota zittuen. Mutil afotzak, eto ian egin zitzaion gosea berdintzeko, piskatxo ua etzala aski izango uste. Artan, eltzean zegona irakiten asi. Aitonak agindu zionean, alegia. Gure mutil eiztaria oso a ittu zan etxeko nagusiak beste zerbait esan ziolarik, lapikoa mai gañera igo. Aguretxoak:

Ekin! gazte.

Beste gabe, gure mutil gaztea yan eta yan asi zan. Lapikoa oso ttikia izan. Berealaxe ustu zuen. Baiñan, lapikoa, be iro berez bete zitzaion. Agurea eta a otza ase ziranean, lapikoa aoz bera ia i zitzaien. Agureak itz a otz bi esan, eta eltzea ezabatu! Ontan, mutillak agureari aatarena galdetu zion:

—Aitonatxo maitaga i! Au da au, apari ede a. Nere amak ber-berak ere onen-bestekorik ezin egin.

—Nai dezunean, befiz ere eto i.

I iki dedan aata-aundia eizaten dedanean, alaxe egingo det.

Aataren atzetik al abil? Emen sa itan ikusi oi diagu. Emen bertako mutil aundiek ere eizatu nai izaten ditek. Baiñan, aren egakera yayoa!! Bai zera!...

Aitonatxo, zer?

Ua etxeratu nai duenak, ez dik nolanaikoa izan bea .

Ni baño obea?

Ikusi egin bea ko...

Biaramunean, biak oila a bezin goiz iaiki ziran. Aitonatxoak, eiztariari gosari ede a eman zion. Gure mutil gaztea, laiste kari onenen antzera, egun osoan, atzera so egiteko astirik gabe, ioan eta joan. Oraingoan ere, eguna, aata aundia ikusi gabe. Illunaba ean, ibai ertzean, etxolatxo, edo ate idurikoa sumatu zuen. Andik amonaxoa irten zitzaion. Eta:

Aspaldi ez det ike lerik izan.

Amal! Gabon! Gauaz emen lo egin dezadan tokirik izango ote-degu?

Biok oe berean etzango gaittuk. Nai al dek? Nik na uan, ez natu lotsaga irik, ez xaki azkure-emallerik, ez eta ere iario txa ik bein ere ez diat izan.

Apalondoan izketan ari ziralarik, mutil gazteak bere ametsetako aata-aundiarena aipatu zion. Orduan amonak:

Gazte! Adore aundikoa aut, nolanai ere! Ori, zaa ontzat beti dek pozka i! Uste izaten bait-diagu, geron ondoren, erkin eta ergelak baka ik utziko ditugula. Noski! Ire buruauasteak aunditxoak dittuk! Ori lan zalla dek: Aata aundi-go ia eizatu...

Bai, ama! Lan zallak ere egin bea izaten dira...

Ala dek!! Emendik zea ioan eta ioan, gazte yayo asko ikusi izan dizkiat.

Guztiak aata aundiaren atzetik zebiltzateken. Gero, ordea, osteraka, oietako bakafik ez diat sumatu. Zer gertatu zaien? Ortxe koxka! Negu beltza!! Nik aol-
kutxo emango nitek...

Nik pozik entzungo! Esan!!!

Amonatxo ximelek, esangin gutxi izaten dizkitek!

Orietakoa ote nauzu? Ez det uste!!

Agirian zegok! Beraz, mutil, abil gurbilki!! Goikoak, ire alde diranik ez bada-
kik... geldi of!! Aata-aundi ufequera, endaburu zintzoaren alaba dek. Endaburu eta
sorgin,aldi berean. Etxekiat nork eta non, la utu egin ziteken. Ildakoaren aita su
bizian zegok. Arengana urbiltzen diranak, befiro, lengo naigabe-oñazeak ematera
datozela irudituz. Ari asafea ase asmoz, ala bak gazte eta adoretuak zoratzen
dizkik: arengana iritsi orduko, sakailketa izuga ian guztiak bifintzen dizkik. Bes-
talde, endaburu ofek, bere alaba, oke gilleak eramango dizkionareztat dik.

Ama! Eskafikasko! lakitea on zait.

Oa, ondotxo!!

Oraingoan, gure gaztea, bela i biak eme zioan. Zelai ta muñoak iretzi beafez,
ez ariñegi ta laiste ka. Beaf duen lekura garaiz ez iristeko belduréz, ez astiroegi.
Eguzkia, ttonttofik garaienari muxu ematera urbiltzen zan artan, norbait ai-oska.
Eiztaria uferatu zan; eta, iñora igo gabe, berialaxe etxe artaruntza abiatu zan. Ua
ikuskitzuna!! Lafutu izandakoa ai-oska!!! Zeto ena ofek ere ikusi zuen, ta:

—Gazte! Gazte! Aufera al zoaz?

—Miñez zaudela ere esango nuke! Zer dezu?

—Gauf arte iñortxok egin ez didan galdea. Gazte! Bai, min aundiak nik!!

Min nork egin dizun, agian, ez didazu esan naiko...

Elka ekin apalduta gero, bai.

Apaldu zuten. Endaburuak gazteari:

A atsalde gogaikafi batez, afotz batzu agertu zitzaizkidan. Zuri bezelaxe,
nere etxean atotsi nittuen. Biaramunean, aztikaerirako nuen aiztoz la utu nitxiote-
ken. Aiztoa bera ere ostu. Geroxeago, gaizkilleak ez zirala ufuti bizi ikasi nian.
Aiek zoratzeko alabatxoak alegiñak burutu afen, ezef ez iristen.

Non dira?

Zer egin nai dek?

Nik ekafiko dizkitzut!

Itza betetzeko aña ba'aiz, aata aundi u eker a iretzat izango dek...

Eguarte guztian, eiztaria yoan eta yoan. Eguzkia goiko erpiñera zanean, iri
aundia agertu. Ibiltari bizkofa araaxe urbildu. Angoak batzaf aundia zuten: ota,
efi guztia bildu. Aiek, yan eta edan aspe tzen ez. Ondoren ifadak eta iauziak
aspe tzerik gabe. Baita, aiztoa zuaitzean iosia. Iritafek oa tu baiño len, gure eizta-
ria afano biu tu zan. Zuzen-zuzen zuaitzera, aiztoa andik atera eta gooraka asi
zan. Ori ikusiz, afanoa uxatzeko oi danez, angoak gafaxika zalaparta aundiz asi.
Afanoak (oitua izan), bi atzapafez aiztoari estu-estu gogof eusten eta etzuen
iausten utzi.

Oilloak egatxiki estuan etxebafura aterpera zetozkion. Ontan, endaburuak leio-
tik begiratu zuen. Afanoak aiztoa utzi, ta leio-uztaian sa tu. Ua sorgiñaren izu-ika-
ra! Afanoak, lengo antza utzi eta gizantza artuz, agurearen etxeruntz egin zuen.

Baiñan, ua ez izan leenagoko sorgin zarpail eta mindun. Gizaseme makala,
bai. Eta beronek eiztariari:

Eskafikasko! Osasuna eta zoriona itzuli-eskuratu dizkidazu. Bertan zure
etxera itzultzeko asmotan zeranik ez det uste.

Aal dedan laistefena!

Beintzat, zure garaitzari yai egiteko, aparti aundi-edefa egin beaf degu.

Nola izan da ori?

—Izuak lengoratu nau. Aiztoa ebakirik egin gabe, bela i ertzetik ioan zitzaidan.

() ela, iru egun ede osoz ospaketak izan zituzten. Irteterakoan, osasuna iritxi zuenak, eiztaria opariz bete nai zuen. Ala ere, arek iga i eiztaria ez zala asetzen.

Antza ematen zaizu! Beldu ez zaude.

Ni?

Orixel! Zerbait esan nai zenidake.

Zer gero!

Gazteak beti eskean.

Eto kizuna obetzeko gurariz.

Ona: bizia biufu didazu.

—Ori egia ote dan, zero ek esan bea ...

Nik, be iz, arako ua agindu nizun. Ez! Ez dizut ukatuko.

Aldameneko atea zabalduz, alabari deitu zion, Bai bikain eta ede . Erabateko liraña.

Zurea da! Eramazu!! Alaba omen zana, nere a eba da.

Eiztaria, itzulerakoan, lendik ikusi zituen aietan atsedean artu-gogoz. Angoek, opariak'eta bezuzak sail aundian, mendika zemazkioten.

Senideak eta etxeok, ordurako. Etzala itzuliko etsirik zittuen. Eta, tamalaren adirazga i, guztiak, beren aurpegiak kea ez bezuak eramazkiten. Ai! Ai! Gure anai eta e itza maitea! Gero, orde, ikusi zutenean, berealaxe garbittu zituzten. Txilioka eta muxuka ian beaf zutela. Iru egunez yai egin zioten. Bai ezta luzeak!!


Aita!

—Kumai! Zer dezu?

Esatekoa amaitu det.

Ufengoan beste bat. Ba-dituzu-ta, noski!!

Etxeberri





AITA NEMESIO OTAÑO

1

Bebarru gisara

"Auñamendiko egaletan eta ibarretan, lana, dantza, otoitza ta kanta egiten dituen erri berexi bat dala", Euskalerrria, aitortu zuan atzerritarrak.

Ezpairik gabe, Azkoiti-tik igaro zan atzerritar ori. Erri apariekoa egite laukoitzean!

"Eskuan ogi batekin jaiotzen dala gizon oro" ere, esan oi da.

"Euskalduna, berriz, esku batean ogia dula ta bestean pelota; edo-ta esku batean ogia ta bestean ereskiña dituala", entzun oi da bein eta berriz.

Aita Nemesio Otaño Eginu, azkoitiarra, esku batean ereskiña ta bestean ere ereskiña ekarri zituala, bertatik aitortu ta egiztatzera gatoz.

Aizkoiti erriaren biotz-biotzean bada iturri bat apartekoa ta agorkaitza. "Barriketako iturria", alegia. Miragarria ta esan-nai aundikoa. Bertatik edan degu azkoitiar denok. Ta iturri ortatik jaso ere: fedea, errimiña, euskera, musika-sena, oitura jatorra, umore ona, abes-eztarri sendoa, kirol-trebetasuna, txapeldun-gaitasuna, ta beste.

Txosten ontara, "txapeldun" aundi bat dakarkigu: Aita Nemesio Otaño. Musikalaritzan aintzindari, eta eliz-eresian "txapeldun" argi-argia.

1880. Aurtzaroa

Plaza Berriko kalean, gaur 110 zenbakia daramakin etxean, irugarren goian etorri zan mundu ontara Nemesio Otaño Eginu.

Aita, Jose Luis Otaño, Bergara-ko semea ta ogi-bidez sendagillea. Ama berriz azkoitiarra, Mercedes Eginu deritzana.

Aitari buruz sendagille zintzo ta arduratsua zala, diote; ta gañera beartsuei utsaren truk ematen ziela bere jakinduria. Or dakusgu beor baten gañean basarri-basarri arratsaldero, kalekoak goizean eginda gero. Lau seme ta alaba bat, eduki dituzte.

Aita gazterik il zaie, 1885 urtean. Eta alabearrez Nemesio umea, bost urtetan, Eskoriatza errira dijoa, (tarteko osabaren etxean bizitzera. Sendi ontako lengusu bat, Joxe deritzana, musika-zalea da. Ta, lengusu oni esker, bere baitan musika-sena soriu zitzaiola, aitoriuko du geroko batean. Solfa ikasteari ta pianoa jotzeari ekiten dio. Parrokiko abes-mutil ere biurtzen da tiple-taldean.

Amaira urtetik amabost bitartean (1891-96) bi ikasketa dakarzki parean, eskolakoa ta musikakoa. Baita elizako organujole ere izendatzen dute.

Garai ontan badira Gipuzkoan bi apaizgo-ikasetzxe pamatuak, bata Andoain-en eta bestea Baliarrain errixkan. Amairu urteko gaztetxoa, Baliarrain-goan ezagutuko degu, latin-ikasle ta organista. Ordutik ere, otsak eta soñuak alkartzeko ertilari

sumatzen degu, ta amalau urtekin "Litaniak" abes-legetan josi ta amabostekin pianorako "Zortziko" bat idatziko ditu.

1896. Gaztaroa. Jesusen Lagundikoa

Jainkoaren deiari erantzunaz, Loialako nobiziaduan sartzen da, amasei urte ditularik. Orra or, Nemesio Jesusen Lagundiko senitartean zintzo ta jainkoti, nagusien esanetara makur. Doaiez nabari musikalarintzan, erreztasun osoa ematen diote, organu-jardunetan aritzeko batipait. Arritzekoa benetan. Jesu-lagunen artean, musikagintzari iñoiz eman al dio iñortxok? Sail legorragorik, iñun bai-ote?

Nobizio tartean alzaziar bat du kideko. Onen bitartez Alemaniko musikalarien berri ta maillak jasotzen ditu, Españi-n oraindik ez-ezagunak. Beriantxe, Bach, Widor, Guilmant eta beste organulari ospetsuen lanak jotzen ditu "Cavaille-Coll" bikain ta mardulean, oraindik orain santutegira ekarritakoa. Izkutuzko aal eta soñu gozoenak eragiten dizkio, organu-elestian bete-beterik jazten dala lau urte aietan.

Aren trebetasuna ta yayotasuna mirestera ez ote ziran jeisten gero Bidani-tik Usandizaga (1) eta Errezil-dik Juan Mari Ugarte bat? Azpeiti-ko Eleizgaraytarrak beñepein oso sari inguruan zituala badakigu, aien itzalak on egiñaz azkoitiarrari.

Azkoiti-ko "Cavaille-Coll" paregabea estrena ta bedeinkatu zanean, Otaño Loiolan bizi da (1898). Komentuko nagusiak utzi ote zioten jai eder artara joaten? Felipe Gorriti eta Jose Inazio Aldalur, maixu ospetsuak, antxen izan ziran ta beren saioak egin, organu berrian.

1900. Burgos-en

Irakaskintza-Jardunak osatzeko Nagusiak Burgos-era bialtzen dute, iru urteetarako. Ondoren, Valladolid-era dijoa, eta an beste lau urte igaroko ditu (1900-1907) (2).

Zazpi urte auek, Otaño gaztearen Eziketa urteak dira, musikaren erakundeak eta lege-bideak ikasteko, eta lenengo urratsak geroko gizandi aren elburuak eta maillak lortzeko.

Maixu jakintsuak izango ditu; irakurri ta ibilli etengabe, iñungo musikalarien adiskide egingo da, dan-danetik probetxua jasoaz.

Bestalde, "época romántica" dalako ori il da. Orain musikolari berri ta egokiak nun-nai sortzen dira, Euskalerrian bereziki. Ziñez musika berri-berri bat dator, edestian muga ipiñiko duan bolara gogor ta iraunkorra.

Frantzi-aldetik, berriz, bere aldiko aizeak jaiki dira, elizetako eresgintzan. Solosmes Monasteri-tik Gueranger abatea eragille dabil, batez ere gergori-ereskera elizetan sar eta tinkatzeko. Ta orra, Frantzian ez-ezik Alemanian ere aintzakotzat eta ontzat artzen dituzte Abatearen iritzi ta jokabideak. Eta baita Erromako Aita Santuak ere.

Otaño kezkatu dabil. Silos monastegira dijoa. Eustakio Uriartek idatzitako "Tratado del canto gregoriano" liburuxka ere irakurtzen du. Buruaustetan, ametsetan, galdezka bere kolkoari: zergatik ez Españin eta Portugal-en irakatsi berriak

(1) *Joxe Mari Usandizaga, gaisorik dago. Bidani-ko Muñoa anaiak beren etxera eraman oi dute, denboraldiak igarotzera. Birikietako "gaitz txuria" daduka, ta oraindik, gazte dala, gaitz orretzek beste mundura daramaki.*

(2) *Denboraldi ontantxe (1903), berrogei bat kantuxka idatzi ta plazaratu ditu. Eleiz-araudietara ongi idatziak izan-arren, ez zituan gerora aitatu nai izaten. Umeen lanak iruditzen zaizkio, idazle berri baten zegozkionak, ausardi-pinitoak. Alaz ere errietan sakonki sartu ziran ta sartuak daude. Gaur-egun ere ao-gozatuz, kili-kili eragiñaz, bulla aundiekin, pozik eta gogoz elizetan kanta izan oi dira.*

zabaldu ta sartu-azi? Biotz-irrika aiek kemena ematen diote berriztari, aldatzaille, zuzendari, arte-alor berrian gizandi ta zabaltzalle izateko.

Valladolid-urira dijoakigu, 1903-ko iraillean. Izar dizdiratsu batek antxen argi ta siñatzen dio aurrerantzean ibilliko duan bide bakarra ta zuzena. Eleiz Amaren musika-apostolu izango da bizitza guzi-guzian!

1903. "Motu proprio"

Pare-parean ta puntu-puntu, Pio X Aita Santuak "Motu proprio" deritzan enziklika argitaratzen du. Berak, sega balitza, elizetatik errazkada batean orduar-teko kantu zoroak ken eta uxatu egiten ditu. Utikan kale-usaiak, antzerki-zarzue-laz kutsutuak. Irri-doñuak, zanpartzakeri, teatrokeriak, jo-ta-seko, lurpean gera-tzen dira.

Araudi zorrotza ere badakar. Polifoni-erak (Palestrina gogoratzuz), eta gergori-erak pamatu ta gorai patu egiten ditu. Andik aurrera musika idazle, abesbatzaen zuzendari ta Katedraletako maixuak araudi berri ariara premituak eta lotu-lotuak geratzen dira.

Otañok su-ta-ke ekiten dio lanari. Kos-Matxo Gongotzai jauna bere aldetik dauka. Alaz ere Otañontzat zorionik aundi ena, esku-aldirik baliotsu ena, Katedra-leko abes-maixu Bixente Goikoetxea izatea, gertatzen zaio. Maixua bera ere, azkoitiar gazte sutsu ura, ikasleen artean ikustearekin ikaragarri pozt en da. Alka-rrekin lagun-lagun egiten dira, naiz-eta urtetan desberdiñak izan. Goikoetxeak 50 daduzka, ta Otañok 26 urte. Ainbat eta ainbat zekien aramayotar maixu arekin zenbat ikasi ote zuan. Ordu-arteko tenika-utsunak jakituriz betetzen ditu, ta eliz-musika berri sakonean, zabalean, luzean goi-ta-be, ezagun eta ikasten du; lais-ter Otaño beste maixu argi ta pizkorrean biur tuta geratzen dalarik.

Onezaz gañera beste musikalari ospetsuekin ere ar-emanak gero ta ugariago ta sendoagoak gertatzen zaizkio orain. Esate baterako, Felipe Pedrell, Turina, Zezilio Rodas, Bixente Arregui, Jazinto Manzanares, Cassimiri, Perossi, ta abar lagun ditu. Frantzi-ko Solesmes monastegira ere badijoa, ikaskizun egarriz.

Biotza pil-pil, 1905-apirillean, Musika Berizte Ekitaldi Nazionala antola nai du Valladolid-en bertan, "Motu propio" adieraztera emateko. Ejenploz ere egiztatzen du Eliz Amaren tesi berri. Ondorioa, eliz-barrutirako Batzorde bat izendatzen da, Otaño ta Goikoetxea buru diralarik, "araudi" berezi bat idaztera beartuz. (3)

Arnasa artzeko, toki zabalagoak bear ditu: Musika Batzar Nazionala baten gose-egarriz dabil. Ontarako urteberritik (1907) "Boletin" bat argitaratuko du, amabosterokoa. Baita ospatu ere Batzarra lau illebe te barru. Apirillaren azkenen-go lau egunetan iñungo batzarkideak biltzen dira Valladolid urian, Otaño eragille dala. Badira 700 gutxienez, euskal eta erdel izkuntzetako gizon musikalari aurren-aurrenetakoak.

Otaño-ren izena bat-batean mundu guztira zabaldu da, ainbat lan eta orren egoki Batzarra zuzentzen saia dalako. Ondoriorik nagusien auxe: "Música Sacro-Hispana" aldizkaria sortzea. Bertantxe teoriak ez-ezik, bost lerrotan idatzitako

(3) *Azkoiti-n Andres Sustarra, "hojalaterua" ez-ezik, pelotari gogor eta aurrenetakoa da. Auetzaz gañera koruko kanlorea. Lekeilio-ko San Antolin jaietan, parliudia irabazita, pelota-tokitik irletean, apaiz batekin topo egin la itzetik orlzera galdetzen dio:*

—*Musika berri orlan sarlu al-zerate Azkoiti-n?*

—*Naiago nuke jakin, nor izan dan orren asmatzaillea.*

—*Zer ba? Zer egingo zeñioke?*

—*Artuta, itxas-erdira bota.*

—*Ez, Andres, ez; ikusi bear dezu oraindik nolatan gustatuko zaizun.*

Apaiz ura, Don Bixente Goikoetxea pamatua izan zan, eta urteak arrazoi osoa emango zioten, Andres Sustarra ere, bai, musika berriarekin urteetan zaletua la mai-te-mindua bizi izan zalako.

musika berezia ere illero plazaratuko ditu. Aldizkariak amabost urteetan bizirik iraungo du, 1922 arte, beti Otaño zuzendari dalarik.

1907. Oña-n apaizteko

Otaño apaiztu gabe dago. Ontarako Lagundiko Ikastetxea Oña deritzan Burgos-ko errixka batean arkitzen da. Iru urtetako Teologi-ikastaroa osatzeko, area-xe aldatzen da. Bertatik eskutiz eta idazkiz eratzen du Bigarrengo Batzar Nagusia, Sevilla-n, azillaren (1908) azken-egunetan. Amaikatxo karta egin ditu. Ta egun aietan bertara joan eta dana zuzendu ere bai.

1910. Komillas-en, aintzindari

Aita Nemesio Otañok Lagundiko Nagusiak ala agindu, ta Komillas-eko lkasetxe-Unibersitatean, tinkatu du bizi-toki berria. Ogeitamar urteko gazte sasoikoa, amabi urietan jo-ta-ke lanean jarraituko du toki artantxe. Balioan ta fruituan, urrezko urteak izango dira, ezpairik gabe.

Eldu-elduta iritxi bai-du azkoitiar mutilla. Mendigoizaleen gisara aldapan gora ibilli ba-da orain arte, 30 urtetan gallurra arrapatuta daduka, ta goi artatik musika-sail eta arte-alor denak zeazki ezagutzen ditu. Atxintxika ibilli gabe, barruko senari esker, musika loretegi guzietan goi-goitiko Maixu egia dago. Armonia, konposaketa, kontrapuntua, instrumentaketa, polifonia, organua, musikologia, eta beste, menderatzen ditu banan-banan.

Urterik emankorrenak dituan, ezin esan-alakoak, fruituak ere izango dira: beti Eleiz Amaren araudi berria zabaltzen. "Eman ta zabal zazu munduan frutua".

Bi eskubide izango ditu, batez ere, lanerako: "Schola cantorum" abesbatza, ta "Música Sacro-Hispana" aldizkaria.

"Schola cantorum", apaizgaiak osatzen dute; 150 mutil-gazteak; giputxak geienak; azkoitiarrak ez gutxi. España osoan zear dabiltz, uririk nagusienetan, erestaldi ta saio zoragarriak egiten, txalojotze luzeak toki danetan jasoaz.

"Música Sacro-Hispana" aldizkarian, idatzi baño idatzi, erakunde berriak adierazi ta jakin-arazteko; besteren idazkiak txukundu, orraztu, apaindu, zuzendu, akatsak ken eta abar. Zalantza, galdera ta eztabaietan, Eleiz Amaren araudia begi-aurrean dula, erabaki. Zenbat lan eskatzen duan aldizkari bat zuzentzeak! Gaiñera konposaketako lanak ere bialtzen ditu aldizkarian kantarako, naiz abozetara naiz organurako. Ezin uko lankide ta idazle askok eskua luzatzen diotela, beren musikako doiaiak nabarmen azaltzeko irrikaz.

Gero Otañok lan auxe dagi: kursilloak eratu, itzaldi ta konferentzik mintzatu. Tolosa-n zuzendu zuan konferentzi ura (1913) oso bikaiña izan zan, eta "Euskal-erriaren alde" zeritzan illerokoak oso-osorik plazaratu zuan. Gaia beti Eleiz-Musika. Lan onek ibiltari asperezin ta purrukatua biurtzen du. Onelaxe jaso ere egiten ditu, an da emen, folklore-pitxiz josita dauden baztarretako aberastasunak.

Irugarrengo Musika Batzar Nagusia ere (1912) berak antola ta itzaldirik nagusia ta mamitsuena bere kontura dago. Ospakuntza Barzelona-n izaten da.

Era ontantxe buru-belarri musikan murgilduta Komillas-en bizi da, Beulloch Kardinalak, 1919 urtean, Burgos-era ots-egin arte; Seminarioan Eresgintza erakus dezan. Lendabizi or dabil joan-etorri, Santander-Burgos bideetan. Iru urteko ibillera neketsua darabilki. Eliz-barrutiko errietan ere musika erakusteko agindu zaio. Gaiñera Kastillako lagundi-probintzia zatikatu egin, eta Komillas Leon-go Probintzi berrira aldatu dute. Ontan Komillas-erako zuzendari berria izendatu dute: Aita Jose Iñazio Prieto, musikari gaztea.

Oraintxe nora-gabeko gizona dirudi. Bere amets bakarra Madrill-en Eleiz Musikari dagokion Ikastetxe-Korserbatorioa sortzea da. Ez daduka dirurik, ordea, iñundikan ere ortarako.

Bere ama, Mercedes Eginio Larrañaga, andre agurgarria, Gasteiz-en il da, azilaren 8-an, 1920. Illetak Azkoiti-ko eleiz-parrokian ospatzen dira.

1921. Azkoiti-n

Azkoiti, erri txapelduna, txapeldunik ba'da. Euskal-mintzurari ta oitureei eusten, zenbait jolas ta kiroletan, gizon jakintsu ta eliz-gizonak sortzen, mixiolaritzan, eta abar... Orain beste txapeldun bat datorkio, Aita Otaño, musika-arazo guztietan zerutik jetxitako mezularia, profeta soñulari ta paregabeko aintzindaria, mundu zabalean sonatua.

Urte ura, 1921, ez da txantxetakoia izan. Abarketeroen greba luze artan, erriak lenbizikoz "guardi-zibillak" ikusi ta ezagutzen ditu. Tenientea, zaldi zuri baten gainean, draka-draka kalean zear, tiroak botatzen...

Urte berezia ere Aita San Iñazio zauritu zaneko urte-muga ospatzen dalako. Aren erlikia datorrela-ta, Azkoiti osoa Loiolako landa edo zelaian dago, ongi-etorria emateko. Izarraitz-mendiari dardarizioa eragiñaz, millaka eztarri ta millaka bular-auspo indartsuak San Iñazioren Martxa, Banda ta Orkesta lagun, kantatzen dute, sei abots desberdiñetan, erri osoa abesbatz zoragarri batean bilduaz. Arri-eskalleraren goian Gotzaiak eta iñungo aundizkiak, eta Beulloch Kardenala ere bai malkoak derizkiola, ta auxe esanaz: "Zorionekoa orrela abesten duan erria" Nor ote kantu aien egille ta erakusle Otaño ez-ezik?

Sari apartekoa izaten du gertaera onek. Burgos-ko katedrala eraiki zaneko eun-urte muga bat betetzen dala-ta, erriko 700 gizon-emakumek osatzen dute Azkoiti-ko Orfeoia, Kardenalak Burgos urira daramaki jaiak ospatzeko. Diotenez, urira daramaki jaiak ospatzeko. Diotenez, urira eldu trenetan, ta burgostar iñortxo ere ez azkoitiarrai "ongi-etorria" emateko. Ostaturik ere ez gaua igarotzeko, kuar-teletan lo egiten dutelarik. Urrengo goizean Iturriotz-eko eskaparatean (gaurko Caja Laboral) egundoko idazkia ipintzen da esanaz: "Gran recibimiento en Burgos al Orfeón Azcoitano".

Ori orrela, Orfeoia zezen-plaza erdian abesten ari dala, Alfonso XIII Erregeari Afrika-ko "desastre del Anual" dalako orren berri ematen diote, ta presaka abes-tokitik irtetean, azkoitiar abeslari bat atsilotzeko (detenitzeko) agintzen du. Ez du, ba, gure mediku bigotedun Artetxe jauna ixpizat ta zalatarizat artu? Ura pello-keria ura, erregearena!

Orfeoia-aren zuzendari bakarra, Aita Nemesio Otaño da.

1922. Donosti-n

Inglatierra, Alemania, Italia, Belgika eta Frantzia bixitatzen ditu garai ontan. Quaw uriko beneditarren arbako-egon-aldiak on aundia egin dio; lekaide ingeles aiek gergori-abesmotan paregabeak dira.

Ibillaldi luze orren ondoren, Aita Otañorentzat agindu berria dago: Donosti-ra etorri bear du bizitzera ta gaiñera soziologi eginkizunetan, jardun bear du, musika erabat utzi gabe.

Aurrerantzean Donosti-ko Ategorrietan ("Colegio de San Ignacio"), izango du bere bizi-kabia. Aita Laspiur-ek eraikia, ta Otaño-ren bizkarrera dator ikasetzeko zuzendaritza.

Alor berri ontan ere, doai bereziak nabari jartzera dijoa. Soziologi-ekintzan "Círculo de S. Ignacio", "Caballeros de S. Ig.", "Centro de Cultura Femenina", antola ta eratuko ditu. sumatzen degunez, emakumekin, gizonakin, gurasoekin, eta abar, sozio-lana dagi. Itzaldiak, billerak eta beste. Emakume edo-ta serbitzari-erantzako, jostunketa, sukaldalaritza ta eskolaz buruak jaztea.

"Cine Novedades" aretoa ere beretzat erosi du, ta emen konferentziak eta kur-silloak prestatzen ditu. Gizarteko auziak adierazi ta Eleiz Amaren jokabideak

azaldu, soziologu jakintsuak ekarriaz. Musikalaritzan, areto ontara extranjeriko abestalde ospetsuenak dakarzki, eta Espāñin sortzen diran abesbatzak ere antxen dadukate manifestamena egiteko egiteko toki aukeratua, Donosti bai-da ortarako uririk garrantzitsuena.

Bertatik adierazi dezagun eresketa au ere, naiz-eta geroxeago gerta. Ategorrietan ontan badago ikastetxe bat mutil gazteentzako. Otañok izkutuzko indarrez jentelate asko dakarki. Eragillea da benetan. Ikastaroak ekitean naiko tokirik ez, ta derriorrez beste toki bat bear da. Auzoan, Lasalletarrak dadukaten ikasetxe sailak erosteko artu-emanetan ekiten dio. Jesu-Lagundiko aldetik Aita Aizpuruk eta A. Otañok izenpetzen dute tratua jabetza aldaturik eta naiko tokia arkiturik. (1928-29).

1923. Erri-miña

Irakurle, "Lagundiko" etxeak ez al-zaizkitzu beiñere gudaletxeak antzo iruditu? "Jesusen konpañia... armetan jarria..., zure soldaduak... txispas armaturik..." Gure umetan, Azkoiti-tik zear, osteguneko paseoan, lareun edo bosteun nobizio igarotzen ikustean, Eleiz Amaren Gudaroste beltz eta indartsu baten irudipena ez al-zitzaizun buru-erdian jartzen?

Garai ontan, 1923, Aita Otaño berrogeita iru urteko gizon egiña zan, jesuita txintxo ta zuzena, legeari lotua.

Baiña biotz orok bere eskakizun onak, jatorrak eta berezkoak daduzka: erri-miña, famili-miña ta seni-miña...

Azkoitin bere anai Don Jose apaiza langille-ugari dabil. "Luistarren, eta Maria Alabeen Kongregazioko" zuzendaria danez, erriko gaztedia poltxikoan dakar. Bestalde, erri guziak gertakizun ospegarriak izan oi dituzte. Azkoitik ere bai. Ara!

Urte ontan, 1923, Don Joakin Erretoreak apaizgintzako "urrezko eztaiak" goraiatzat dituala-ta, Otañotarrak ditugu aurrelari jaiak girotu ta antolatzen. Elizako kantu guztiak Nemesiok gidarituko ditu. Alhondiga-tokiak teatro-aretoan biurtzen dira, ta "Chao" antzerkia aurkeztu.

Aitagarria da orduan gertatutakoa. Giza-pixuz azpiko zutoiak tarras egin, ta gaiñeko tabloi-egurrak beera etorri, ta zenbait pertsonak ardo-upeletan anak sartu, eta norbaitek estualdi artan "odola, odola" deadar egin eta izu batean, antzerkia geratuz, jaialdi osoa ozpiñean erabat biurtu.

1926. Gau-gurtzearen estrena

Azkoiti-ko erriak Jesusen Biotza eta Eukaristia gorestekoa dadukan edestiarekin liburu lodi-lodi bat bereala idatzi liteke. Oraingo ontan "Adoración Nocturna" deritzaien alkarte dalako ori ereikitza dioa. Ilbeltza, ta egualdi txarra. Espāñi bazterretatik, iñungo kofradi-ikurriñak —eun inguru— ekarri ta azaldu dira, sekulako prozezioak eratuaz. Ura jaia!

Otañotarrak izan dira antolatzaile, ta Espāñi aldeko jendetzak zur eta lur itzuli dira Azkoiti-ko kantu ta bikaintasunak begi beteaz ikusi ta ao atsegiñez gozaturik.

1927. Mixio Jaiak

Mixioetatik gotzai jesuita bat eldu dala-ta, mixio-jaiak eratzen dira. Ugarte jauna da, ta beste bi anai ere badaduzka Lagundian. Beraz iru anaiok meza nagusia emango dute. Asmo txikiekin asitakoa, neurri aundiz jazten da. Erria, mixio-galgatan pil-pil. Otaño bi anaiak dabilta labea aizetzen. Kaleetan, argi, arko, lore, zintzilikaro, pankarta, idazkun aundi, mapa ta amaika apaingarri; ta gero igandeko prozezioa, indioz, txinoz, kolore guztietako itxuraz jantzitakoak. Etziran, ez,

"iñauteriak", maiatzako azken-igandea zanez. Alderantziz serioSKI, santuki, begirunez, otoitz eta kantu ederrez apaindutako mixio-prozezioa baizik.

Erria orrela irakiten eta lanean jarri dutena Otaño bi anaiak izan dira. Nunbaiteko liburuan urrezko lerroekin idatzita dago Azkoiti-ko erriaren iru eguneko Kondaira ura.

Gasteiz-en, 1928-ko azillean, ospatzen da Musika-ren Laugarren Batzar Nagusia. Zer esanik ez, Otaño izan dala Gidari.

1929. Eginu Gotzaiari Ongi-etorria

Don Jose Eginu Treku, erriko semea, Santander-ko Gotzai izendatu dute, ta lenbiziko aldiz dator bere jaioterrira. Otañotarrak, gotzai berriaren lengusu-lengusu izanik, nolaz parte ez artu, girotu ta gidaritu "ongi-etorri" artako jaialdi zoragarrian? Santa-Kruzetik Alzibar-araño erria pitxiz eta apaingarriz antz-irudiz aldatuta dago. Ezin esan-ala, ordea. Zeru-zati bat dirudi Azkoiti-ko erriak, otsaillaren Kandelariotan. Erria pozkarioz gaiñezka, ta ontzat emanaz egun artarako egin dituan gastu oparotsuekin.

Arratsaldeko bostetan, musikaldi saioa ere bada erriaren gozamenerako. Irukoite azkoitiarrak dagite. Pianoan, Otaño; biboliñean, Albeniz (Alamedakoa); abeslari, Garate jauna (Artxaixe) Meza Nagusian, erri osoak abestu du Reffice-ren "Missa festi".

1929. San Martin, auzo berria

Urte auetan irugarren Otaño bat ikusten degu bete-betean: Don Rikardo. Senideetan gazteena, Doña Kontxa Hurtado Menza, andre aundizkiakin ezkondua. Erriko alkate degu, D. Rikardo. Oraingoz auxe bakarrik esango degu. Gaurko Azkoiti erriaren plangintza berari zor diogula. Baita San Martin auzoa ere.

Udaletxeak, urte ontako maiatzaren 25-an erabakia artzen du: 99 bizi-toki, txalet-gisara egitekoa.

Etxegintza auzo-lanean eramango da. Jabegaiak 30 urtetan zergatxo bat ordaindu bearko dute. Epea menderatzean, etxeen jabe oso-osorik biurtuko dira.

Etxegintza bukatuta, estrena emateko Alfonso XIII errege bera dator, eta beste aundizki asko ere bai.

Oso goitik esan bearra dago, San Martin jasotzeko, azpi-lanean, gartsuki Donosti-n bizi dan soziologu bat ibilli dala, alkate jaunaren anai Aita Otaño.

1931-1939. Otaño osorIk azkoitiarra

Urtebete. Españi-n "errepublika" erako agintea eraiki dala. Jesusen lagundia eraso, jípoitu ta legez-kanpo jarria izan da. Jesulagunak sakabanatu bear izan dute. Asko atzerria dijoaz. Loiolako nobizioak, adibidez, Belgika-ko Mameffe urira pillon.

Aita Otaño ez da erbesteratu. Azkoiti-n, bere jaioterrian billatu du bizi-tokia. Azkenengo amar urte auetan maiz ibilli da erri aldetik, odolak bultzata ta, bereziki, leenago aipa ditugun eginkizun eta gertaerak ots-eginda. Donosti-n bizi-arren prest zegoen beti bere bi anai, Joxe ta Rikardori, zegozkien arazoetan laguntzeko.

Bost urte ixil xamarrean igarotzen ditu. Noizikan, bai, Donosti aldera dijoa, "Colegio de San Ignacio" ikusmiraz zaintzeko. Kale Esterlines orlan badu sendi bat oso ongi artzen dutena. Bestela, Azkoitin dago bizitzen, parroki-ondoko etxe batean, beste bi jesuitakin. Poliki poliki ta kontura gabe, liburutegi ta musika-idazkien altxor oparotsua osatzen du.

Garaiko gizona izanik, esan bearrik ez dago, Erljio ta Foru-zaleen aldekoiei

zegokionez, "integristaen" zerrendan arkitzen zala, Nozedal eta Senantes-en esanetara porrokatua.

Gerrate zibila pizten danean, lasai ta bildur-izpirik gabe errian jarraitzen du. Erria jatorra ta otañotarrak ere jatorrak. Alkarrekin zergatik biurritu? Apaiz eta eliz-gizonak sotana-jazkeraz dabilta kaleetan. Bestelakorik ez da pentsatu ere.

1939. Madrid-en

Militarrak guda irabazi, ta 1939-an Madrid-era otsegiten diote. Musikako Konserbatorio Realean lana egin bear du. Bat-batean Gobemu-aldetik agindua aritzen du, Ipar-Ameriketara joateko alegia, an Musikalogi Billera Nagusi batean Espaiñi-ordezkaritza azaldu ta eramateko. Gira-bira ori osatu, ta folklore-irakasle jartzen dute. Andik urte betera izenik eta egitekorik goitikoena ematen diote, au da, Aita Otaño Korserbatorioko Zuzendari Nagusi-nagusia izendatzen dutelarik.

Orduko gobernuarekin bere ar-emanak estu-estu ta bero-beroak dira. Tituluz, medallaz, gorespenez eta goratarrez betetzen dute. Musikari dagozkion goimailla guztietan nabarmen eta goraiatua geratzen da.

Azkoiti-ko erriak ere alako tituloz erriko seme bat ikusita, bere aldiko omenaldia eratu ta eskeintzen dio. Egun aukeratu ori, 1941-ko abenduaren 28-an izan da.

Madrid-en musikologiako Institutoa sortzen du. Gai artistikoen irakaskuntzak eraberritzen ditu. Beste Nazioekin erti-maillako ar-emanak konpondu ta bideratu ere bai. Ontarako ibillaldi luzeak dagizki extranjerioko lurralde guztietan.


Titulo oien zerrenda oso luzea dalako, azkenean, laugarren oarrean jartzen dizut, irakurle, letani "dizdiratsua" (4).

(4) *Ara emen, Otañok izan zituan tituloen zerrenda dizdiratsu ta miresgarria. Erderaz, jatorki idatzi bearko dira.*

*Hijo adoptivo de Escoriaza
Director del Real Conservatorio Nacional
Presidente de la Junta Nacional de Música
Presidente del Consejo Superior de la Educación Nacional
Miembro del Consejo Superior de Investigaciones Científicas
Presidente del Instituto Nacional de Musicología
Asesor del Ministerio de Asuntos Exteriores
Presidente de la Orquesta Filarmónica
Académico de Número de Bellas Artes de San Fernando
Consejero de Radio Madrid
Gran Cruz de Alfonso X el Sabio.*

(Jarraitzeko)

Jose A. Garate





"SORTITZANTZ-IAKINTZA ETA IZKUNTZERRIEN EDESTIA"

(Iruxo'tar Ander'en emazteak, MIREN ELENA ETXEBERRI'k lñaki Deunaren
iaietan, LAURAK BAT Batzokian emandako itzaldia) (1988).

Emen eskuñaldean dauzkaten bi lagun eskuzabalai, Etxe ontako Leendakari Iakituru Mendia'ri eta Iakintza-gizon Putxulu'ri esker bizenak eman bearrean nago egin didaten aurkezpen onengatik. Nitaz esan dutenaz ukaka asteke, aski zait itz bat esatea, ona, AUNITX ESKER.

Iakintza-gizon Putxulu'ri nentzuionean, gai au ongitxo ezagutzen duanez, beroni ortaz entzutea, ze atsegin izango litzaiguken oldozten nuan, biziki ongi gogoratzen bai naiz, Buenos Aires'ko Ikasguenetxeko ikas-iardunetan sartzeko ikaskizunetan genbiltzanean, batez ere Iakintzaen Edestietakoan, biraldakuntzaren egiustetaz iardun genduan batean, nola urtetean, iragan genituan Osakin-Eritegi-ko lorio luzeak ardailla bizian leen-gizaki eta Neanderthal gizonagandik asita, Kromagnon'gañaiño eta odol-saldo sortizantz-iakintzatik, rh eta Du eragillearaiño eta nola ateraiño iritxi giñan euzko-izkuntzerriaz mintzatzen. Ereti ontan idatzeraskiña, idazkia baiño luzeagoa izan zala esan zeiteken. Gure aurrekoai zegokien danon maitasarezko gur ori ezkeroz, ba dira dagoaneko urte sail batzuek.

Gaur, gure etxe ontan gagoz eta onek adoretzen nau, gure etxean aurkitze onek, zuekin gai ontaz mintzatzer. Izan ere, Putxulu Iakituruak aixtian zion lez, ausardizkotxo gertatzen da iakintza gaiez iosia dagoan Sortizantziztia bezelako antze-iakintzako gaiaz, era guztietako entzuleen aurrean mintzatzea eta antze-iakintzako izkuntzan ez baiño, mintzo arruntan ematea eta gaiñera iakintza oek, Izkuntzerrien Edestiari dagokionez aipatzerakoan. Onako ontan, lñaki Deunaren Eguna gomutaberritzeko eta ospatzeko egiten dugu, bere ikurritz bikaiñaren arauz "lainkoa'ren omenik aundienerako", gaur izaki bat izango bai dugu mintzagai, GIZAKIA (lainkoa'ren irudi eta antzirudia bai da) eta ona nola mintzatuko geran, izkuntzerrien osagarri lez gizakia artuta.

Bere langintzan izadiaren zatiak artesaturik izadia tipiltzeko gai diran ertilariak ba dira, baiña bearrezko batasunaz eta elkarkidegoaz egiten dute. Neure xedea loritzeko, artesar-lan ontan, ongitxo naiko nuke nik gai guztien elkarkidezko batasuna ardieste. Arturo Kanpion'ek, Arturo Kanpion iakitinokituak, bere "Euskarianas'ean, euzko iatorriaren gaiak ari dala ain xuxen ere, ikasbide askotako laguntzak, eraikilaniztikoak, giziztikoak, abendiztikoak, arrietao izkuntzatakoak, erkatele iakintzakoak, ipui eta aintziñako iatorrizko elertiko gaiak biltzen zituan euzkoaren ezagutzarako eta itzez-itz ona zer dion: "zirriborro narratx batez oiala narriortzeko bestetako gauza ez izatea tamala benetan". Auxe zion eta idatzi zuan bere "Euskarianas'ean Arturo Kanpion'ek, soizue une ontan ze izango dan ene kezka.

Leenik, sortizantz-iakintzako ikuspide batzuk aipatzen asiko gera bada, iakin-tza ortan, izan ere, ikasten bai dira sortizantzen zear, iarauntsi oi diran sorzuiñak eta erabilli oi dituan legeak. Izkuntzerrietako edestian, sortizantziztiak dituan era-giñak ezagutu aal izateko, ikuspide oiek ditugu bear-bearrezkoenik.

Sortizantzak nola iokatzen duten iakiteko, ain xuxen ere, Gregorio Mendel'ek irakatsi zizkigun legeak aipatuko ditugu, iakintsu orri ornen bat eskeiñiaz.

Silesia'ko auzoerritxo bat da, Brünn Kldsterplatz'en, lekaide iantziekin apaiz gazte bat da, baba eta illar esi bizi baten aurrean zutik, bere eskuak luzatzen, esi oriako osto eta loreak ikuitzen dituala dirudi. Idulkian, idazkun batek orla dio: "... Gregorio Mendel'i 1822-1884", eta beerago berezki: "iakintza-lagunek egiten dioten omena da au" —1910 urtean—, bi gazte agiri dira eskuak emanda, Biena'ko Txarlement'tar Teodoro ertzalearen antzirudikizun xorrotxa, ain xuxen ere, bizian iarauntsien lege oiek duten garrantzia iduritarazten digula.

Atxurdiñezko edo burdiñorizko oroiteraikintzak baiño, gaur egun, esanai aundi-goa dauka urie guzti oetan sorriizantziztian egin diran aztarnaketako ikaskintzak, atxurdiña bera baiño ere aundiagoko oroiteraikintza bai da. Baiña ez dago gaiñera alor ori mugaturik, ikasbide berri batek, sorriizantziztiko asmulangintzak eskeintzen digun guztiak, lege oien ezagutzeak eta abade onen lanak gizadiari eman dion aurrerapena aipatzen bai digu.

Mendel'ek irargitu zizkigun erizkizunai, ain xuxen ere, edestiko alorrek, argi berri bat ematen die —orain gai oetaz iardutean, agertuko dugun bezala—. Mue-taen biraldaketako iruzkiñak, gogoak iarrosi zitunean, iakiña ba ark bere lanak asiak zituala; "Mue-taen iatorriaz", Txarles Darwin'ek orduantxe argitaratutakoak, euntalako orri buruzko eztabaida sortzen du. Baiñan gizakietan ingurugiroak era-gindako aldaketak diralata, beroietan sortzen diran bereizkitasunak iarauntsiz iraungarri egiten diranik, Darwin'ek zion bezala, Mendel'ek, bere noriasun txit bereixiagaitik, ala ziranik ez du uste eta aldaketa oiek, bizibidea egokitzeko ziran arren, ondorengotan ez zirala agertzen eta xede ortarako, orixe bera azaldu-araz-teko, aukeratzen du aztarnaketako alor ori. Bein eta berriz, oiko euren girotik, ateratzen ditu landareak, lekoreko bizibideko aukerak aldatzen dizkie, aietan agi-tzen diran aldaketak zaintzen ditu, apainketako landareetan, eta ondoren, landare oiek ugaltzean, ondorengoak, aurrekoen inguru-girorako artutako bereiztasunak, ez dituztela iarauntsi ziurtatzen da.

1856'tik 1865 urtera, lanerako bere gaia ardura guztiz aukeratzen du; nione-neko aturatzaille zurrian, oartikasitarako gaiaren autaketa, endeluzkoa dala ongi-txo daki; orrexegaitik illarrak aukeratzen ditu. Soinbiziztiko sorzuin berexi berexi bat dutelako autatzen ditu, azilandareak izanik, eta berez ernalgarriak, atalernal-garriak brearen garostopeko altzoan gorderik bai daude, lekoreko ernal garau-tsatik babespetuta. Aukera onentxengatik, sortzez garbiko landare oetatik, berein mota dira. Eta beste zergatia, auxe da: azilandareok xixortzen diranean, au da, bi mota xaintik, banango ondorengoak lortzen diranean, auek ere ernalgarriak dirala. Oietatik, berein ondorengoak iarraian izan litezke.

Ogeitamar baiño geiagotako motatatik aukeratzen ditu, euren izantzak ikasten ditu. Eta gero zeatz eta mirrinki, ertilari baten igurdiziaz gaiñera, arrigarri ori lor-

tzen du, landareak eskuz ernaltzea; euren loren garazillatik, artean eldu gabe dagoan garautsa artzen du eta garautsale oiek, orrela ernaldu bear duan lorearen garatutura daramazki, ernaltze garbi baten ziurtzakin, oartikasiaren garapenerako zortzi urteren buruan ondorengo ernaldietan ere ideberrituaz. Eta bere xede guztia, xixtorren arteko ondorengoetan zer gerta dan iakiten iartzen du.

Apainketako landareen ondorengotan, izantzak, aindoiztiko oitzen zuan arabi-deaz beti sorizen zirala oariu zan eta orduantxe ain xuxen ere gertakizuna zenbatetsizera io zuan.

¿Gure iardukigaiatik ain urrun dagoala dirudian au zergatik iruzkintzen dugun? Ba, illarrakin egindako aurren aztersaio onek, ondorengo bi mendeltar izantza, argi ta garbi ikusten uzten digulako. Bat, sortizantzaren gaillentza eta beste alde-tik, atzeratutzitakoa, eta oso garbi azaltzen da sortizantzak xedatetsi dituan atzeratutzitako izantza oek, xixtor landarean ez dirala izkututzen, itxuraz baizik, "ez dirala kutsatzen" eta antxen daudela, alaxen noski, berexketazko azkubil ozigarriak ondoren bai baitaramazkite eta azkune mikatz ataltxo orrek, ondorengo batzutan, atzeratutzitako izantza ori, orrela garbiki araupetua, berriro azalduaraziko du.

Mendel'en oartikasi onek, illar oek euren lekoreko zenbait ikuspegitik berexkatzten zituan. Ala nola, adibidez, aien aziak biribillak eta legunak ba'ziran, ala izurtsuak eta ezberdiñiak; azi ala, xurtenak luzeak ba'ziran, ala motxak; aien lorea, usanduna, ala usaimentsa zan; ze margoak zituzten eta abar. larauntsiko iokabi-dea tipiltzeko, bakoitzaren izantzak eta aurkakoak ikasi bear dituala ongi oartzen da eta bakoitza batzun landare bezela ikasteko ez du ikusten, gaitasun bati begiratzen dio.

Bi mota garbiak, azi borobillekoak eta izurdunak gurutzatzen dituanean, gurutzatutako ondorengo leen danak, beti azi borobillekoak dirala ikusten du. Ikaskizun oien ondorengo bezela, izurdun izantza, atzeratutzia dala eradokitzen du, aurren azaldian "izkutatu" egiten dala, azietan ez dala agertzen eta aitzitik, beste izantza, borobilla, garailea dala oitzen du.


AGERTUTAKO MOTA EDO AGERTU DAN IZANTZA	IATORRIMOTA	AUKERAMOTA
Azi biribilla	R ; R	ernalozimiñidea (1) edo garbia
Izurdun azia	r ; r	ernalozimiñidea (2) edo xaiña

arrautxobotik kaduritik
datorren datorren

(1) Mota ontako landareetatik, euren artean gurutzatuta, beti azi birillak (100%) lortzen dira.

(2) Mota ontako landareetatik, euren artean gurutzatuta, beti azi izurdunak (100%) lortzen dira.

Ona mota garbietako (1) eta (2) oen gurutzaketa:



Aurren iatorria
edo etorkia.


AGERTU DAN MOTA
azi biribillak (100%)

IATORRI MOTA
Rr (3)

Ernalozimiñideza, xixtorra
edo naasia (100%)

Baiñan gero, aurren etorki ontako xixtorrak edo ernalozimiñidezak euren artean gurutzatzeko lanean iarraitzen du Mendel'ek, bata bestearen ondorengo soruntzatan. Ondorengoetan auxe oartzen du:

Rr (3), mota oen euren arteko gurutzaketa:



2'garren etorkia

AGERTU DAN MOTA	IATORRI MOTA	MOTA
BIRIBILLA	RR (25%) Rr (50%) rR (50%)	ernalozimiñidea ernalozimiñidea ernalozimiñidea
IXURDUNA	rr (25%)	ernalozimiñidea

Azi borobillen eta ximurren lainta zeatz-zeatza, iru eta bat, lortzen du. Ondorengo etorki berri oetan, ixurdu izantza ez da galdu, azkubil ozigarrietan sortizantzak berexkatzen dira eta urrengo etorkian (bigarrengoan) eta ondorengoetan aurreneko etorki artan itxuraz "izkutatu" zan ixurdun izantza, ostera ere agertzea lortzen du. Izantzaen berexketako legeaz azaltzen du Mendel'ek sortizantza onen iraupena. Ala ere, lortutako iru ondorengo oek, borobillak diruditen arren, ez dira berdiñak: RR, biribil xaiña edo ernalozimiñidea da, bere sortzaille biribil mota bakoitzarengandik, izantza au, bi osatxortatan artu dualako; Rr eta rR, biribillak dira, baiño ernalozimiñidezak, xixtorrak edo naastuak, biribil izantza (R) ori, garai-le bezala iokatzen sortzaille biribil bakar bategandik artu dute.

Ez dugu aantzi bear oartikasizko saio mota oek, 1856 eta 1865 urtean artean egin zirala; Mendel'en legeak galdu egin ziran, ez ziran aintzat artuak izan; 1866'garren uriean ark argitaratzen ditu; eta 1872'garren urteko "Motaen Sor-kuntza"ko seigarren argitaldian ain xuxen ere, auxe dio Darwin'ek: "Ondorengo


belaunaldian aitasokera erabakitzen ari diran legeak zein diran ez dira ezagutzen, zerk eragin lezaken edo egiten duan, adibidez, seme batek aitita edo aitaso baten ezaugarrizantzak izan ditzan", ona bada, Mendel'en lanak zearo ez ditu ezagutzen ark. Ezagutu izan ba'litu, mende orren azkenean, ziur aski, iraultza bat izango zuan biziztiaren alorak, ezin obeki ulertzeko besteko adimena bai zuan gaiñera, baiño, ondikoz, ez zan ezagutzera iritxi. Mendel'ek ostera bai, 1860 urtetik 1870'ra Darwin'ek argitaratutako guztia eskuetan zuan; Brünn erriko Agustindarren lekaidetxeko idaztitegi ortan agertzen dira idaztune oiek Mendel'ek bere eskuz iarritako zenbatu eziñezko ertzoarrakin.

Xixtorren arteko ondorengoa ziurpetutzen du Mendel'ek eta azkeneritziak ateratzen ditu. lakingarrizko bat, batez ere, iasotzea dagokigu, au da, sail batean beti xixtorrak gurutzatzen diranean, edo euren artean naastuak, xaiñak edo ernalozimifiñideak ugaltzera jotzen dutela, xixtorrak ostera, izkutatzera edo gutxitzera, erabat iñoiz ezkututzen ez diran arren. Gizabiztanleen ezagutzarako odol motaen ikaskuntzak egiteko, auxe da euntalako garrantzizko iakingaia. Guk au xaloki gimixikatuko dugu, dagoaneko zentzurik ere ez bai zukean izango nolarebait leenago ez ba'genduan aipatu. Odol sailleen iarauntsiakin zuetako edonork egin aal izango du illarrakin tipildu duguna gogoratzearekin, oso ulerterreza bai da, gure egitazko bizitzan ere, ezagutza oiekin danok oikatzen bai dugu. Aindoiztian berriz zaletasun apur bat ba'leza, bai ta ondore ber-beretara are iritxi aal izango da, iru eta bat laintara Rh iarauntsian, ernalozimifiñidezaen gurutzaketan; eta baita onetara ere, aindoiztitz ziurtatu litekela gai xaiñak ugaltzera ioko duala eta xixtorra berriz, izkutatzera, iñoiz orratik erabat izkutatzeko, aindoiztiko guenaren erizkizuna darabilkigunean bezala.

Oraintsu batean, 1900'garren urtean ezagutu ditugu odol eringoak, Lansteiner'en (anei esker, aien bidez araberrakatu aal bai genezazke gizakiak A, B, O, eta AB sail banangoai dagokienez; eta ondoren, 1940'garren urtean ezagutu zan Rh = hr araubidea; orain barritan berriz, 1941 - 1942'garren urteetan, gizakia- ren egoera iakin batean izan lezazketen garrantzia, beti ere epe txiki bat, luzeago edo motxagoa izaten bai da iakintzako aurkikuntzak itzargitu genezazken bitartean.

Jons Hopkins University'ko Pearl'ek, 1935'garren urtean, atzeratutzien deituta- ko gurutzaketak egiten ditu. Drosóphila deituriko igali eulia erabiltzen du, 10 egunetan bere biziztiko epea burutzeko berexitasuna bai du; 15 urte luzeetan, bi motatako euliak sortzen ditu: oizko egalduna bata (N) eta azkaiztuzko egalakin bestea (a). Oizko egalen izakera erabakiko duan sortizantz, atzeratutzia lez gelditzen dan azkaiztuzko izakerari dagokionez, garailea gertatzen da.

Araubideko egalak dituan bat aukeratzen du gurutzaketa egiteko (Na) ernalozi- miñideza eta bestea (aa) azkaiztuzko egalakiko xaiña edo ernalozimifiñidea. Eta ona zer lortzen duan:



Gurutzaketa mota onek, araubidez, ondorengo bat du 1:1, araubideko egalakiko eulia eta azkaiztuzko egalakiko euliak; aurrenekoen iatorri mota, eunetan berrogeitamarkoa (Na: 50%) ernalozimíñeza da eta bigarrengeena, eunetan berrogeitamarkoa (aa: 50%) ernalozimíñidea. larraiko ondorengotan eta irureun belaunaldietan, berriz eta berriz, amabost urteko ioanarian, auxe bera egiten du.

Aztersaio oetatik, ona zer oartikasía lortu aal izan duan: sortizantzak, ernalozimíñezakoetan ere irauten duala; sortizantza au ez dala "kutsatzen", ez dala garailearen alboan ere bere atzerako izantzaz izkututzen, ez azaltzera egiñaz, azkuneko ataltxo garratz oiek aditzerat emango dute eta amaigabeko belaunaldietan, irautera oiko dute, izantzeren sortizantzako berexketaz biribilmota bakoitzara (ernalozimin bakoitzara) aldatuko bai dira.

Zergatik aipatzen dugun orain Pearl'en lan au? Zer agitzen da oartikasi au 300 belaunaldietaraiño gizakietan eramaten ba'dugu? Gizakiak 100 urtetan, 4 belaunaldi lor ba'lezazke, 300 belaunaldiek, 7.500 urte io bearko lituzkete:

$$\begin{array}{r}
 4 \text{ belaunaldi} \quad \text{-----} \quad 100 \text{ urte} \\
 \qquad \qquad \qquad \qquad \qquad \qquad \qquad \qquad \qquad 100 \times 300 \quad 30.000 \\
 300 \text{ belaunaldi} \quad \text{=====} \quad = \quad \text{=====} \quad = 7.500 \text{ urte}
 \end{array}$$

Iarauntsiko legeok, amairik gabe, beti bardin eta aindoizti-eraz betetzen bai dira eta bata bestearen ondoren mota guztietako sortizantzakin gaiñera, aurreko adibidezko gizakiari arauok egokitzearekin, 5500 urteko Kristo baiño leenagoko garaietan agitako gertakizunak itzargitzeko aalbidean iarriko giñake.

Iratio-tresnaren laguntzak gaur ba ditugula gogoan artuta eta legeok aindoiztiko arauetara biurtzen ba'ditugu eta biztanle iakin baten sortizantzaren sarritasunatik loriutako txoxtena iakiterik ba'geneza, Mendel'ek tipildutako iarauntsiko beti berdin iarrantzen duten legeak iarauntsiz iasotako izantza iakiñak ikasten ba'ditugu araubide au erabilliaz, biztanleen sortizantzako ikaskizunak egiteko, uste eziñezko aukerabide bat izangu genduke. Beraz, orain bai esan gentzake gaurregun giziztizaleak, sortizantzako sarritasunen arabera, edo sortizantzaen bidez, biztanleak tipiltzen dituala.

Ezagutza oen irozkai bezala, iraduz, odol sail oen iarauntsia aipatuko dut.

Mendel'en legeak azaldu ziran urtea (1900'garren urtea) ain xuxen ere izan zan ostera ere azaldu ziran urtea, une "eldua" itzargitzeko eta ezagutzeko (ain une egokia zan izan ere, iru toki ezberdiñetan berriz azaldu bai ziran, iru aturaztailleen bitartez, De Vries, Tschermak eta Corremis); odol sailen iarauntsia ezagutzeko erabiltzea azkenik. Etxeko izkuntzan ere noiznai edonork entzuten du: "aita aldera io du" "amaren zaiñak dautso" "ez du nire eitea iarauntsi, aitarena baizik", batengandik ala bestearengandik iarauntsi duan odol motaren arabera. Ondorengo bakoitza edo semea, iatorri buruaren ekarria da eta bikoitza azkubillazkuneko gai bakoitza, sorle bakoitzagandik dator, bien artean bakoitzak biribil mota bat.

Gizaki bat A, B, O edo AB saillekoa dala diogunean, izantza orren agerpenaz ari gera. Izantza baten biribil mota, odol-sail motakatze ontan, adibidez, aurkako gatzunakin zeaztatzen da.

AGERTUTAKO MOTA EDO MOTAGERTUA	IATORRI ZOZOKOA EDO IATORRI MOTA	
A	A ' A A : 0 (1)	ERNALOZIMIÑIDEA ERNALOZIMIÑIDEZA
B	B B B 0 (2)	ERNALOZIMIÑIDEA ERNALOZIMIÑIDEZA
AB	A : B	
O	O O	ERNALOZIMIÑIDEA
	BIRIBIL ' BIRIBIL MOTA ' MOTA AMAGANDIK;AITAGANDIK	

- (1) A, atzeratutziari dagok¹onez, garaile lez agertzen da.
- 2) B, atzeratutziari dagokionez, garaile lez agertzen da.
- 3) A eta B, garailekide lez agertzen dira.

(Dugern eta Hirszfild - 1910).


Au orrela, A sailleko gizaki bat, xaiña edo ernalozimiñidea edo ernalozimiñideza (xixtorra edo naastua) izan liteke gurasoengandik artu dituan izantzaen arabera. Aitamagandik A izantza artu ba'du, xaiña edo ernalozimiñidea izango da, baiña bategandik A eta besteagandik beste bat artu ba'du, aukera ontan O izango litzake, A eta B oien aurka-sorlea bai da, xixtorra edo ernalozimiñideza izango litzake. Aldiz, B saillekoa dan gizakia xaiña edo ernalozimiñidea edo ernalozimiñideza izan liteke. O saillekoa dan gizakia, era ontara bakarrik izan liteke xaiña edo ernalozimiñidea, aitama biengandik O sortzen duan sortizantza artu dualako eta AB sailleko gizakiak, sorle bategandik A eta bestearengandik B artu ditu (aukera ontan bi izantza oek, garailekide lez agertzen dira).

Orregatik, 1910'garren urtetik eta 1924'garrenetik, Dugern'ek eta Hirsfeld'ek, Bernstein'ek bezala, odol sailleko iarauntsi legeak ematen dizkigute eta ona zer dioten:

1) A edo B sailleko gizakirik ezin sortu liteke, guraso sorle batek beintzat izantza ori izan ezik. Eta aldiz, izantza oiek guraso batek izan arren, ondorengotan ez azaltzea gerta liteke. Atzeratutzikoari buruz, A edo B saillak garaile bezala iokatzen bai dute.


2) Eta Bernstein'ek ondoren, bere legean auxe dio: "O" duten gurasoetatik, AB "semerik ezin sortu liteke" (guraso artean bat soillik izanik ere). Eta "AB'ko gurasoetatik, iñoiz ezin sortu litezke O semeak".

Ernamingarrizko aazkubilletan "berexutako" A eta B, izantzak, bat naiz bestea, semeetara iragan litezke; "izantzaen berexgarritasun" mana orren bidez, gurasoetako bat AB ba'da, seme danak edo A daramakite edo B. Orobat, aita bat 0 (00) danean, ernalozimiñidea izanik, semeeri O izantza besterik ezin lezaieke eman.




Aurren belaunaldi au, A (eunetan 50%) edo B (eunetan 50%) bezala agertzen da, baiña danak xixtorrak edo ernalozimifiñidezak dira, AO edo BO, eta orrek ona zer dion. Bere ondorengotan O izantza agertu litekela eta orixe adierazten digu Dungenr'en eta Hirszfild'en legeak, "A edo B diran gurasoetatik, euren semeetan izantza oiek ez agertzea geria litekela", dionean.

Au agertzen duan adibidea, ondorengoetako bi ernalozimifiñezak dira, bat A (AO) saillekoa eta bestea, B (BO) saillekoa.




Gurutzaketa ortatik, O ernalozimifiñide semeak (eunetan 25'etan) sortu litezke, A (AO) semeak, (eunetan 25'etan) ernalozimifiñidezak, B (BO) (eunetan 25'etan) ernalozimifiñidezak eta AB semeak, (eunetan 25'etan). Adibide au zuek artu eta euren artean AO eta BO gurutzatzen ba'dituzute, iarraikiko ondorengotan, ondorengo bakoitzaren artean, ondorengo onen aindoiztiko iarraiko laintak ateratzen ba'dituzute, ernalozimifiñideak edo xaiñak nola ugaltzera jotzen duten ikusiko duzute eta xixtorrak aldiz gutxitzera, erabat iñoiz ez izkutatu arren.

Rh eta hr araubidean ere, ondorengotan legeok iarraitzen dute. Mendel'en illar biribil eta ixurdun adibideko izenlerroa erabiltzen da era berean. Irakaspede laburpen batean, Rh baiezkorraren azterbidean, (R,) araubidearen aldabide bakarra gogoan artuko dugu.



(leen belaunaldia)



(bigarren belaunaldia)

Rh baiezkor izantza mota duan gizakia, ernalozimifiñidea edo xaiña (R, Ri iatorri motakoa) izan liteke, ala xixtorra, ernalozimifiñideza edo naastua (R,r'ko iatorri motakoa) sorle biengandik baiezkor izantza ori (R,) artu izan duan arabera, ala biribil izantza mota duan sorle batengandik baiezkor izantza (R,) eta bestearengandik aren utsunea (r).

Baiezkor izantzak, aren osagaietako edo aldagaietako batean (Rh^o) aren utsunea utzi duanari dagokionez (rh), garaile bezala iokatzen du. rh ukakor izantza

mota duan gizakia, ernalezimihidea edo xaiña da (rr). Rh-hr araubide ontan, beste iatorrizko araubideetarako tipildu genituan bezala, xixtorren euren arteko gurutzaketaitsuak, izantza xaiñak geitzera jotzen du eta xixtorrak gutxitzera, oreka batera eldu arte.

Gutziz ezberdiñezko lekoreko eragiñangatik edo aldaketaengatik, iatorrizko iobera au eten liteke. Gertaera oek orratik, guztiz bakanak dira, noizbeinkakoak eta ez oso sarritakoak; azkune garratzako ataltxo nimiño baten aldaketan egoten dira, baiñan sortizantzako aldakuntza orrek aurrerantzean iraunkidin liteken gai bati bidea ematen ba'dio eta gaiñera sortuberritu eta ondorengoak lortu, (gerta liteken aldaketa) gizakietan, taldeetan (sendietan eta errietan) izantza berri baten agerpenakin aurkituko gera, endaki bat-beraren barnean ere, aldaketa orri irau-naraziko diotela.

Egiustekizun batek, leenengoko gizakia O saillekoa zala jotzen du; gaurregun erririk zaarrenetako bizirik dirauten ondorengo garbiak edo xaiñak, garaile agiri dala O sailleko odola daramakite; unereren batean sortuko zan aldaketa, goxaki-zuringoki berri eta bestelako baten agerpenakin, A sailleko eta B sailleko gizakien agerpena sortzeko, odol-goronbillo gorrietako mintzan, orrek egiten bai du aldaketatxo nimiñoa. Orlako zerbait gertatuko zan M bezelako eta ondorengo araubideko MN saillekoai dagokienez ere. Goronbillo gorrietako merdolatan agertzen diran sortizantzak xedatutako kutsu oiek guztiak dira odol sailleko edo goronbillo gorriko banango araubideak berexkerazten dituztenak eta oietatik euntalako mota- aukerak dira. Eta mendeltar iarauntsiko izantza oiek, goronbillo gorriak bezelako odol ataltxoetan ez ezik goronbillo txurietan ere aurki litezke, baita mintzatan edo mintzak ez diran ataltxoetan ere, au da, zuringokietan (artzigai-kietan, zuringoronbilotan eta abar) aldi berean airei edo azkubil barnetan (adibidez, ala nola odol-zuringoronbillo eta azkubilletako odol-goronbillo artzigaiki zenbait).

Gaurregun, gizasaillak eta erriak euren odol motaren arabera (gerkerako hemotipologia) zeaztatzeko, banango sortizantzaen sarritasun aundiako aldaketa oek emango diote bidea giziztilariari eta baita beraz, gizarteko bezelako endakian, banango odol motak lagunduko digute gizasailpekoak edo endak berexi aal izaten ere. Odol mota au, aldaezihoko eta irmoko izate bat ez dan arren ze garaie-tan eta giro-tokitan zeaztatzan dan atxikirik egongo zaizkio zenbait sortzuin.

Jean Bernad'ek dionez, gizaiztilariak, gizaki saillak ikuspegi eraginkor eta aldakor batetik ikasi bear ditu. Ikusi genduan ez, aien sortizantzako gaiak geien batean aldakaitzak diran arren, aldakuntza zenbait iasan lezakete eta orrek, bizi dan ingurugiroan oituzeko, gizadiari gaitasun aundiagoa ematen dionean, iakin-min berexia sortzen du. Egugiroaren eragiñok, txit banangoak, irauten ba'dute, oreka billa abiatuta, sortizantzako aipa ditugun ioberak aldatu egingo dituzte eta orrela, berezko aukeraketako elantzak eragiten dituzte eta eragin orrek, gero adibide batzukin ikusiko dugunez, gizaki oiei sortzuin berri bat emango diote.

Tankera oetako aldaketa batek, sortzen ditu odoleko zuringokiñaren mukulluan ezenbait aldakuntza, era ortara odolzuringokietan gaitza sortuz.

Orlako sortizantzako aldaketa bat izan duan biztanlegoa, bere gizakien geien-goan, oiko zuringokiña izan orde, bere egituran, beste aldakuntza batekin aurkitu da; aldakuntza au guztiz xinglea da, batzutan zuringokiñen estuntzatan, gatzuaskiñezamin bat, beste batez, tokiz aldatzea besterik ez da izaten. Onen ondorena ona zer dan: Odolzuringokin au daraman gizakiak (aldi berean bere semeak"iarauntsiko bai dute, dagoaneko iarauntsitzen dan eta irauten duan aldakuntza bai da) oizkoak baiño gutxixego iraungo duan goronbillo gorriak izango ditu. Baiñan gizaki au zingirasukarra edo padureria dagoan giroan bizi ba'da zer gertatzen da? Oizko odolgoronbilloa duana baiño aldebidet aundiagoan dago oiezkoa duan au. Zergaitik? Bizkargin zorri orren aurkarako, bere goronbillo gorriak indartsuagoak diralako. Alakotz, odolzuringokin gaitzaren aurkako sorti-

zantza ori daramaten gizasaillekiko biztanlegoak, erri-telestiko iraunbide baikorra-
goa darama edo ez daraman biztanlegoak ez bezala, biz luzeagoa izango du.
Alakotz, odolzuringokin gaitzaren aurkako sortizantza ori daramaten gizasailleki-
ko biztanlegoak, erri-telestiko iraunbide baikorra darama edo ez daraman biztan-
legoak ez bezala, bizi luzeagoa izango du. Eta ona ondorena: Ernalozimiñide-
koak diran gizakiak (ernalozimiñetzaz geniona gogoan artu gero), au da, aitama
biengandik oizateko odolzuringokiña artzen dutenak, zingira gaitz orren ondorioz,
ez dirala bizirik errez urteten. Osasuntsuak izanik ere, ernalozimiñideak diran
gizakiak, oizateko odolzuringokiña ez ba'daramate, zingiragaitzaren ondorioz,
ezta ere ez dira bizirik ateratzen iñola ere, "plasmodium falciparum" igitai antze-
ko ailla duan eltxoa dabillen lurraldetan batez ere, zingira sukar ilgarria sortzen
bai du eta adibidez ona zekin aurkitzen geran: Ludiko enda baltzak bizkarroi
orren aurkindarra lortua daukate, aien artean ain zabaldua dagoan sortizantzako
sortzuin baten iabe bai dira, oizateko biribil odolzuringokiña, ala nola izan liteken
S odolzuringokiña, Aprika zear biziki edatua, "konkorridi bide" barna doana, ain
xuxen ere, au da, eiztarien lekutaldaketa zear edo Aprika'ko iparsartaldeko C
izan liteken odolzuringokiña. Eta orrela erri bat ba dala iakingo dugu, edestiko
erria, eta beste oizateko odolzuringokin baten ezagutzak, E odolzuringokiñak iku-
siko dugu nola laguntzen digun erri-edesti ori ezagutzen.

Asia'ko iparrekialdean, ba da biztanledi bat Khmer deritzo; izkuntzaz Mons-
khmer saillari dagokio. Gaurregun, Indotxina'n bizi da, ia biztanlez galdu-etsia,
Kanboia'ko lurraldera baztertua. Erri onek, bizibideko berexetasunik nabarienak
bezela, eraikilaniztiko oroiteraikintzak ditu, guztiz iakingarriak, Angkor Vat'ko iau-
retxea bezelakoak, Angkor Thor'en iauretxea. Almentza aundi bat izan zuan ain-
tziñako erriazkuntzaz mintzatzen zaizkigun iauretxeak dira, boskarren mendean
zabaltzen asia eta gorabiderik nagusiena, gure zutuko bederatzigarren, ameika-
garren eta amabigarren mendeetan izan zuan eta gero, amaboskarrenean, izku-
tatu egin zan.

Gizasail txiki au, guztiz txedemugatua, baiña nabarigarri, Kanboia'ko baxter
ontan aurkitzen dugu. Baiña, bere bizi barna, bere erriezkuntzaren ezaugarri erri
onek soruia, Asia'ko iparrekialde guztiko lurraldera edatzen da, Khmer ertilaneko
eraikintzak antxe bai daude Malasia'ko lurraldetan eta Malaia'ko zenbait ugarte-
tan. Borneo'n, Laos'en, Bietman'en, Tailandia'n, au da, basatxagan eta oso saka-
banaturik; antxen daude eraikintzok, erri au euren lurraldeetan, oraintxe baiño
ere zabalduagoa zegoala guri gogorazten. Erri onen edestia argitzeko, odolmota-
iakintza onek, nola laguntzen du?

"Edestiaren lekuko eta zuzendari odola dala" diote Jean Bernard'ek eta Jac-
ques Ruffie'k.

Odolzuringokin berri au, E izena daraman au ba zala, 1957'garren urtean,
Lucien Brumpt'ek lenengoz tipildu zuanean, Asia Iparrekialdean ain xuxen ere,
gizaki lainta aundi batek ba zualazkoakin aurkitu zan. Oizateko motako odolzu-
ringokin au, beste batzukin agi oi danez, Ameriketa'ko bertoko biztanleen bakar
batek ere ez dauka, mota ontako odolzuringokin-gaitza daukan bertokotar edo
bertoko iatorriko ameriketar bat bakar bat ere ez da; Europa'n ere ez da aurki-
tzen eta E mota ontako odolzuringokiñik, Aprika'n ere ez da billatzen. Ba da bai,
beste erri-azkera batean, moi azkeran, indotxinako lurralde ori ain xuxen ere, biz-
tanleztu duan indi iatorriko talde bat eta aldakuntza batean egin-egiñean, odolzu-
ringokin bertzegitza ori orrek dakar. Eta moi erri onek, txinatarrakin eta khmer
beroiekin ere izan dituan elkarrinkundeekin zer agitzen da?.

Ulurraldean txinatarren burruasterasoak izan dirala guk ba dakigu, mongoltar
saillen garrantzi guztizko erasoak dira, egitazko giz-uoldeak, ala ere, Khmer erri
orrek aurre egiten die eta orixe dirau. Bere aginterriko indarrak bakarrik erabilliaz
gertatu ote zan suntsitua ez izatea edo bere ulurraldetatik ezin oildua? Ez, sun-
tsituak zergatik ez ziran izan edo euren ulurraldetik oiltuak, gaurregun sortizan-

tziztiak irakasten digun zantzu bat ba da. Gorkurako mendietaz mintzatzen da Jean Bernard eta doi-doi Khmer erri onek mendietara eurt egin zuan antza guztiak ditu. Erri onek, odolzuringokin-gaitza du, baita moi erriak ere. Ez dute orratik Ipar Txina'ko biztanleek. Padureria sortzen duan izurrieltxo izositako eta aintziraz betetako alderdi oetara erasozeleak irixten diranean, eldu diran biztanle ostetzak, ango lurgirora oitzeko eta bizirik irauteko, moi eta khmer beste biztanle oen aldean, ezberdintasunik aundienean daudela iakiña ba. Gertakari au, guztiz jakin-garria da. Mendietako aurkintza oetan, India'tik etorri zan Khmer erri onen erasoen ondoren, moi biztanleek bizirik diraute eta biziztiko kalte-zaintza ori, odol zuringokin mota ori Khmer erriak ere ba daukalako, aldiaren ioanarian, bizirik dirau; eta ona zer azaltzen duten Brumpt'en ikaskizunak: odolzuringoki orren irautea, Kanboia'ra baztartuxerik aurkitzen dala, erribiztanleen artean, eunetan 30-40'ko laintatan; ingurualde bat ba dala, odolzuringokin au ango biztanleek, eunetan 30-15'ko laintatan daukatenak, Bietnan'go ekialdeko erki zati batzuk arzen ditu ingurualde orrek, Laos'en ingurualdea, Thailandia eta Malaia'ko alderdi bat. Ala ere, aundigoko zabaleran ba da lurralde bat eunetan 5'ko laintakin. E odolzuringokiña zabaldua dagoan iru lurralde oen muga berdin-berdiñetan zeazki daude zabalduak gaur izkutatuxe io genezaken Khmer oien erriazkerazko erakintziztiko arginlanak. Kanboia erriko karrika batzutan, enparantzatan eta azokatan bakarrik ikusi genezazke biztanle oiek, baiño baita ere aurki genezazke iau-rete oietako ormatan, arlaxarte eta galatzatan, antxen agiri bai dira baserritarrok alorlanak egiten gurtigun apaiñakiko euren idiorgakin. E odolzuringokin kutsu aundiko baserritar oiek berberak dira, gaur basatxagan galduta, Khmer ertiko eraikintza oietan iraungarri agiri zaizkigunak eta an nola dauden galdeka ari geranak, erri orren aztarnak ere ia galdurik bai daude. Erran genezake bada, gaurregun izkutatzera doan, baiño iraun naiko luken erri bat izan zala iakiten, lekuko egiñaz eta sendetsiaz, sortizantzako ikaskizunak ain xuxen ere laguntzen digutela, baita erri orrek bizitzeko artu izan zituan lurralde-mugak noraiñoakoak izan zituan iakiten ere.

Beste argibide bat ere izan dezagun, amerinditarraz, bertoko inditarraren iatorriaz ere zerbait aipa gentzake. Aren odol motaren ikaskintzak egin ondoren, amerinditarra, geien batean, Asia'tik etorritako taldetik duala sortze aitor liteke. Oraindik ere or diraute, Asia'ko biztanle talderik aintziñakoenen ordetidezkoa egiten duten bakankako sailtxo oiek, (bakarturiko mogol taldeak, Ekialdeko Siberia'n, lapon Iparraldean, Hokkaido'n) amerinditar bizikurtendako zaarren-zaarrena-kin eta garbienakin, (eskimal taldeak, Alaska'ko Iparraldean eta imanak Egoaldean, Suketako Lurraldean) arrigarrizko idetasuna daukatenak.

Egiustekizunka, urte txit luzeetan iardun da; zein zan amerinditarraren sor-iatorritzaz, banango ustekizunak izan dira. izugarrizko ixterraburu multzoak; sortu diran eztabaida eta eskatima biziak; peit diran idatzagiriak, azken urte auetakoak bai dira, au da gaur-gaurkoak, adi-adi iartzen ditu aturatzailleak. Erri-iakintza batzuetaz, ala nola maiatarretzaz, bakarrik aurkitzen dira eta oso gutxi gaiñera, ez orratik bafu ere Andesaldeko bertokorretzaz eta Peru'koetzaz Egia da bai, arkuxlanak oso gutxi egin dirala, ain zabaldi luzeak Ameriketa'n izanik, perdats ori nabarmengarria bai da. Eta beste ezin sinistuzko nabargarritasun bat auxe da: Ameriketa'n, asi Ipar muturretik eta Egoalderaiño bizi diran biztanle guztien azpegi eta aldin aukera; ainbat izkuntza (Ameriketari Babel lurraldea deitu zaio) eta izkuntzen aukera aundi au eta mintzatzen diran gizakien banango azpegiak, aien soin kaizua, aien gorputz karantza, mutur banako erri-iakintzak, menasten urtunaasketa dagiten erri-azkera, idazkera eta egutegia dutenengandik asita, ala nola maiak eta aztekek, gure garaietan dirauten banango erri-azketaraiñoakoak, adibidez eskimalak Iparraldean eta Egoaldean Suketa Lurretako talde batzuk, ala nola

iamanak, arri-aroko erri-iakintza motakin bizi bai dira gaur egun ere, bizi-irape-nerako eiza bearrezko zaiela, lurlantzen ikasi gabe, oraindik ere edesti-aurreko garaietan bezela daudela, mutur banako aldeak eta nabargarritasun aundiak.


Baiña odolmotaiztiko ikaskizunak zer dio? odolaren iarauntxiko izantza bat bezala, orain gogoan artuko dugu odolzuringokiñaren ikaskizunak eskeintzen digun txoxtena.

Ameriketako bertokotarren artean, euren artekotan bakar batean ere, asi Iparretik eta Egoalderaiño, lidipuru aldeko azkenengo eskimaletatik asita, Iparraldeko Suketako lurretararaiño eta aruntzago ere, bat bederen ez da odolzuringokingaitza, au da, odolzuringokiñeko mukulluan aldaketa oiek dituanik. Ala ere, aldaketa au, amerikatar bertokotar oiek datozten mogol biztanleetan ba da alta. Bai ba, erizkizunok odol-iakintsuek darabizkitenean, eguntziztiko bideak artuta, aurreagoko 40.000 eta 50.000 urte garaietaraiño iritxi bai liteke. Oso besterik noski soin-giziztiz eta soin-itxuriztiz aipa gentzazken 20.000 eta 10.000 urte oiengadik. Alakotz, gertakizun iakingarriekin aurkitzen gera. Bai ba, adibidez, odolzuringokiñaren E gaira itzultzen ba'gera, odolzuringokin au noiz agertu zan, egunlerroizti bat bai bai dago. Eta berri bat ona nola iakin liteken: X'garren mendean, Madagaskar ugartea, biztanlez berritu zuten malaiatar giztalde batzuk, Asia'ko Egoeuzkialdeko odolzuringokin ori ez zutela ekarri, bai orratik XVII'garren mende aldera etorri ziran batzuk. Beraz, izantza ori ba'zan ala ez, leen izan ez eta orain bai, noiz agertu zan aldaketa ori ederki adierazten digu. Aukera ontan, guk gaur, ameriketar gizakietan aurkitzen ez dan odolzuringokin-gaitza, mogoltarren artean ba daukagu. Gizakiaren aurren aroalditan egin ziran biztanle-tokialdaketak esaten ari zaigu iazoa. Au bat-batera dator garai batean esan ziran egius-tekizunakin, alegia, egugiroa gordinduta, otzaz leiarturik, gaur urpetan dauden eta Behring'go Itxasarte izenez gaur ezagutzen duguna, urak karroinduta, zerrenda eskon eta gogor bat biurtu zala, beraz, andik zear, Iparretik Egora 100 aneurkingo bitartea besterik ez zeukatenez eta 60-70'tik gora, Ekialdetik Izotzaldera, bitarte ori igarotzea erreza egiten zitzaiea. Au ola zala eta orain dala 40.000 mila urte aldera, gerogo ez, ezta ondoren ere, gertatu zitekela esateko ze egiantzak dauzkagu? Amerikar gizakiak, batzuk ezik, ABO araubide barnean, O gaikia soillik dauka. O taldekoa da beraz, amerikar bertoko biztanlegoa. Guztiz xaiñak eta talde garbiak dirala onek esan nai du. Sortizantzari gagozkiola, aipaturik daukagu, ulerkaitz egiten zaigu, baiña alaxen da, beste lekoreko eragiñik ez danean, ernalozimiñidezaen edo naastuen arteko gurutzaketak, garbitasun edo xaintasunera iotzen duala, artebitarteko ernalozimiñidezaen sortizantzako motaen gutxitzearekin; ernalozimiñideak, lekoreko eragiñak ez diranean, sortizantzaren sarritasuna ugaltzera iotzen du.

(Jarraitzeko)

Miren Elena Etxeberri





EUSKERAZKO AKATSAK ZUZENTZEN

- 1.—Bi buruek itzaldi bana emanez (EITB 89'go - V - 1'ean)
Itzaldiak eta mintzaldiak EGIN EGITEN ditugu euskeraz.
- 2.—Laiño txikiak izango dira batez ere ballaratan (EITB, 89'go - V - 1'an)
Ballaratan ez-baiña, aranetan, ibarretan, mendarteetan...
- 3.—Erantzun zintzoa eman du... (EITB, 89'GO - VII - 24'an)
Erantzun zuzena, eta obeto oraindik **zuzeneko erantzuna**.
- 4.—Dagoaneko ez dute ezer aurkitu (EITB 89go - VII - 24'an)
Beti oker darabilte "dagoaneko" itza. Oraindik ez dute...
- 5.—Naiz Paternina-taldeko gizonak lanean egon... (EITB 89'go - VII - 25'ean)
Txirringulari-taldeaz ari zan edo mintzo zan, beraz... egon ez ziran egongo,
eta lanean gutxiago. Taldeko gizonak gogor ari ziran...
- 6.—Taldeak irestea lortu ditu (EITB 89'go - VII - 25'ean)
Zer esan nai ote zuten? Taldean irestea lortu dute? Aiek irestea lortu du taldeak?
- 7.—Egazkiñak 300 lagun zeraman (EITB 89 - VII - 28'an)
Irureun lagun zeramatzan.
- 8.—Artu basoa ta zerbitzatu. (EITB 89'go ...)
Artu basoa ta serbi itzazu, ... zerbi ezaiezu ...
- 9.—Latiñezko irakaslea (EITB)
Ezur-mamizko irakasle izango zan, noski, ez latiñezko.
Latiñeko irakasle... latin-izkuntzako irakasle...
- 10.—Batzarra jasoko dugu... Batzarra altxako dugu... (Billasante'k)
Batzarra amaitu, bukatu... Batza aldia bukatu...

Gastañaga'tar Jesus

"EUSKERAZAINTZA"

Aldizkari onetako lenengo bederatzi zenbakietan idatzi duten edo agertu diran lanen egilleen zerrenda eta bakoitzaren lanen deitura eta ageriu zan zenbakiaren zeaztasunak.

AKESOLO, Lino.

- I.— Barrutiaren Gabonetako lkuskizuna.
- III.— Irizpidea.
- IV.— Jakakortajarena'ren olerkigintza.
- V.— "Orixe" abertzale.
- VIII.— Noiz erabili "tzaz" atzizkia?
- IX.— "Ko" atzizkiaren erabillera bi.

ANDRINUA, Martzel.

- III.— Balentin Berrio-Otxoa bertsolarien zaindari.

AROSTEGI, Luis.

- I.— "Lauaxeta"ren olerkien gizatasuna.
- II.— "Lauaxeta"ren olerkigintza.
- III.— "Lauaxeta"ren asmoa olerkiak burutzean.
- VII.— Aita Lino Olerkari.
- VIII.— L. Akesolo'ren bititza ta izakera.

ARRINDA, Anes.

- I.— Denbora berrietako eliza.
- II.— Anai arteko gorrotoa.
- III.— Anai arteko gorrotoa.
- VI.— "Tene" Muxika omendua.
- VIII.— Errietako izenak.
- IX.— L. Egia'ren Filosofi gaietarako... (Sarrera.)

ARRINDA, Anes eta Donato.

- IV.— Lege gizona, arma gizona, eleiz-gizona.
- V.— Euskal merkataritza.
- VI.— Euskal merkataritza.
- VII.— Ogibide ta langintzak.
- VIII.— Ogibide ta langintzak.

ARTOLAZABAL, Hilario.

- VIII.—Euskeraren etorkizuna.

AZPEITIA, Julene.

III.— Euskotar umien aldez.

BASTERRETXEIA, Jose. "Oskillaso".

IX.— Iruinea ala Iruña.

EGIA, Luis.

IX.— Filosofi gaietarako istori txikía.

ERKIAGA, Eusebio.

VII.— Aita Lino.

ETXEBERRI, Miren Elena.

IX.— Sortizantz-jakintza. (I)

ETXEBARRIA, Jose Maria.

VIII.— L. Akesolo euskal aztertzaile.

ETXEBERRIA, Franzisko.

VI.— Itzak.

VII.— Saguño.

IX.— Aata.

ETXENAGUSIA, Karmelo.

VII.— Aita Lino'ren lan eskutuak.

GARATE, Jose A.

IX.— Nemesio Otaño. (I)

GAZTAÑAGA, Jesus.

IV.— Jakakortajarena tar Txomin.

VII.— Kintana'ren arrazoi ta euskera.

VII.— "Txuri ta Gorri" liburuak.

VIII.— Oñatibia tar Jon euskal idazle.

VIII.— Euskerazko akatsak.

IX.— Euskerazko akatsak zuzentzen.

GOROSTIAGA, Juan.

VI.— "Kresala" ren euskaltasuna ta euskerea.

ITURRIA, Karma!.

IV.— Nemesio Etxaniz musikalaria.

JAKAKORTAJARENA, Txomin.

IV.— Erlezaintzako iztegitxo.

IV.— Burgos aldeko eizak (olerkia).

IV.— Sorgin laia (Olerkia).

KEREXETA, Jaime.

III.— Berrio-Otxoa.

LATIEGI, Bixente.

I.— Euskerazko izenak erdiaroko idazkeran. I

II.— Euskerazko izenak erdiaroko idazkeran. II

- III.— Euskerazko izenak erdiaroko idazkeran. III
- IV.— Euskerazko izenak... Bederatzigarren mendeko larruki. F
- V.— Euskerazko izenak... Bederatzigarren mendeko larruki. II
- VI.— Euskerazko izenak... Bederatzigarren mendeko larruki. III
- VII.— Euskerazko izenak... Bederatzigarren mendeko larruki. IV
- IX.— Euskerazko izenak... Bederatzigarren mendeko larruki. V

LEKUONA, Manuel.

- Vr.— "Orixe"ren salmutegia. (Itzaurrea)

MITXELENA, Manuel.

- III.— Jon Oñatibia'ren oroimenez.

MUJIKA, "Tene".

- VI.— Argiaren egutegia.

MUNIATEGI, Sabin.

- V.— Eguzkitza tar Yon.
- VI.— Azpeitia tar Yulene.
- VII.— "Tene".
- VIII.— Ama euskera.

OLABIDE, Raimundo.

- VII.— "Eziña egiña".

OLAZAR, Martin.

- I.— Euskera Bizkaian.
- II.— Nemesio Etxaniz eskubideen kezkatu.
- IV.— Elorrio'ko Balendin deunaren eskutitzak.
- VI.— Abostegia ta euskalkiak.
- VIII.— Abostegia ta euskalkiak.
- IX.— Abostegia ta euskalkiak.

ONAINDIA, Santiago.

- I.— Liburugintza.
- III.— "Tene" omendua.
- IV.— "Matxin Burdin".
- V.— "Orixe" ta olerkigintza.
- VI.— "Orixe" omendua.
- VII.— Euskera dala-ta.
- VIII.— Euskera dala-ta.
- IX.— Euskera dala-ta.

OÑATIBIA, Manu.

- V.— Baserría ta euskera.
- VI.— Arantzazu ta Bergara'ko batzarren ondoren.
- VI.— Erdera baztertua, diskriminatua?

ORMAETXEA, Nikolas. "Orixe"

- V.— "Jakakortajarenari idazkia.
- VI.— Zatarain'eri karta batzuk.
- V.— Elurren zuriak. (Olerkia)
- V.— Beti lagun. (Olerkia)

PUJANA, Pedro.

IV.— Ikako jokabidea.

SUKIA, Jose Mari.

IV.— Berastegi'ko On Txomin apaiza.

TALDEAN.

III.— Ikusi... zer ikusi?

VI.— Utsak, akatsak, okerrak.

URKIZA, Julen.

VIII.— "Idazlan Guztiak". Bildumaren premiña.

URRESTARAZU, Andoni.

I.— Euskeraren ebazkizuna.

II.— Gure Kezkak. 1.—Euskeraren soin eta ikurrak. 2.—Goi Yakintza.

V.— Euskal aditza.

VI.— Goi Yakintzaruntz.

VII.— Euzkera, euzko gogolantzearen onarria.

VIII.— Euskera ta euskal bizia.

IX.— Oldozmena.

URRETA, Juan Bautista.

VII.—Erro.

YURRAMENDI, Felipe.

VIII.— Txomin Agirre kolokan?

ZATARAIN, Anbortsi.

I.— Euskera lantzen.

I.— Izan du ala edun du?

II.— Gu ba goaz. Ni baita.

II.— Euskera lantzen.

III.— Euskera lantzen.

IV.— Euskera lantzen.

V.— "Orixe"ren bertsokerak.

VI.— Euskera lantzen.

VIII.— Euskera lantzen.

IX.— Soin itzaren adierazpena.

ZUBIKARAI, Augustin.

I.— Ondarroa'ko toponimia.

I.— Etxaniz tar Nemesio.

II.— Ondarroako toponimia.

III.— Arrantzako deitura batzuk.

IV.— Berastegi.

VII.— Dima.

VIII.— Eguraldiak. Deitura ta esaerak.

ZUBIRI, Iñaki.

I.— "Betiko" ta "betirakori" buruz zerbait.


II.— "Nintzan" "Nintzake".

III.— Aditzai buruz.


VI.— Izadi'ko Pitxiak liburuaren aurkezpena.

ZUZENDARITZA.

- I.— Agurra.
- I.— Euskerazaintza.
- I.— Gogoratu bearrekoak.
- I.— Sariketak.
- II.— Albiste ta berri.
- III.— Nikolas Ormaetxea "Orixe".
- III.— Euskal idazle biren 100 urte. "Tene", "Julene Azpeitia".
- III.— Elbira Zipitria sariketa.
- III.— Albiste ta berri.
- III.— Andres Mañarikua Nuere saria.
- IV.— Jakakortajarena, Txomin.
- IV.— Jakakortajarena tar Txomin, apaiza.
- V.— Gure eskintza (Orixe).
- V.— Nikolas Ormaetxea "Orixe".
- V.— Albisteak.
- VI.— Omenaldiak.
- VI.— Berisolariak eta Txomin Agirre.
- VII.— Aita Santi.
- VII.— Omenaldia. Aita Lino'ri.
- VII.— Sariketak.
- VII.— Euskerazaintza eta Jaurlaritzako Euskera sail-a rteko kartak.
- VIII.— "Zeleta".
- IX.— Aita Mokoroa'ren bilduma.



AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FDEZ. EGIGUREN



EA NATXITUA-BEDARONA



*EA liburuaren
aurkezpena EA'ko Udaletxean
(19-X-1988)*

IRUÑEA ALA IRUÑA?

Izenpuru onekin Urrilla'ren 16'an Jose Basterretxea "Ozkillaso" ren gutun bat agertu zan Deia egunkarian.

Idazkia, bear ba da zabalago eta irakurle geiagok jakin al izateko, gaztelaniaz agertu zan, eta au esaten etorran.

Pamplona'ren euskal izena Iruña da eta ez Iruñea, baiña Euskal Izkuntzaren Errege Akademiak erabaki du Iruñea esateko.

Zer gertatuko litzakete Español Izkuntzaren Errege Akademiak, antxiñako dokumentuetan ala datorren aitzakiz, esango ba luke Pamplona ordež Pampelone esan bear dala?

Iñork ez lioke jaramonik egingor Ez da Akademi baten lana itz egiten dun erriko izketa aldatzea, zeatz agertu baiño izkuntza ori zelan egiten dan. Erria da eta ez Akademia azken itza duana.

Euskaltzaindiaren aginte au itz egiten dan euskeraren ezezpen utsa da, eta ori ez zan sekula gertatuko Euskaltzaindian euskaltzain osokotzat euskaldun berriak egon ez ba lira.

Akademiak, bateratu bearrean, eten egiten du; len danok Iruña esaten gendun, orain askok idazten dute Iruñea. Ori batasunaren aurkako da.

Amabikote baten autuak izan ziran Akademia Iruñea'ren aldera makurtu zutenak. Euskaldun berri orrean aurrean 500.000 edo 600.000 euskaldun gera. Guretzat Pamplona'k Iruña izaten jarraituko du.

Jose Basterretxea
("Oskillaso")

Oarra.—"EUSKERAZAINTZA" Erri Akademiak berdin jarraituko duala esan genezake.